

Zu hemen zaude. goiena



"EVERESTERA IGOTZEKO AZKEN SAIAKERAN, EZ GENUEN MENDIGOIZALE SENIK IZAN"

Felipe Uriarte mendigoizalea, Oñatin, 1974ko Tximist espedizioaren garaiko erretratua eskuan duela.

Otsailaren 13an beteko dira 45 urte Tximist euskal espedizioak lehen aldiz munduko gailurrera igotzeko saiakera egin zuena. Orduko protagonistetako batek, Felipe Uriartek, gogoan du 1974ko hura / 34

IMANOL SORIANO



'Egin'-en zorra 'Gara'-ri leporatzea "bidegabekeria" dela dio Lazkanoiturburu kazetari oñatiarrak / 7

Bergarako Bolua: eremu desegokian eraikitzeak dakarren zama bizi dute herriak eta auzoak / 24

Debagoiena erreferente da Emakume Master Cup pilota txapelketan, 17 pilotarirekin / 39

SINADURAK

	PATXI OLABARRIA IRIZAR / 6		PERU ABARRATEGI / 17
	AITOR OROBENGOA / 10		XABIER IGARTUA / 35
	IDOIA ETXEBERRIA / 48		

Izaskun Arriaran aramaioarra, Kios-ko errefuxiatuen kanpalekuan, itsas laguntza humanitarioan / 2

puntu

Erreportajeen, iruzur informatiko ezagunenak

Aritz Otxandianori elkarrizketa, Bagara ekimenaz

Kanpoaldean iluntzen diren lenteak

% 30 eko deskontuarekin

Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira



Transitions
light under control

Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIOPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com

Izaskun Arriaran, kameren aurrean, *Aita Mari* ontziarekin bizi duten egoera kontatzen. IZASKUN ARRIARAN

Pateran datozenei laguntzen. GABRIEL TIZÓN

"Eman nahi dugun laguntza erabaki politiko baten menpe dago"

Izaskun Arriaran aramaioarra Itsas Laguntza Humanitarioa elkartearekin boluntario lanetan dabil; hain zuzen ere, 'Aita Mari' ontzia erreskaterako prestatuak daukate, baina Gobernuak ez die itsasoratze baimenik ematen

Jokin Etxebarria DEBAGOIENA

Zumaian jaio zen Jose Maria Zubia, *Aita Mari* ezizenez ezaguna zena. Txalupa bateko patroia, famatu egin zen Donostian, arazotan zeuden arrantzaleei ematen zien laguntzagatik. Haren omenez, Itsas Laguntza Humanitarioa elkarteko kideek Mediterraneo itsasoan arazoekin dabiltzan etorkinei laguntzeko espresuki antolatutako ontziari *Aita Mari* izena jarri zioten.

Ontzia prest dago lanerako, baina itsasoratze baimenik ez diote ematen. *Aita Mari*-rekin boluntario lanean dabilenetako bat da Izaskun Aranbarri aramaioarra, eta inpotentzia galanta daukatela dio: "Arazoa zernolako larritasunera iristen dabilen ikusita, izugarritzko lana egin dugu ontzia ondo prestatzen, eta, azken finean, eman nahi dugun laguntza erabaki politiko baten menpe dagoela ikusita, ezintasun galanta daukagu gainean. Gainera, ez da ulertzen erraza *Aquarius* ontziari baime-

na eman eta bai *Open Arms*-i eta baita guri ere ukatzea. Jarri dizkiguten argudioek, gainera, ez dute ez hankarik ez bururik".

Itsasoko legea

Itsasoko legeak dio naufragio bat erreskatatuz gero, itsas mila gutxien ibiliaz portu segurua batera eraman behar dela. "Hori da beraien eskubidea, etorkina izan edo ez, eta ez dabilteza legea betetzen. Guk arazo hau nolabait ikusarazi nahi genuen. Egoera oso larria da, jendea itsasoan hiltzen ari da eta, azken egun hauetan, jendea Libiara berriz bueltan nola bidaltzen duten ikusi dugu".

Ezin itsasoratu, baina aldeko erabaki bat etorri zain, Medite-

"BAIMENA UKATZEKO EMAN DIZKIGUTEN ARRAZOEK EZ DUTE EZ HANKARIK EZ BURURIK"

rraneotik gertuago egon nahian, Pasaiatik atera da *Aita Mari*; oraingoz, Mallorcara bidean.

'Aita Mari'-tik, Kios-era

Izaskun Arriaranek bere oporrak baliatzen ditu boluntario lanak egiteko, eta, *Aita Mari*-rekin ezin itsasoratu dela ikusita, Kiosko-Grezia-errefuxiatu kanpamentura joatea erabaki du. Han, 2015etik garatzen ari diren proiektuaren arduraduna da.

1.500 errefuxiatutik gora daude irla greziarreko kanpamentuan eta bertan bizi duten egoera larria da: "Guk gaixo dauden errefuxiatuak artatzen ditugu, baina bertan bizi dena oso gogorra da. Ur edangarririk ez dago, janari eskasia ikaragarria da eta gaixotasunak eguneroko kontu dira. Bost graduko tenperaturarekin egin dugu lo azken egunetan kanpin dendetan... Euskal Herriatik laguntza iristen zaigu, baina, hau zuzenean ikusi arte, ezin da benetan ulertu zer gertatzen den hemen".

*Aita Mari* ontzia Pasaiatik irteten. IZASKUN ARRIARAN

Kios-ko kanpamentua. JAVI JULIO



Kios-ko kanpamentuan medikua errefuxiatu bat artatzen JAVI JULIO



Urtrarrilaren 16an Biteri Eskolan egindako lehen saioa. XUSANE DE MIGUEL ORTIZ

Gizonak, berdintasunaren arloan prestatzen

Gizonak berdintasunaren arloan prestatzeko ekimena martxan da Arrasaten. Ekimenaren lehen saioa urtarrilaren 16an egin zuten eta datorren martitzenean, hilaren 5ean, bigarren saioa egingo dute. Gizonezko guztiei zuzendutako ekimena da

Amaia Zabala ARRASATE

Biteri Ikastetxe Nagusiak *Gizon taldea* izeneko topaketa antolatu du, Elkarheztzen eta Piper Txuriak elkarrekin elkarlanean, berdintasunaren arloko prestakuntza-ekintza bat sustatzeko.

Ekimenaren lehen saioa urtarrilaren 16an izan zen, ikasle-egoitza nagusiaren instalazioetan, eta, guztira, hamabi

gizon elkartu ziren, profil ezberdinetakoak denak. Uxue Urizar Biteri Ikastetxeko dinamizatzaile eta ekimen horren antolatzaileetako baten esanetan, "oso positiboa" izan zen eta profil eta adin askotariko jendea hurbildu zen, ikasle zein heldu: "Parte hartzaileak ere oso gustura atera ziren, oso naturala eta esperientzia poli-

ta eta aberasgarria izan zela esan ziguten. Oso berezia egin zitzailela, gainera, joan eta beraien izatea hitz egiten dutenak eta beraien esperientziak kontatzen eta elkarbanatzen dituztenak. Gaineratu zuten iritzi askotariko jendea batu zela, baina, azkenean, guztiak ondorio beretara iritsi zirela. Izan ere, ekimen horietan elkarren-

ganako errespetua da garrantzitsua".

Saio horrekin "ekainera arte, behintzat", jarraitzeko asmoa dute, eta, horretarako, "taldea kontsolidatu" nahi dute. Ondorioz, antolatzaileek gizon guztiei animatzeko gonbita egin diete. Ekimenaren bigarren saioa datorren martitzenean izango da, hilak 5, 18:30ean, Mondragon Unibertsitatearen Biteri Ikastetxe Nagusian. Aurtengo esperientzia "positiboa" izanez gero, urteetan ekimenarekin jarraitzea dute helburu.

"Elkarheztzen elkarrekin 2015ean antzeko ekimen bat antolatu zuen Arrasaten, gizon talde bat bildu zen, eta oso erantzun ona izan zuen. Orain, 2019an antolatu dugun ekimen honek ordukoa du oinarri" dio hark.

Ekimenaren bultzatzaileen esanetan, "aldaketa pertsonalak" eta, hortik abiatuta, "aldaketa sozialak" ekarriko dituen kontzientzia berria sortzea da ekimenaren ardatza. "Horrela, harreman-mota berriak sortu nahi dira gizonen eta emakumeen artean, baita gizon izateko eta maskulinitatea sentitu eta bizi izateko era berriak ere".

Juanma Feito (Piper Txuriak)

Gizon Talde horretako dinamizatzailea Juanma Feito da, Bilboko Berdintasunaren aldeko Piper Txuriak Gizon Elkartearen koordinatzailea eta sortzailea, eta berdintasunerako hezitzailea eta eragilea da hura. Esan behar da Piper Txuriak elkarrekin Bizkaiko Foru Aldundiaren saria jaso zuela 2016ean, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren alde egindako lanagatik.

Feltoren esanetan, horrelako espazio bat izatea "bizitzaren opari bat" da: "Izan dudana espe-

rientziaren arabera, oso gizon gutxi sentitzen dira eroso beraien maskulinitatea errebisatzean, eta horregatik da oinarrizkoa elkartu eta laguntza jasotzea. Lanketa honek sistema patriarkatuaren ikuspuntutik gizon izaten nola ikasi dugun identifikatzea dakar. Horrela, honetaz guztiaz kontzientzia hartu eta maskulinitate mota honi lotuta jasotako katea amaitzeko bermea da, gure ustez".

Berdintasunerako formakuntza

Gizon taldeez gain, gizonezkoekin zein emakumezkoekin zuzendutako formakuntza saioak ere antolatu dituzte. Berdintasunaren arloan trebatzeko ekimen horren lehen saioa otsailaren 13an egingo dute, 18:30ean, Biteri Ikastetxe Nagusian, eta aurrerago beste bi edo hiru saio egitea ere aurreikusten dute. Kasu horretan ere, saio irekiak izango dira, herritar guztiei zuzenduak, hain zuzen.

Formakuntza saio horietan, dinamizatzailea Ritxar Bacete Gonzalez idazle, antropologo, ikertzaile eta gizarte-langilea izango da. Horretaz gain, pertsonen eta taldeen *coaching*-ean masterduna eta feminismo eta genero ikerketetan masterduna ere bada. Aditua da generoari eta maskulinitate berriari buruzko ikerketetan, eta gizonekin egiten du lan, aukera-berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioaren alorretan.

EKIMENAK, ALDAKETA PERTSONALAK ETA HORTIK ALDAKETA SOZIALAK EKARTZEA DU HELBURU

'Ekian' jaio da, Euskadiko eguzki-energia parke handiena

Eguzkitik eratorritako Euskadiko energia-sorkuntza elektrikoko potentzia bikoiztuko du plantak horrek

Amaia Zabala ARRASATE

Mondragon Korporazioko Kreetaldea eta EVEK (Energia Euskal Erakundeak) *Ekian* proiektua aurkeztu zuten astelehenean Gasteizko Europa jauregian.

Ekian proiektua Euskadiko eguzki-parke fotovoltaiko handiena izango da eta eguzkitik eratorritako Euskadiko energia-sorkuntza elektrikoko potentzia bikoiztuko du bere 24 megawattei esker. Pauso handi bat

izango da, gainera, Eusko Jaurlaritzak 2030erako energia berriagarriaren inguruan ezarriko dituen lortuen bidean.

Ekian eguzki-parkea Erribera Beitiko (Araba) Arasur industrialdean eta plataforma logistikokoan kokatuta egongo da eta, guztira, enpresek 24 milioi euroko inbertsio globala bideratuko dute eguzki-parkea instalatu eta martxan jartzeko.

Etorkizunean euskal enpresa gehiagok proiektuarekin bat egitea dute helburu.



Jon Berbel, Kreetaldea taldeko zuzendari nagusia. 'TU LANKIDE'



Jose Luis Loidi, Jesus Uzkudun, Ainhoa Larrañaga eta Josu Zeziaga, martitzeneko saioan. ANDONI CANELLADA/FOKU

Amiantoak eragindakoak azaleratzea helburu

'Amiantoaren ondorioak' izeneko mahai-ingurua egin dute asteon Bergarako Irizar jauregian. "Amiantoak gizakion osasunean dituen eraginak ikusaraztea, mito batzuk apurtzea eta herritarrak gaiaren inguruan kontzientziatzea" izan da saioaren helburua

Eneko Azurmendi BERGARA

Jesus Uzkudun Euskadiko Amiantoaren Biktimen Elkarte (Asviasmie) kidea, Jose Luis Loidi Arcelor Mittal Bergarako langile batzordeko kidea eta Josu Zeziaga amiantoaren eraginez hildakoen semea izan dira hizlariak. Ainhoa Larrañagak egin ditu moderatzaile lanak.

"Oso pozik" azaldu dira mahai-inguruak izandako erantzunarekin. "60 pertsona inguru batu ginen, bete egin zen aretoa", azpimarratu du Loidik.

Uzkudun eta Larrañaga izan dira saioaren sustatzaileak. "Beharra ikusi genuen gai honen inguruan horrelako saio bat egiteko eta herritarrei informazioa emateko, oro har, oso ez-

kutuan eramaten ari den gai bat delako", dio Larrañagak.

Uzkudunek dio amiantoak hainbat gaixotasun eragiten dituela. "Hala ere, gaixotasunok tapatzeko ahalegina egiten dute hainbat mediku, enpresa eta eragilek. Ez zaie komeni gaixotasun hauekiko prebentzioan sakontzea. Kalte-ordainak ordaindu beharrik ez izanda, oso

merke ateratzen zaie, eta, beraz, ez zaie komeni prebentzioan inbertitzea", adierazi du.

Langileen zerrenda

Amiantoarekin lan egin izan duten langileen erregistro bat dago. Hala ere, Loidik salatu duenez, Arcelor Mittaleko langile asko ez daude zerrenda horretan, amiantoarekin lanean ibili izan arren. "Langile batzordetik hainbat salaketa egin ostean, Osalandik pasatu behar izan genuen, eta langile batzuei onartu egin gintuzten zerrenda horretan, enpresaren irizpidearen kontra. Ahoa betetzen dute esanez eurentzat segurtasuna dela inportanteena, eta honek agerian uzten du eguneroko jardunak beste bide bat hartzen duela. Lehen, tantaka onartzen ziren horrelako kasuak, baina orain, pixkanaka, geroz eta gehiago azaleratzen ari dira".

Langile guztiak zerrenda horretan egotearen garrantzia azpimarratu du Uzkudunek. "Zerrendan ez dagoen norbaitek zailagoa du daukan gaixotasuna aitortzea. Adibide bat jartzearren, ni belauetik operatu nindutenean, txosten guztietan agertzen zitzaie amiantoarekin lan egin izan dudala. Medikuek azterketa zehatzagoa egiten dizute zerrendan bazaude. Bestela, tabakoari errua bota eta hor konpon".

Gaineratu du "jende asko" dagoela fundizioetan eta metalaren sektorean lan egin izan duena eta ez dagoena zerrenda horretan erregistratuta.

Gaixotasunak

Loidiren esanetan, dagoeneko "gaitza eginda dago", baina "aurrerapausoak" ematen ari dira. "Orain arte isilean gorde dituzten hainbat gaixotasun arrunt

moduan kontsideratuak izan dira, baina gure ustez profesionalak izan beharko lukete, lanaren ondoriozkoak direlako".

Hainbat gaixotasun eragiten ditu amiantoak, Uzkudunek adierazi duenez: mesotelioma minbizia-laringekoa, pleurakoa, peritoneokoa, esofagokoa eta abar-, plaka pleurala edota asbestosia.

Zeziagak, testigantza

Josu Zeziaga bergararrak esperientzia propiotik egin du berba mahai-inguruan. Izan ere, aita Labegarrietako langilea zuen, eta 1989an hil zitzaion "gaixotasun ezezagun" baten ondorioz. "Esan ziguten fabrikako zerbaiten ondorioz izan zitekeela, baina argitu gabe geratu zen".

2011n, berriz, ama gaixotu zitzaion. Mesoteliomak erasan zuen eta zazpi hilabeteren ostean hil zen. "Medikuek esan ziguten amiantoaren ondoriozko gaitz bat zela, baina ez ziguten esan non kutsatu zen; arropa garbitzen edo auskalo...".

Zeziagak dio garrantzitsua dela hau guztia kontatzea eta azaleratzea, "jendeak jakin dezan gaixotasun hauek existitzen direla". Izan ere, azaldu du batzuei ez zaiela interesatzen amiantoarekin gertatzen ari dena azaleratzea. "Guk aitarena ez, baina amarena behintzat jakin ahal izan dugu. Beste kasu askotan ezin izaten dute jakin ez gaitza zein den, ezta gaitzaren jatorria ere", nabarmendu du.

KALTETUTAKO LANGILE GUZTIEK AITORTZA MEREZI DUTELA ALDARRIKATU DUTE SAIOAN

"Hiru urtean ez dute ezer egin konpostatzea bultzatzeko"

Mankomunitatearen hondakinen bilketaren kanpainaren harira, bailarako EH Bilduk erantzun egin gura izan du

E.A. DEBAGOIENA

Pasa den astean hondakinen bilketaren inguruan Mankomunitateko ordezkariak esandakoen harira, euren iritzia azaldu gura izan dute Debagoieneko EH Bilduko kideek asteon.

Koalizioaren arabera, arriskuan daude ontzi arinak birziklatzeagatik lortzen diren sarrerak. "70.000 euro lortzen ditugu ontzi arinetan inpropio maila %20tik beherakoa bada. Aurten, datuak okerrera egin

du eta %19 pasatxoan gaude; beraz, sarrera hori arriskuan dago, eta azpimarratu gurako gure hondakinak bereiztea garrantzitsua dela".

Bestalde, diote Mankomunitateak ez duela hiru urtean ezer egin konpostatzea bultzatzeko. "Organikoaren edukiontzian plastiko gehiegi zegoela eta, GHK-k Mankomunitateari abisua pasa zion, horrek horrela jarraituz gero organiko guztia errefusera joango zela esanez. Horrek asko garestituko luke tratamen-

dua, eta ingurumena gehiago kaltetu. Normala al da organikoaren datuak hobetze aldera Mankomunitateak hiru langile jartzea organikoaren edukiontzietatik plastikoak ateratzen? Uste dugu ezetz".

Azkenik, ez dute egoki ikusi hizkuntza ulertzen ez dutenak "errudun" jo izana Mankomunitateak, eta arazoa guztiona dela diote. "Jendeari nahi duena egiteko eskubidea duela zabaldu izana da arazoa, bereizi edo ez, aukera pertsonala dela".

Landaola sarietan ez dute zorterik izan bailarako ordezkariak

Atzo, eguena, egin zuten sari banaketa. Erakunde publikoen arloan, Antzuolako eta Bergarako udalak hautagaietako batzuk ziren, Ernaberri proiektuagatik eta Dolmenen Ibilbideagatik, hurrenez hurren. Ereindajan proiektua ere hautagai izan da erakunde pribatuen arloan. Hala ere, saririk gabe geratu dira, azkenean.

Eneko Azkarate ARRASATE

EAJk ekainean onartu zuen Debagoiengan dituen lau alkateak jartzea bere herrietan zerrendaburu: Arrasaten, Maria Ubarretxena; Bergaran, Elena Lete; Aretxabaletan, Unai Elkoro; eta Eskoriatzan, Joserra Zubizarreta. Lurrealdeko 24 udalerritako alkategaien berri eman zuten. "Pozik gaude egindako lanarekin; izan ere, gure alkateek astindu bat eman diete herriei, geldialdi batetik gentozen eta. Herriarrek hitz eginez, gainera. Horren ondorio da alkateek jarraitzeko konpromisoa hartu izana", zioen Josu Ezkurdiak, GBBko kide eta Eskoriatzako zinegotziak.

Gainerako herrietan -2015ean alkatetzarik lortu ez zuten Oñatin, Antzuolan eta Aramaion-, oraindik ez dute alkategairik aukeratu. "Alkategaiarekin batera, hautagaitza osatuko duen herritarren zerrenda ari gara osatzen", dio Lourdes Idoliagak, Oñatiko EAJren bozeramaileak. Alkate ohia bigarren joan zen 2015eko zerrendan, eta Miren Elgarresta alkategaia Foru Aldundira joan zenean hartu zituen bozeramaile ardurak. Edonola ere, "berriei" aukera eman eta "herrigintzan bai" baina "Udaltetik kanpo" aritzeko borondatea agertu du.

Antzuolan, Basili Ormazabal EAJren Antzuolako bozeramaileak zera dio: "Gauzak zail dauzkagu. Inor animatu ezean, ni neu izango naiz buru". 2011n herritik kanpoko jeltzaleekin osatu zuten zerrenda eta alkategaia izan zen Maria Eugenia Arrizabalaga EAJren gaur egungo bozeramaile Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Orain, 2015ean bezala, herriko alkategaia aukeratu nahi du Antzuolako EAJk, eta, hautagai berririk ezean, orduan bezala, Ormazabal izango da zerrendaburu.

Elgetan, 2015ean jeltzaleek ez zuten zerrendarik atera; Gu Geu Elgeta herri plataforman batu ziren hainbat hautagai jeltzale, Nerea Villa alkategai independentearen atzetik. Gerora, Mikel Larreak -1995-1998 agintaldian Antzuolako alkate izan zen, EAJ-egin ditu bozeramaile lanak. Hari galdetuta, berriro aurkeztuko asmorik ez duela esan du eta plataforma, "seguruen", ez dela berriro osatuko. Elgetako EAJ, horrenbestez, hauteskundeetarako zerrenda osatzeko lanean logoke.



Duela lau urteko Udal eta Foru hauteskundeetan, herritar batzuk botoa ematen Arrasaten. ARTXIBOA

EAJ, alkateak balioan jarrita; eta EH Bildu, berritasunekin

Lau hilabete baino gutxiago geratzen da maiatzaren 26ko udal eta foru hauteskundeetarako. Alderdiak ari dira, pixkanaka, alkategaiak aurkezten eta programak eta zerrendak osatzen. Jeltzaleek, aurpegi berri gutxi; EH Bilduk, gehiago

"Alternatiba erreala"

EH Bilduk dagoeneko bost herritan aukeratuta dauzka alkategaiak eta lau herri nagusietan hedabideen aurrean aurkeztu ditu. Azkena publiko egiten, Bergarako, martitzenean: Gorka Artola izango da, zinegotzia azken agintaldian. "Gaur egungo Gobernuari alternatiba erreala osatu diezaikegula uste dugu", adierazi du. Arrasaten, Maider Morras izango da alkategaia. 2011-2015 agintaldian Inaxio Azkarragaurizar alkate zela,

Bilduko zinegotzi izan zen. "Herrian ezaguna, profil zabalekoa, komunikatzaile ona, taldean lan egiteko dohain berezikoa eta kudeaketan eskarmentua duena". Horrelaxe definitu zuten alkategaia aurkezteko agerraldian.

Oñatin, aurpegi berria aurkeztu dute; askok ezustean hartu dute, gainera: Izaro Elortza; berria da politikagintzan. Eta, hain zuzen, Mikel Biainek zortzi urtean egindako lanari segida ematea izango da haren erroka. "Etap berri bat has-

teko ilusioz eta gogotsu nago; ohore bat da proiektu honen parte izatea", esan zuen abenduan. Aretxabaletan, Ion Albizu izango da zerrendaburu, hura ere zinegotzi azken agintaldian, oposizioan. Antzuolan, Beñardo Kortabarriak errepikatuko du. Gaur egungo alkatea bigarrenez izango da zerrendaburu. Eskoriatzan, berriz, otsailaren 9an egingo dute publiko alkategaia. Aitor Zubizarreta bozeramaileak zerrenda berritzeko borondatea azaldu du *Harira*-n: "Gazteei

aukerak" emateko. Eta, erabat ziurtatu gabe, alkategaia "emakumezkoa" izango dela ulertzerara eman du. Otsailaren 9an jakingo da.

Elgetan eta Aramaion ez dute ezer aurreratu. Elgetan, adibidez, Iraitz Lazkano alkatea izan daiteke aukera bat, duela lau urte hasitako bideari jarraipena emateko. Aukera horri buruz galdetuta, hark ez du ezer baieztatu: "Aurretik, zerrenda eta programa zehaztuko ditugu. Duela lau urte bezala, martxo aldera egingo dugu izendapena". Aramaion ere, aukeretako bat da Lierni Altuna alkateak errepikatzea. Baina ez dute ezer aurreratu.

Arrasaten, egonkortzera

Sozialistek ez zituzten emaitza onak lortu duela lau urteko hauteskundeetan, eta lau herritan dituzte zinegotziak: Arrasaten -hiru-, Bergaran, Aretxabaletan eta Antzuolan; guztira, sei zinegotzi. Baina erabakigarriak izan ziren Arrasaten, Bergaran eta Aretxabaletan, jeltzaleek alkatetza lortzeko. Udal Gobernuan jardun dute hiruretan. Arrasaten Oscar Garcia izan zen zerrendaburu eta errepikatu egingo du. Gainerakoetan, oraingo asteburuan aukeratuko dituzte alkategaiak.

Irabazi eta Ahal Dugu batera?

Ezker Anitzak, Equok eta Ahal Duguk zer egingo duten ikusteko dago. Seguruenez, batera aurkeztuko dira, indarra jarritz, bereziki, gaur egun ordezkaritza duten Arrasaten, Bergaran, Aretxabaletan eta Eskoriatzan, "eta Antzuolan", Ezker Anitzeko Debagoieneko koordinatzaile Juan Luis Merinok GOIENARI adierazi dionez. Exekutibek akordioa erditu bitartean, Irabazi-Ezker Anitza eta Equo eta Ahal Dugu, norbere aldetik ari dira zerrendak osatzen. Irabazik aurreratu du otsailaren 7an aurkeztuko dituztela Arrasateko alkategaia -Juan Luis Merino, gaur egungo zinegotzia- eta beste herrietako zerrendetako "kide batzuk". Arrasateko Baileike-Ahal Duguko Igor Urizarrek, bestalde, dio oraindik ez direla hasi Arrasate mailan "hitz egiten alderdi bion artean" eta "prozesu propioa" daramatzatela. Otsaileko bigarren astean behin betiko emaitzak izango dituztela dio.



ZABALIK

PATXI OLABARRIA IRIZAR

'Voxgorailuak'

Aitortzen dut, beti gustatu izan zaizkit Espainia aldeko tertulia fatxak. Intereconomiako *El gato al agua*, Treceko *El cascabel*... Beharbada, Madrilén pasa nituen hiru urteek eragina izan zuten nigan, Telemadrid ere ez baitzen atzera gelditzen.

Gaur egungo espainiar izarrak telebista horietako tertulietan egin ziren ezagun. PPko Pablo Casadoz, Ciudadanoseko Albert Riveraz eta Voxeko Santiago Abascalaz ari naiz. Duela urte batzuk *voxgorailu* horietan esaten zituzten astakeriak orain eguneroko entzuten dizkiegu.

Egunotan jendea harrituta dago Andaluzian Voxek izan duen babesagatik, baina boto horiek ez dira ezerezetik sortu, betidanik egon dira hor, PPrent mantapean.

Gogoan dut Navalcarneroeko espetxean nola hurbildu zitzaidan *Guerrillero de Cristo Rey* izandako gizon bat. Noski, espetxean ez zegoen *gerrileroa* izan zelako, preso

EZKER ABERTZALEKO FAMILIA BATEN BASERRIKO LEIHOARI TIRO EGITEA DOAKOA DA

soziala zen. Bere aita epaile frankista zela kontatu zidan eta harro zioen nola bere aitak heriotza zigorrera kondenatu zuen lehen euskal apaiza. Juan Carlos erregea traidoretzat


zeukan eta, oraingo erregearen aldeko jarrera erakustez gain, gaur egun gertatzen ari dena goitik behera asmatu zuen.

Kartzela berean mutil gazte bat ere ezagutu nuen. Diskotekako liskar batean labankada bat emateagatik zegoen preso. Espetxe baimena eman zioten, eta hurrengo bere berriak telebistaz izan genituen, Aitor Zabaleta erail baitzuen labankada batez Madrilén. Hogei urte geroago, berriz izan dugu bere berri. Hirugarren graduan zegoela, Brujasen atxilotu dute futbol partidaren aurretik poliziari nazien agurra egiteagatik.

Euskal Herria ere ez dago salbu, Amurrion ikusi dugun bezala. Ezker abertzaleko familia baten baserriko leihoari tiro egitea doakoa da. Baina lasai, *gerrileroa*, *nabajeroa* eta *pistoleroa* barrez dauden bitartean, Urkulluren euskal oasiaren ipuina entzunez goxo-goxo jarraituko dugu lo.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Eskubide kontua

MARTXELO OTAMENDI EGIGUREN

HTTPS://LABUR.EUS/IGLVY
'BERRIA' - N ARGITARATUA

Urte askotan, bi hamarkadotan, ezpata *Gara*-ren eta *Gara*-ko arduradun, langile eta irakurleen buru gainean eduki ondoren, Espainiako Gizarte Segurantzak erabaki berri du duela urte asko Garzon magistratuak bidegabeki eta injustizia larria eginez *Egin*-ekoa zen baina *Gara*-ri erantsi zion zor ekonomikoaren kobraketa aktibatzea.

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak ebatzi

zuen bere garaian *Egin* ixteko Garzonek hartu zuen erabakia konstituzioaren aurkako zela; baina mina, eta kaltea, egin zegoen.

Horrekin nahikoa ez, eta jai berria zen *Gara* ekonomikoki itotzeko erabakia hartu zuen magistratuak; *Gara*-rena ez zen zorra *Gara*-ren bizkarraren gainean jarri.

Demokrazia batean oinarritzko zutabea den eskubide baten urraketaren aurrean gaude: adierazpen askatasuna.

Askatasun hori urratzean, ez da bakarrik

ebakitzen komunikabideak eta kazetariak beren lana egiteko daukaten eskubidea, baizik eta baita herritarrek kioskoan pluraltasun informatiboa aurkitu eta libreki aukeratzeko daukaten eskubidea ere, aurrenekoa gabe ezinezkoa dena praktikatzeko.

Erromako zubiaren antzekoak izan behar du kioskoak demokrazian: kolore askotarikoa.

Zenbat eta kolore gehiago eduki, hobe.

Irakurleek bakarrik erabaki dezakete komunikabide baten iraupena, inolaz ez estatu egiturek.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martín,
Amaia Igarua.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goyatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa
arduraduna Igone Osinaga.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Bidegabekeria da 'Egin'-en zorra pagatzera behartzea"

DABID LAZKANOITURBURU 'GARA' EGUNKARIKO NAZIOARTEKO EDITOREA

Eneko Azkarate ARRASATE Espainiako Gizarte Segurantzari 3 milioi euro ordaintzera behartu dute *Gara* egunkaria. 1998an *Egin* egunkaria eta *Egin Irratia* itxi ostean, zorra *Gara*-ren bizkar laga zuen Baltasar Garzon epaileak 2003an, enpresen "ondorengotza ideologikoa" zegoela argudiatuta. **Ze balorazio egiten duzu?** Izugarrikeria da. *Egin*-en ixtearekin konformatu ez eta *Gara* itotzen saiatu dira. Lege aldetik bidegabekeria da. Auzitegiek hasieratik onartu zuten ez zegoela enpresen arteko segidarik. Baina Baltasar Garzon epaile *izarrak* segida ideologikoa zegoela erabaki zuen. Ideologia bat kriminalizatetik komunikabideak ixtera. **Nola egingo diozue aurre zorrari?** Ahal dugun moduan eta, ziurrenik, ondorio latzak pairatzen. Jakin badakigu, dena den, *Egin* eta *Gara* egunkariak posible egin



Dabid Lazkanoiturburu oñatiarra, *Gara* egunkariako kidea. GARA

zutenen eta beste askoren elkartasuna lortuko dugula. Elkartasunean dago segida. ***Egin* egunkariaren itxiera baliogabetzat jo zuen Auzitegi Gorenak, baina haren zorra ez zuen kitatu...**

Ez dago horrelako aukerarik. Bi aukera zeuden: ordaindu ala kiebra egin eta zuzeneko likidazioan amildu. **Hedabideek, oro har, eta Euskal Herrikoek zehazki, nola erantzun dute?**

Batzuek ondo eta beste batzuek ez hainbeste. Korporatibismoaren inguruan nahiko joera ankerra dute batzuek. Baina ezin dugu ahaztu hau ez dela korporatibismo kontua. Askoz harago doa. **Eta erakunde publiko zein eragileek?**

Oro har, oso era positiboan. Klima politikoa erabat diferentea da egun, eta laguntzeko borondatea eta elkartasuna agertu digute. 2019an 200 langile inguru dituen gure enpresa moduko bat ixterik ez dagoela argi dute. Gehienak harrিতa agertu dira, gauzak dagoeneko konponduta behar zuelakoan... Dena den, argi eta garbi esan diegu auzi hau ez dela eman diguten jipoi izugarri honetan amaitzen eta hausnarketa orokorra eman behar dela gure herriaren komunikabideen eta etorkizuneko helburuen inguruan.

Gaur egun, *Gara*-Naiz-Info7-n, zenbat debagoiendar ari zarete lanean?

Zortzi gara. Martin Garitano, Mikel Zubimendi, Maddi Txintxurreta eta Iñigo Olasolo bergararrak; Xabi Pico, Luis Jauregiartzo eta ni neu oñatiarrak; eta Nekane Ayensa arrasatearra.

HAU BE BADOGU!

#Gara eta #ExpolioGara traolak erabilienak



Gara-ko zuzendaritzak eguaztenean prentsaurrekoan azaldu zuen egunkariak *Egin*-en zorra –Baltasar Garzon epaileak ezarri zuen zigorra– bere gain hartu beharko duela eta 3 milioi euro inguru ordaindu beharko dizkiola Gizarte Segurantzari. Horrela, azken bi egunetan elkartasun mezuak eta #expolioGARA traola nagusitu dira sare sozialetan.

Emakumezkoen futbol partiduan, errekorra



Athleticen eta Atletico Madrilaren arteko Kopako partida Europako emakumezkoen futbolaren historian bi klubaren arteko partidari jendetsuena bilakatu zen eguaztenean, 48.121 zale batu ziren-eta Bilboko San Mames estadioan:

@emakundeJGV: "Zorionak @athletic_eus-eko jokalariei eta atzo Katedrala bete zenuten futbolzale guztiei. Gau aparta atzokoa!".

Sare sozialen pisua Venezuelan

Gaur egun sare sozialek duten pisua nabaria da, eta horren adibide da Venezuelako bizi izaten ari diren egoeran Twitterrek duen pisua:

@NicolasMaduro: "AEBetako herritar zaretenei, Donald Trump-en gobernuaren esku-hartzea gelditzeko babesa eskatzen dizuet, nire etxean, Venezuelako beste Vietnamgo gerra bat errepikatu ez dadin. Ez utzi gertatzen!".

ITURRI ONETIK

Omenaldia Aitor Sarasuari Aretxabaletan

Aitor Sarasua Maritzalari omenaldia prestatzen ari dira Aretxabaletan, jaioterrian, martxoaren 16rako. Dagoeneko lanean hasi dira haren hurbilekoak eta herriko beste eragile batzuk. Ikuskizun berezia prestatzen ari dira. 1967an jaioa, bertsolaritzan aritu zen agertokietan 1990eko hamarkada arte; baina bertso munduan beste hainbat zereginetan ere bai; besteak beste, Ipar Euskal Herriko bertso elkartean. Itsasun (Lapurdi) bizi zen aspalditik. Iaz hil zen, azaroan, Itsasun.

ALBISTE IZAN ZEN



2009-01-29

Oñati Bizirik sortu zuten hainbat eragilek

Oñati Bizirik herri mugimendu proiektua sortu zuten herriko alor askotariko hainbat ordezkari –herrigintza, erakundeak, ekonomia, hezkuntza, kirola eta kultura–. Helburua zen foro bat sortzea Oñatiren garapen orokorra bultzatzeko "denon parte-hartzearekin" eta eskualde bokazioarekin, "Debagoiena inspiratzeko". Izan ere, Debagoiena bat dela, "hiri bat", eta horrela mugitu behar zela zioen Luxio Ugartek, bultzatzaileetako batek.

Arrasate pasealekuan segurtasun handiagoa ikastola parean

AINHOA ASTIGARRAGA PENEDO
ARRASATE

Harrituta nago zelan pasatzen diren kotxeak Arrasate pasealekutik.

Kotxe asko eta asko abiadura azkarrean pasatzen dira.

Ez dituzte jendea eta zebra-bideak errespetatzen.

Lotsagarria da ikustea zelan lau hilabetetan lau istripu egon diren eta ez den neurririk hartu, bertan ikastola bat egonda.

Zer gertatu behar da neurriak jartzeko?

'Antzuola-Elgeta eta Agorrosin' gaia: Irabazi abstenitu izanaren arrazoia

AIERT LIZARRALDE

IRABAZI BERGARA KOALIZIOAREN
BOZERAMAILEA
BERGARA

Komunikabide batean aipatu da azaroan Bergarako Udaleko osoko bilkuran *Antzuola-Elgeta eta Agorrosin* gaiaren inguruan egin zen botazioan EAJk, PSEk, EH Bilduk eta Irabazik kontrako botoa eman genuela, eta hori ez da zuzena. Zuzentze

aldera, argi utzi nahi dugu Irabazi taldea abstenitu egin zela.

Arrazoiak azaroko Ogasuneko eta Kiroleko batzordeetan eztabaidatu genituen eta bertan garbi utzi genuen gaiak epaitegietan amaitu zezakeela, eta, gauzak okertuz gero, Bergarako Udalak Foru Aldundiari bi milioi itzuli beharra izateko aukera zabalik zegoela Gobernuak ez zuen arrisku hori ikusten, baina, hala ere, Irabazitik, Gobernuari negoziaketan jarraitzeko eta malguago eta apalago jokatzeko eskatu genion, erdialdeko irteera bat aurkitu ahal izateko.

SOSintxuko eskola

LEIRE ARBELAITZ ETA IONE SANTAMARIA

OSINTXUKO PONPORTOLA GURASO
TALDEAREN IZENEAN
BERGARA

Baliteke zuetako asko jakinaren gainean ez egotea, baina Osintxun bada eskolatxo bat. Eskola, San Martin Ikastetxeko gela *desplazatu* bat da, eta gaur egun Haur Hezkuntzako etapa eskaintzen du.

Testu hau idaztera animatu gara Osintxuko eskola inflexio-puntu batean dagoela jakinarazteko.

Azken hamarkadetan, eskolan dozenaka haur izatetik, pixkanaka gutxitzen joan da kopurua, eta gaur egun gutxi batzuk besterik ez dago.

Honekin arduratuta, eta, honi 180 gradu bira bat emateko asmoz, Osintxu eta Sorraluzeko guraso talde bat elkartu eta martxan jarri gara, gure seme-alabak Osintxun eskolaratzen ikusteko grinaz.

Txarretik beti ateratzen omen da zerbait ona, eta egoera kezkarri honek talde ilusioa eta indarra piztu dizkigu guri.

Uneotan, gure lehentasuna Haur Hezkuntza indartu eta Osintxuko eskola hainbat zerbitzuz hornitzea izan arren, etorkizunerako helburu potoloagoak ditugu.

Osintxuko eskolak eskola txiki batek eskaintzen dituen abantailak asko dituenek, garrantzitsua iruditzen zaigu hura mantendu eta indartzea.

Dena *makro*-rantz doan garai hauetan, txikitasunarengatik apustu egin nahi dugu: auzoak bizirik nahi ditugu!

Eta Osintxu zainduago eta erosoago baten behar larrian, eskola bultzada handi bat gehiago izango delakoan gaude.

Interesa duen edonor gonbidatu nahi dugu gurekin harremanetan jarri eta ibilbide hau konpartitzera!

Ate irekiak ospatuko ditugu gaur, otsailak 1, egubakoitza, 17:00etatik 19:30era eta otsailaren 7an, osteguna, 17:00etatik 19:00etara. Bi egunetan ipuin kontalaria izango da, 18:30ean. Hauxe da gure helbide elektronikoa: ponportola@gmail.com.

'Gara'-rekin eta lantaldearekin elkartasuna

JOKIN BEREZIARTUA, JULEN IRIONDO, LARRAITZ ZEBERIO ETA MIRARI ALTUBE

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEKO
KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK, GOIENAKO
44 LANGILEREN IZENEAN
ARRASATE

Joan den asteazkenak egun alaia izan behar zuen *Gara* egunkariko lankideentzat. Izan ere, hogeitau urte bete ziren lehenengo zenbakia argitaratu zutenetik, eta, hain zuzen, ospatzeko moduko lorpen handia da

hori, batez ere komunikabideentzat bizi dugun aro zail honetan.

Aitzitik, poztasun zantzurik ez genuen sumatu *Gara*-ren arduradunek egunkariaren urteurrenean egindako agerraldian: erredakzioa hutsik eta erdi ilunpetan zegoela, datozen urteotan hiru milioi eurotik gora ordaintzera derrigortuta daudela azaldu zuten, zer eta Espainiako justiziak berak legez kanpotzat jotako *Egin* egunkariaren itxieraren ondorioak ordaintzeko.

Lerro xume hauen bidez, Goiena Komunikazio Taldeko langileek eta Euskal Herri osoko 66 toki komunikabide batzen dituen Tokikom-ek *Gara*-ri ezarritako zor horren bidegabekeria publikoki salatu nahi dugu, komunikazio proiektuaren bideragarritasuna kolokan jarritz prentsa askatasuna eta aniztasuna ere kaltetzen dituelako, eta elkartasuna adierazi nahi diogu *Gara*-ren lantalde osoari.

Toki komunikabideetan oso jabe gara prentsa aniztasunak duen garrantziaz, eta haren alde diharduenak ondoan izango gaitu.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Amodio-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna



ikastola

elkarrekin
hezkuntza
eraldatzen



ikastolen elkartea

Matrikulazioa: urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra



Txantxiku
Ikastola



arizmendi
ikastola



ARANZADI ikastola
Kalitatezko Euskal Heziketa

Ateentzako putzu zena ur-parke bihurtuko dute

Aurrekontu proposamenean aurreratu bezala, Santa Barbara parkeko ahateen putzua ur-parke bihurtzeko partida prest du Udal Gobernuak. Laster esleituko dituzte lanak –350.000 euroko aurrekontuarekin– eta 2020ko udarako egongo da erabilgarri

Xabi Gorostidi ARRASATE

Urteetan "erabili barik eta egoe- ra kaxkarrean" dagoen Santa Barbara parkeko beheko aldea –Munar ondoko gunea– berritu beharra dagoela dio Udal Gobernuak. Azaroan, Udal Gobernuak 2019rako aurrekontu proposamena aurkeztu zutenean, parkea egiteko asmoa adierazi zuten, eta, astelehenean, ofizialki aurkeztu zuten egitasmoa.

2020rako

Obrak aurten hasiko dituzte, eta 2020ko udan izango da parkea erabilgarri. "Prozedura administratiboak ez du denborarik emango parkea 2019ko udan erabilgarri egoteko. Proiektua martxoan jasoko dugu, eta, ostean, lehiaketa publikoa egingo dugu lanen exekuzioa esleitzeko. Horrek bizpahiru hilabete hartuko ditu, eta, beraz, lanak aurten hasiko dira, 2019an, baina parkea ezin izango da 2020ko uda heldu arte erabili". 350.000



Ibon Arrupe, Maria Ubarretxena eta Juan Antonio Urdangarin. AITZIBER ARANBURUZABALA

euroko aurrekontua izango du Santa Barbarako parkeak.

Umeen eskariak kontuan hartuz Bidein enpresa ari da proiektuaren idazketa teknikoak egiten, eta, ur-parkeaz gain, egurrezko

mahaiak eta etzanda egiteko berdegune bat ere izango ditu. Diseinuarekin lotuta, Maria Ubarretxena alkateak azpimarratu zuen Haur Kontseiluak egindako proposamenak aintzat hartu dituztela.



'Ekoboulevard'-en, beste parke bat

Baina Santa Barbarakoa ez da Arrasateko ur-parke bakarra izango. San Andres eta Musakola bidegorriz lotzeko helburu duen *Ekoboulevard* proiektuaren baitan, bigarren parke bat jartzeko asmoa dute: erreka alboan egingo dute, irudiko kokalekuan.

"Parkearen diseinua egiteko aintzat hartu ditugu Haurren Kontseiluan umeek egin dizkiguten proposamenak. Zein joko mota nahi dituzten esan digute, eta horien artean daude, adibidez, elkarriri ura botatzeko txorrotak. Horrez gain, bankuak edo merienda jateko lekuak non kokatuko lituzketen ere hartu dugu kontuan".

Ur-parkea publikoa izango da, hau da, edonorentzako erabilgarri, nahiz eta bereziki 8 urteko azpiko haurrengan pentsatuz diseinatuta izan den, eta uda

sasioan bakarrik izango da erabilgarri.

Hala, 2020tik aurrera, Arrasateko haurrek urarekin jolasteko parkea izango dute, aldeztatik Antzuolan, Oñatin eta, berriki, Aramaion jarritakoen antzera.

HAUR KONTSEILUKO IDEIAK IZANGO DITU OINARRIAN, ETA UDA SASOIAN EGONGO DA ERABILGARRI



NIRE USTEZ

AITOR OROBENGOA

Idealismoa eta errealtatea

80ko eta 90eko hamarkadetan zehar zortzi urtez izan nintzen Arrasateko Udaleko zinegotzi, eta, gazteena nintzen, aholku ugari jasotzen nituen. Aholku jatorrenak nirekin batera urte betez zinegotzi izan zen Mikel Larunbek –Arrasateko Ospitaleko zuzendaria zena– ematen zizkidan. Jakinik administrazioko zereginak astunak zirela, zera esaten zidan nire ilusioa mantentzeko: "Pentsatu behar duzu egiten ari zaren lana *herriaren* alde dela". Ondoren, berehala, beste perpaus hau gehitzen zuen: "Inoiz ez zaitez pentsatzen jarri *herria* zein gizabanakok osatzen duten. Horiei banan-banan begira jarritz gero, konbentzitu egin zintezke halako pertsonen osatutako herriak ez duela horrenbesteko lana merezi eta".

Mikelen esanetan, *herria* maila idealizatu baten mantendu behar zen, betiere, errealtatea gordinegia gerta ez zekigun. Aitortu behar dut, urteak etorri, urteak joan, Mikelen hitzak gero eta maizago etortzen zaizkidalda gogora. Izan ere, gure Aberriko gauza asko eta asko ez zaizkit gustatzen eta Euskadi berriz ere idealizatu beharrean nabil.

OHARRAK

EH Bilduren lan-saioa

Maiatzeko hauteskunderi begira, bigarren lan-saioa egingo du EH Bilduk, bihar: Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 10:30ean.

Ezker Anitza eta Kuba

Kubarekin lotutako hiru erakusketa hartuko dituzte euren egoitzan. Astelehenean emango dituzte xehetasunak, prentsaurreko bidez.

Ramon Ugalde

Herrigintza parte hartzailea oinarri duten ekimenei buruzko topaketa antolatu du biharko, zapatua, Mundrauetarrak elkartearen laguntzarekin. Hitzordua: 09:30ean, Etxaluze egoitzan.

Frantziara ihesean joandakoak oroitu dituzte Intxorta elkarteak

30 argazkiz osatutako erakusketa bat eta gaiari buruzko dokumentala antolatu dituzte otsailaren 7rako, Kulturaten

X.G. ARRASATE

1939ko otsailean, milaka euskaldun, horien artean 75 arrasatear –zerrenda *Goiena.eus* webgunean dago ikusgai–, Frantzia aldera joan ziren *La Retirada* izenarekin gogoratzen den ihesaldian. Haiei omenaldi xume bat egin guran, orduko 30 argazkiz osatutako erakusketa eta dokumental baten proiektzioa antolatu dute Intxorta 1937 elkarteok otsailaren 7rako. Argazki erakusketari *Etorkizuna alanbre hesi artean* izenburua jarri diote. 18:30ean irekiko dute, Kul-

turateko klaustroan, eta bertan, Josu Chueca idazle eta historialari nafarrak hainbat azalpen emango ditu.

Ostean, 19:00etan, *De la retirada a la reconquista* dokumentala proiektatuko dute areto nagusian. Emile Navarro eta Ay-mile de Chanterac dira ikusentzunezkoaren egileak, eta gaiari buruzko azalpenak emateko Anita Fernandino gonbidatu dute; Pirinioetan aritutako maki nafar baten alaba da, Frantzia herbestean zeudenean Baionan jaiotakoa.

Aurpegi eta ideia berriak Besaideko zuzendaritzan

Urtarrilaren 24an, batzar orokorra egin zuten Besaide MEko lagunek, eta bertan finkatu zuten etorkizunean elkarte gidatuko duen zuzendaritza berria. Zortzi kidek osatuko dute eta Eñaut Iturbek hartuko du Aitor Zubiagaren lekukoa presidente gisa

Xabi Gorostidi ARRASATE

Besaide Mendizale Elkarteko zuzendaritza azalberritu egin da. Aurreko zuzendaritzakoek egindako deiak izan du erantzuna, eta pasa den asteko batzar orokorrean ofizialki finkatu zuten zuzendaritza berria. Hala, honako zortzi kide hauek osatzen dute: Eñaut Iturbe –presidentea–, Asier Uroz –presidenteordea–, Jokin Murgiondo –diruzaina–, Imanol Ibarra –idazkaria–, Jon Azkoaga –bokala–, Mertxe Exposito –bokala–, Iraitz Etxaburu –bokala– eta Olatz Igartua –ordezko bokala–.

"Oso pozik gaude. Lantalde polita osatu da, eta lortu dugu jende berria erakartzea. Dei egin genuenean, esan genuen orain arte zuzendaritzan aritutako lagunon laguntzarik ez zaiela faltako. Euskaldunok ia beti betetzen dugu emandako hitza, aldamenen edukiko gaituzte laguntzeko prest, nahi duten beste", azaldu du elkarteko azken



Aitor Zubiaga –azken presidentea– eta Eñaut Iturbe –presidente berria–. J. BEREZIARTUA

presidente Aitor Zubiagak. Kargua hartu berritan, zera adierazi du Eñaut Iturbe presidente berriak: "Ateak zabalik izango ditugu jende eta ideia berriak sartzeko. Lehenik eta behin, aurreko zuzendaritzak egindako

lana sakon aztertzea tokatzen zaigu, gure ekarpenak egiten hasi aurretik. Ilusioz gaude bide berriak egiteko eta gure helburuetako bat izango da ahalik eta jende gehienengana heltzea: haurrak, gazteak, emakumeak..."

Apustu-etxeen aurkako pankartak jarri ditu Jaikik

Martitzen goizean, apustu-etxeen aurkako mezuak zituzten pankartak agertu ziren Codere etxeak Mondragones kalean zuen egoitzan. Jaiki taldearen sinadura zuten, eta, horietan, *Apustu-etxeak kanpora* eta *Zuen aberastasuna, herriaren miseria* mezuak zeuden jarrita, baita jokoaren adikzioari buruz antolatutako hitzaldiko kartelak ere. Horren harira, oharra helarazi zuten komunikabideetara, eta bertan aipatzen zuten apustu-etxeek gazte prekarioak eta langileria, oro har, kaltetzen dituztela.

Codere apustu-etxeak 2018ko otsailean ireki zuen lokala, baina, hamar hilabete pasata, atek itxi zituen, abendu erdialdean.

OHARRAK

Pentsiodunak

Astelehenean elkartuko dira, 12:00etan, Herriko Plazan.

Ludoteka ibiltaria

Aurtengo lehena bihar egingo dute, Musakolan. Hitzordua: 11:00etan, gazte txokoaren kanpoaldean. Guztira, lau saio egingo dituzte auzo horretan.

Inauterietako kartela

Hori aukeratzeko lehiaketa martxan du Kultura Sailak. Lanak hilaren 12ra arte aurkeztu beharko dira BAZen.

Familian Jolasean

San Blas opil goxoak egiteko baliatuko dute asteburu hau. Hitzordua, domekan, 17:00etan, Okendoko ludotekan.

Urratsez urrats, M8ko ideia zaparrada lurreratzen ari gara

Goiena komunitatea

M8 plataforma / ARRASATE

Kaixo, lagun! Aste honetako bileretan emakume kopuru ederrak hartu du parte, eta jende berria ere batu zaigu. Gutxika bada ere, bagabiltza lehen saioetako ideia zaparradari forma ematen, eta jada badugu ekintza bat iragaritzeko. M8ko greba lanpostuetan ondo egin ahal izateko, eta egon daitezkeen zalantzak argitzeko, enpleguarekin lotutako batzar informatiboa egingo dugu otsailaren 19an.

M8 plataformaren hurrengo batzarra otsailaren 12an egingo dugu, goizez eta arratsaldez, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan. Zatoz gurekin!



Besaide Espeleologia Taldea

Elkarte horrek –bere garaian Besaide ME barruan egondakoa– lan sakona eta mardula egin du lau hamarkadatan zehar Arrasate inguruko kobazuloak aztertzen. Jakintza hori betikotzeko asmoz, Jose Maria Exposito eta Xabier Azkoaga espeleologoen katalogo bat argitaratu dute AZEren, Udalaren eta Intxorta 1937ren laguntzarekin. "Material hau guztia eduki eta ez argitaratzea arazoa bat zen guretzat, esan ohi den bezala, argitzen ez dena ez delako existitzen", adierazi du Expositok. Liburuan 250 zulo ingururi buruzko informazioa jasotzen da: Arrasateko guztiena, baita Aretxabaletako, Aramaioko, Elorrioko eta Eskoriatzako hainbatena ere. Kobetan aurkitutako landareei eta animaliei ere egiten diete tartea, eta espeleologian segurtasunez aritzeko gomendioei. Liburuaren 200 ale atera dituzte, eta, hasiera batean, ez da salgai egongo.

LANZAROTE

Bilbotik joan-etorri zuzena
Martxoaren 2tik 13ra
Lanzaroteko Morromar apartahotelean, DENA BARNE

MAROKO eta BASAMORTUA

Irteerak Arrasatetik
Aste Santua – Pazko astea
Apirilaren 19tik 26ra

Halcon bidaiak

Informazio gehiagorik:
Erdiko kalea 16
943 79 29 88
* Karitsuitatu Debogoleneko beste irteera batzuk Halconq90@halcon-viajes.es



Maria Ubarretxena, Goiena telebistako platoan. XABI GOROSTIDI

"Berriz irabaziz gero, kiroldegia berrituko dugu; beharrezkoa da"

MARIA UBARRETXENA ARRASATEKO ALKATEA ETA EAJ-REN ALKATEGAIA

Gustura dago, batez ere, agintaldian zehar "herritarrek entzuteko gai" izan direlako. EAJren alkategai moduan errepikatuko du, eta "gogotsu eta ilusioz" dagoela dio

Xabi Gorostidi ARRASATE

Agintaldia agortzeko lau hila-beteren faltan, Goiena telebistako *Harira* saioan izan da Ubarretxena, orain arte egindakoak eta etorriko direnak aztertzeko. **Nola baloratzen duzu Gobernuan egindako lana?**

Agintea lortu aurretik, bageneukan Arrasate geldirik zegoen sentsazio orokorra. Agintaldian zehar gauza asko egin ditugu, herri proiektu bat aurrera ateratu dugu, eta uste dut herritarrengan ilusioa piztu dugula.

Horri guztiorri jarraipena emateko, gogotsu eta ilusioz aurketuko gara maiatzeko hauteskundeetara.

Zerekin geratu zarete gustura?

Uste dut entzute aktiboa egin dugula lau urte hauetan. Nahi

"ESFORTZUA EGIN DUGU KUDEAKETAN; HAINBAT PROIEKTU DAUDE MARTXAN, ETA EZ DUGU ZORRIK"

ko genuke arrasatearrek sentitzea euren iritzia kontuan hartu dugula. Uste dugu herritarren beharrak entzutea dela udal batek egin behar duena.

Zure hautagaitzaren albistean, herritar batek TAO (OTA) sistemaren gaia aipatzen du. Noizko hedatuko da herri osora?

Mugikortasun Mahaian, eta baita Mugikortasun Planean ere, adostasuna lortu zen TAO sistema herri osora hedatzeko. Baina baldintza batekin: herritarren parte hartzearekin egitea,

euren ikuspuntua txertatzeko aukerarekin. TAO herrira hedatzeko hainbat eskaera jaso ditugu, eta, adibidez, Munar auzoko bizilagun batzuek Arartekora ere jo dute eskari horrekin. Gu lan hori egiteko prest gaude, eta baita horrek eskatzen duen lanketa egiteko ere.

Kaleak zikin daudela kexatzen dira herritar batzuk. Zein da zuen iritzia?

Bai, guk ere ikusten dugu asko dugula hobetzeko gai honetan. Txakur kakekin lotutako kexak heldu zaizkigu, baina baita lurrean dauden plastiko poltsen inguruan. Nik uste dut kontzientziazio kanpainak egiten jarraitu beharra dagoela, baina hau gizarteak egin beharreko ariketa bat da, eta, horretarako, urratsak egin behar dira gizabide puntu hori barneratze.

Nola hartu duzue Arrasate Aurrera plataforma agertu izana?

Positiboa da, batez ere, politika hain desakreditatuta dagoenean. Herritarrek aukera gehiago izango dituzte, eta ez dugu kezka bizi, uste baitugu hemen denontzako lekua dagoela.

Juan Arzamendi Musika Eskola izan da zuen apustu bat. Zein puntutan dago une honetan?

Lanak normaltasun osoz doaz, eta proiektua %100ean dago finantzatuta. Espero dugu 2021. urteko kurtsoa bertan eman ahal izatea. Orain, eraikina birgaitzen ari dira, eta ostean, barrutik hornitu beharko da.

Finantza arloan, zein da Udalaren zorpetze maila une honetan?

Agintea hartu genuenean, 3.000.000 euroko zorra zuen Udalak. Ordainduz joan gara, eta urtarrilean egingo da azken kuotaren ordainketa. *Zero zor* egoera daukagu orain, eta hori kudeaketan esfortzu bat egin den seinalea da. Guretzat, oso garrantzitsua da, adibidez, ia 6.000.000 euro kostatuko den musika etxeko lanak martxan jarri izana eta jada ordainduta izatea. Kulturola, adibidez, ez dago %100ean ordainduta, baina zati handi bat bai, %80tik gertu. Otsailaren 5eko osoko bilkuran emango zaio onarpena Kulturolako lanak esleitzeari. Makatze-

"SUZKO ARMAK BAIMENTZEKO KONTSENTSURIK EZ DAGOENEZ, EZ DUGU ERABAKIRIK HARTU"

nako igogailua ere ordainduta dago; 1.000.000 eurotik gorako kostua izan du.

Musakolako kiroldegia berritzearen alde agertu zarete...

Hauteskundeak berriz irabaziz gero, kiroldegia berrituko dugu. Beharrezkoa da: 40 urtetik gora ditu eraikinak, aluminosia du, eta ezin da mantendu. Bota egin beharko litzateke. Proiektu potolo bat da, bertigoa eman dezakeena. Bertigo horrek eragin du, hein handi batean, eraikin horrekin 40 urte egitera heldu izana. Baina jada ez du zerbitzu on bat eskaintzeko balio, eta erantzukizunez jokatu dugu. Hauteskundeen aurretik eginda utziko dugu kiroldegi berriaren aurreproiektua, eta, ostean, agintea lortzen duenak erabakiko du; egin edo ez. Aurreproiektua oinarri bat izango da, ostean prozesu parte hartzaile bat eskatuko duena: klubekin, erabiltzaileekin, herritarrekin...

Nola bizi duzue komertzioetako lapurreten gorakada?

Kezka handiz bizi dugu. Legearen aurrean inpotentzia sentiarazten digun gai bat da, askotan ikusten dugulako, tamalez, epailearen aurretik pasa eta handik gutxira lapurrak libre geratzen direla. Hauek adin txikikoak badira, Udaletik harremanetan jartzen gara gurasoekin, eta lapurretak direla-eta behin baino gehiagotan jo dugu Jaurritzako Segurtasun Sailera. Baina, tamalez, ikusi dugu ez dela Arrasateko fenomeno isolatu bat, askoz hedatuago dagoen arazo bat baizik. Instituzioen aldetik beste estrategia bat jarri behar da arazo honi konponbidea jartzeko. Funtsezkoa da.

Udaltzainek suzko armak erabiltzeak lagundu dezake?

Gai delikatuak da suzko arma, horiekin pertsonak hil baitaitezke. Bere garaian esan genuen kontsentsurik gabe ez genuela erabakirik hartuko. EAJ barruan iritzia kontrajarriak ditugu, udaltzainen artean ere bai, beste alderdi batzuk alde agertu dira, beste batzuk aurka... ez dago kontsentsurik, eta horregatik ez dut erabakirik hartu.

Bizikidetzan urratsak egin dituzue...

Bi urte erdiko ibilbidea izan da, lan serioa eta lan sakona eginez. Zailtasunak izan ditugu, baina eskuzabalak izan gara denok. Guretzat, bizikidetzak garrantzi handia du, eta errespetuz eta seriotasunez jarraitu behar dugu.

arrasate

Herri Eskola



MATRIKULAZIOA ZABALIK

URTARRILAREN 28TIK OTSAILAREN 8RA

EGUNEROKO ZAINZA ETA ZAINZA ZERBITZU INTEGRALA IRAILEAN, UZTAILEAN ETA GORRIZ EZ DIREN ESKOLAKO OPOR EGUN GUZTIETAN

goieskola

debagoleneko euskal
eskola publikoa



*"Guztion eskola,
Guztion artean"*



arrasate
Herri Eskola



"Alkideba Ointxe!-k zubi lanak egitea du helburu"

Igo berria da Ointxe!-ko bigarren taldea Euskadiko Bigarren Mailara, eta, hala ere, denboraldi itzela egiten ari da: lider, puntu gehien sartzen duen taldea eta lehen itzulian bi partidu bakarrik galduta; biak Bizkaian, eta biak hiru puntuko aldearekin

Jokin Etxebarria ARRASATE

Azken urteetan, Arrasateko Ointxe! Saskibaloia Taldea harrobiarekin lan handia egiten ari da. Horren erakusgarri da urtero-urtero klubeko talde kopuruak gora egiten duela eta geroz eta neska-mutil gehiago direla saskibaloian jokatzeko dutenak herrian. Izebergaren puntan EBako taldea dago, baina azpian lan handia egiten da.

Alkideba Ointxe! da klubeko bigarren taldea. Jokalari gazte eta beterranoek osatzen dute, saskibaloian jokatzeko ilusioak batzen duen familia handi baten gisa. Ilusioak gozamenak ekarri ohi du, eta, gozatuta, emaitza onak iristea errazago da.

Mailaz igo berri

Iaz, Gipuzkoako Lehen Maila Erregionalean ari zen taldea. Denboraldi bikaina egin eta gero, igoera jokatzeko lauko finalera iritsi zen, baina finalean, Donosti Dolphinaren aurka galdu egin zuen. Donostiarrek maila bat gorago aritzeko nahikoa azpiegitura ez zutela ikusita, baina, libre geldituko zen plaza hori betetzea eskatu zuen klubak. "Zuzendaritzak nahi du Alkideba Ointxe! juniorren eta lehen taldearen arteko zubi lanak egiteko dituen taldea izatea, eta horretarako egoki ikusi zuen maila bat gorago jokatu ahal izatea", dio Javier Txisko Eraña entrenatzaileak.

Junior mailatik EBARA dagoen jauzia oso handia da eta Gipuzkoako kantxa eta jokalarien aurka jokatzera ohituta zeuden jokalariei ondo etorri zaie kantxa eta jokalariei ezezagunen aurka jokatzeko: "Entrenatzaileentzat ere gauza berria zen eta ez genekien zer aurkituko genuen. Egia esan, oso talde gogorren aurka jokatzeko egokitu zaigu, batez ere, Bizkaian, baina, oraingoz, gauzak oso ondo doaz". Eraña eta Urtubi entrenatzaileak ezin



Taldea, entrenamendu baten atarian. ALKIDEBA OINTXE!

"OSO TALDE GOGORREN AURKA JOKATZEA EGOKITU ZAIGU; BATEZ ERE, BIZKAIAN"

dira kexatu, taldeak lider amaitu baitu lehen itzulia, bi partidu bakarrik galduta eta puntu gehien sartzen duen taldea izanda.

"Galdu ditugun bi partiduak hiru puntuko aldearekin bakarrik galdu ditugu, biak Bizkaian. Ikusiko dugu bigarren itzuliak zer ematen duen, oso talde gogorren etxean jokatzeko dugulako, baina polita litzateke igoera fasea jokatzeko", dio Eraña.

Gazte eta beterranoak

Iazko taldeko muinak jokatzeko jarraitzen du. Beheko mailetatik gutxika-gutxika gora joan diren jokalariek dira. Multzo horri, baina, hiru beterrano batu zaizkie, EBA ligako taldeak eskatzen duen esfortzuarri ezin ziotenak erantzun baina saskibaloiarekin disfrutatzen jarraitzeko gogoak zeukatenak: "Zeziagak, Atxak eta Aranzabalek asko eman dio-

te taldeari, taldea hazi egin da beraiekin, eta, talde bat hazten den heinean, taldea osatzen duten jokalariek guztiak hazten dira". Erañaren eta Urtubiren filosofia denok disfrutatzea da: "Adibidez, azken partiduan jokalariek guztiak sartu zuten punturen bat, eta, guretzako, hori oso garrantzitsua da, guztiak taldearen parte sentitzen baitira".

Bestetik, talde nagusiarekin duten harremana handia da, Alkideba Ointxe!-ko hiru jokalariek entrenatzen baitira EBakoekin batera. "Ahalegintzen gara baita ere lehen taldeak jokatzeko duen erantzerantz, azkar eta ikuslearentzat modu ikusgarrian, nahiz eta astean bi entrenamendurekin soilik, normalean, libre antzean jokatzeko dugun eta ez ditugun sistema gehiegi erabiltzen". Gainera, junior mailatik bi edo hiru jokalariek igo ohi dituzte, bai entrenatzaileekin, eta argi dute dinamika horretan sartu nahi dituztela jokalariek, egunen batean lesioaren bat baldin badago askorik ez igartzeko.

Zubiek, batzeko balio duten heinean, gozatzeko aukera ere ematen dute.

Gaztediren kontra egin bezala, sorpresaren bila Kanpazar ART

Asteburu honetan, La Unica talde nafarra hartuko dute Arrasateko errugbi taldekoek Mojategin

J.E. ARRASATE

Lehen itzuli zaila eduki eta gero, azken partiduetan gora egin du Kanpazar ART taldeak. Gaztedi hirugarren sailkatuaren aurka sorpresa eman eta gero, etxetik kanpo jokatu dituzte Igor Isasiren mutilek, eta bietan, bonus puntu bat eskuratzea lortu dute. Hori horrela, duela aste batzuk azken sailkatu izan eta gero, gaur egun zazpigarren dira, putzutik hiru postu gorago.

Azken emaitzek taldeari hauspoa eman diote, eta, kontrario zuzenen aurkako partiduak iris-

ten diren bitartean, etxeko norgehiagoketan, aurrean kontrario gogorak izan arren, gozatzeko helburuarekin zelairatuko dira.

Asteburu honetan, Iruñeko La Unica taldeak bisitatuko du Mojategi. Nafarrak bosgarren dira sailkapenean, partidu bat gutxiagorekin. Lehen lau postuetara salto egiteko derrigorrezkoa dute garaipena, eta kontuan hartuta joaneko partidua 37-11ko emaitzarekin amaitu zela, partiduak ez du erraztasunik eman. Baina sorpresak existitu existitzen dira.

Mondratek liderra hartuko du zapatuan Musakolan

Euskal Ligan lehiatzen ari den Mondrate taldea egiten ari den denboraldia txapela kentzeko modukoa da. Hirugarren postuan, liderrarengandik sei puntura bakarrik, eta ligan gol gutxien jasotzen duen bigarren taldea da, hain zuzen.

Asteburu honetan, arrasatearrak aukera paregabea edukiko dute liderrarekiko distantzia murrizteko, lehen sailkatuaren aurka jokatzeko baitute zapatuan, Musakolan, arratsaldeko bost eta erdietan. Gernikan jokatu-tako norgehiagokan, denboraldian zehar partidu batean jaso duten gol kopuru handiena jaso zuten -8-4 amaitu zen-, eta ez da lehia batere erraza izango.

Arrasate-Udalatzeko izen ematea gaur zabalduko da

Gaur, gaueko hamabietan, zabalduko da Arrasate-Udalatzeko lasterketaren 2019ko edizioarako izen ematea, *Herrikrosa.eus*-en.

Guztira, 350 lasterkerarentzako lekua egongo da, eta, kopuruak gaintzen bada, aurten ere itxarrote-zerrenda jarriko dutela jakinarazi du Mondraitz elkar-teak. Beraz, apirilaren 14a egutegian gorritz markatuta daukanak adi ibili beharko du lasterketan parte hartzeko.

Aurtengo bosgarren edizioa baldin bada ere, herrian dagoeneko klasiko bihurtu da Arrasateko plazatik irten eta Udalatzeko puntara igo eta gero berriz ere herri erdialdean amaitzen den mendi-lasterketa.



HAUR MASAJE IKASTAROA
0-1 urteko haurrak dituzten gurasoendako.

ANTOLATZAILEA: MUGI, Psikomotrizitate Prebentzio eta Laguntza Zentroa. Araba Etorbidea 3, 2-3. atea ARRASATE

EGUNAK: Otsailak, 8, 15, 22 eta martxoak 1

ORDUA: 10:30etatik 12:00etara

INFORMAZIOA: 636 38 85 40 (erantzungailuan kontaktua utzi)

RPS: 167/18

UMEAK:
ENTZUN, ULERTU, ERRESPECTATU ETA MAITATU

Jaialdia gaztetxean, Maravillas laguntzeko

Maravillas itxi izanagatik eta mobilizazioetatik etor daitezkeen auzipetzeengatik, elkartasun jaialdia antolatu du AGAKOk otsailaren 9rako. Kijerako, Maravillasko eta Errekaleorreko kideak etorriko dira, eta hiru kontzertu ere lotu dituzte

Xabi Gorostidi ARRASATE

Honela azaldu dute AGAKOk lagunak zerk bultzatu dituen otsailaren 9rako elkartasun jaialdia antolatuzera: "Maravillas gaztetxearen aldeko egitarau mar-dula prestatu dugu AGAKO eta Maravillas gaztetxeako kideok. Izan ere, urtarrilaren 8an indar polizialek Iruñeko alde zaharra hartu eta bertako gaztetxea desalojatu zuten. Ikusketa teknikoaren aitzakiapean egin zuten desalojoa eta hurrengo hiru egunetan auzoa militarizatuta mantendu zuten. Orduetik, ez dira gelditu gazteen aurkako erasoak eta, orotara, 82 pertsona izan daitezke auzipetuak Maravillas

defendatzeagatik. Horregatik, elkartasun egun txiki bat antolatu dugu otsailaren 9rako".

Elkartasuna, jai-giroarekin

Egitarauak denetarik izango du. Eguneko lehen hitzordua 11:30ean hasiko den mahai-ingurua izango da. Bertan, Kijerako, Maravillasko eta Errekaleorreko lagunak hartuko dute hitza, eta, besteak beste, ondorengo gaiak landuko dituzte: gaztetxeen okupazioaren gaurkotasuna, autogestioaren aurkako erasoak eta hauen aurrean eman beharreko erantzun antolatuak. Arratsaldean, aldiz, euren aldarrikapenak plazaratzeko karro-poteoa egin-

go dute. Era horretako elkartasun jaialdietan ez da zuzeneko musikaririk falta izaten, eta, kasu honetan ere, presentzia nabaria izango du.

22:00etatik aurrera hiru talde igoko dira gaztetxeako oholtzara: Iruñeko Streetwise –punk estiloko taldea–, Herdoil nafarrak –punketik metal thrashera hel daitezke– eta oi! doinuak gustuko dituen Algortako Erasoka taldea. Kontzertuetarako sarre-rra borondatearen truke izango da, eta bertan batutako diru guztia Maravillas gaztetxeako kideei emango diete, "jasaten ari diren errepresioaren ondorio ekonomikoak aurre egiteko".

'Zazpiak bat', domekan

Euskaraz egindako antzerkia gustuko dutenek hitzordua dute domekan honetan, Amaia Udal Antzokian. Komediararen, satiraren eta sarkasmoaren lengoaia oinarrian dituen *Zazpiak bat* antzezlanaren taularatuko dute ATX Teatroa-ko kideek, gaiztakeriak eta bekatuak ipar hartuta. Emanaldia 19:30ean hasiko da, eta sarre-rrak 10 euroko prezioa izango dute.



ATX TEATROA

OHARRAK

Doke antzerki taldekoak, Donostian, bihar

Iruñearen eta Bilboren ostean, Donostiara joko dute asteburu honetan DATeko kideek. *Hamaika amaren seme (alaba)* eskainiko dute, zapatuan, 19:30ean, Antzoki Zaharrean.

Jaime Zamakolaren margoak, Hilbeheran

Gaurtik aurrera, Debako margolariaren hamar lan –gehienak animaliei buruzkoak– ikusi ahalko dira Hilbehera tabernan.

Amaia antzokian, zinema

Zapatutik martitzenera bitartean hiru film hauek ikusi ahalko dira: *El gran baño*, *Bumblebee* eta *El rey*.

**MATRIKULA EPEA ZABALIK:
URTARRILAREN 28TIK
OTSAILAREN 8RA.**

ARRASATEKO UDAL HAUR ESKOLA

UMEZAINNTZA

0-3 URTE
San Andres, 8

URIBARRI

JOKIN ZAITEGI
0-3 URTE
Uribarri etorbidea, z/g.

Instalazioak ikusi edo elkarrizketa egin nahi izanez gero, aurrez telefonoz abisatu.

943 77 20 25 www.arizmendi.eus

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
Arizmendi Ikastola Mondragónko Udala Zebiltzaia



Martitzenean egindako saioa. JULEN IRIONDO

Aukera guztiak onartu, aniztasuna barneratu

Sexu eta genero aniztasunaren gaineko tailerra egin dute astean kultura etxean, Aldarte elkartearen eskutik. Elkarteko Joseba Martinez de Gereñuk hainbat galdera jarri zituen mahai-gaiean, eta euren ikuspuntua eman zuten parte-hartzaileek

Julen Iriondo ARAMAIO

Saioan parte hartu zuen herritar batek pasarte hau kontatu zuen: "Parkean geundela, entzun nuen bizpahiru urteko ume batek nola galdetzen zion haur jaioberriarrekin zegoen amari ea hura mutila edo neska zen. Eta amak erantzun zion: 'Alua dauka'. Umeak: 'Beraz, neska da'. Eta amak berriro: 'Alua dauka'".

Pasarte adierazgarria eta martitzeneko saiorako ezin egokia go zetorrena, bi irakurketa, gutxienez, izan ditzakeena: zein errotua dagoen pertsonak bi multzotan sailkatze hori, hain adin txikiko haur batek ere horrela galdetzeraino; eta gauzak ari direla pixkanaka aldatzen, ama hark emandako erantzuna kontuan izanda.

Izendapenez -LGTBI siglen atzean dauden terminoak eta beste batzuk azaldu zituen Aldarte elkarteko kideak- eta sailkapenez jardun zuten saioan, eta sexu eta genero ikuspegietatik -genitalek baldintzatua,

aurrenekoa, nortasun ezaugarriei dagokiena, bigarrena; orain arteko ikuskera nagusiaren arabera bata bestearekin norabide bakarrean lotu zitezkeenak-, gaur egun, ahotan darabiltzagun askotariko aukera eta *kombinazioez*; baita desberdinarekiko onarpenaz eta, ondo bidean, letorkeen benetako aniztasun egoeraz eta haren asimilazioaz.

"Ereduak hausten dituztenei izen batzuk jarri dizkiegu. Desberdina denari oso erraz jartzen diogu izen bat, eta ematen da diskriminazioa: *zu ez zarelako gu*", zioen Martinez de Gereñuk. Eta, horregatik, pertsona horrek irten behar du armairutik, adierazi munduari ez dela espero zuten bezalakoa. Gizateriaren

**MAILA BEREKO
PERTSONEZ
OSATUTAKO
ANIZTASUNA LITZATEKE
EGOERA OPTIMOA**

historiaren oraingo momentuan, beraz, oraindik desberdin ikusteagatik izendatzen direnen onarpena eta bazterkeria eza dira erronka. Etorkezunak, ordea, bestelakoa behar du: sexu eta genero ezaugarriak direnak direla, maila bereko pertsonen osatutako *gu* bat, *zu*-rik gabekoa. Aniztasuna ezaugarri lukeen errealitate batek barnebilduko luke, berdintasunean, "edozein modu zeinetan pertsona garatu ahalko litzatekeen" dituen genitalak dituela ere, sailkatua izan gabe: "Adibidez, ez dugu klase sozialik egiten ile mota desberdinen arabera".

Hortik aurrera, hainbat kontu jarri zituen mahaiaren gainean Aldarte elkarteko kideak: adibidez, adin txikiko batek gai hauetan izan behar duen erabakimena; edo mediku batek edonorekiko izan dezakeena. Galderak jarri zituen, eta parte-hartzaileek eman zuten euren iritzia; erantzunak adostea da gizarteak preari duen erronka.



GOIENA / JULEN IRIONDO

Zabola-Untzilla, zabalik berriro

Lur-jausia gertatu zen Zabola eta Untzilla arteko errepidean aurreko egunetik egubakoitzerako gauean, eta bidea itxita geratu zen zirkulaziorako. Garbiketa lanak eginda, eguaztenean zabaldu zuen bidea, berriz ere, Udalak; hala ere, ingurua labainkor zegoela-eta, bertatik igarotzerakoan arreta berezia izateko eskatu zuen.



JULEN IRIONDO

Hainbat asfaltatze-lan

Herriko hainbat tokitan asfaltatze-lan txikiak egin dituzte egunotan. Zabolakoak egin eta gero, Azkoagakoei ekin zieten -argazkian, makinak prest eliza ondoan-: Santagedatxora doan tartea asfaltatu behar zuten han. Solobarriko bidea, Barajuengo beste toki batzuk eta, Ibarra, Matxinkaleko tarte batzuk ziren gero asfaltatzeokoak.

"Goizean argazkirik egin ezean, zerbait falta dut"

JOSE LUIS MADINA ARGAZKILARI AFIZIONATUA

Helduaroan sortu zitzaion argazkitarako afizioa. Azken hiru urteotan, 3.000 inguru aterako omen zituen; beti natura osagai, eta eguraldia aitzakia: ETBn ezaguna da

Julen Iriondo ARAMAIO

Eguraldia hizpide da garaiotan; eguraldia islatzen dute, besteak beste, Madinaren argazkiek.

Noiztik duzu afizioa argazkitarako?

Erretiratu ostean hasi nintzen apur bat, baina, batez ere, duela hiru urtetik. Goizean jaiki eta Orixol aldera-edo joan, Untzillara, Barajuenera... Aramaioko argazkiak ateratzen ditut, gehienbat. Joan izan naiz Urkulura, Udalara, Bedoñara, Legutiora, Oletara... ere, inguru horretan mugitzen naiz. Ia egunero joaten naiz argazkiak ateratzera.

Propio joaten zara argazkiak ateratzera? Edo aprobetxatzen duzu, adibidez, mendira zoazela...?

Apropos joaten naiz. Eta goizetan hori egiten ez badut, zerbait falta dut. Goizetan gustatzen zait joatea. Nik uste dut jendeak ez dakiela zer galtzen duen... Eguzkiaren irteera, San Kristobaldik, edo Orixolik, izugarria. Eta argazkiak gustatzen zaizkit, ez bideoak: argazkia da momentua,



Jose Luis Madina. JULEN IRIONDO

hura momentua harrapatu behar duzu. Eta hasi nintzen Euskal Telebistara bidaltzen, eguraldiaren tartera. Eta Euskalmetek sari bat ere eman zidan duela pare bat urte. Gero, Twitterren ere ibiltzen naiz, eta bertan jar-

tzen ditut argazkiak. Eta gehien apreziatzen dudana gauza bada-kizu zer den? Kanpoan bizi den hemengo jendeak nola eskertzen dituzten argazkiak; telefonotik deitzen didate, jarraitzeko esanaz... Jendea zain egoten da.



2019ko lehen argazkia, urtarrilaren 1ekoa. JOSE LUIS MADINA

Behe lainoa, gustuko elementu

Aramaio ingurua argazkitarako leku aproposa dela dio Jose Luis Madinak; eta, parajeaz gain, ohikoa den osagai bat du gustuko: "Behe lainoa dagoenean... Murugain erdia ikusten dela, Udalatx erdia, Tellamendi erdia... eta eguzkia irteten, izugarria".

ETBn bazaudete batzuk nahikoa finkoak, ezta? Zurekin batera, Portularrume, Lameriñas...

Bai. Hamabost-hogei bat finkoak gara. Nik bezala, egunero dihardutenak dira Lorentxo Portularrume, Jostexo Apeztegia, Juan Lameriñas, Txaro Ortiz de Zarate, Victor Uriarte... Elkar ezagutzen dugu denok, gainera; ni ez naiz egon, baina ETBren egoitzan bazkari bat ere egiten da, Bilbon. Nik ezagutu ditut... adibidez, Portularrume, Zarautzera joan nintzen batean kalean

beragatik galdetuta. Eta beste batzuk etxera etorri zaizkit.

Eta zer zarete, denok antzerako soslaia duzuenak?

Jende gehiena, bai, aspalditxo erretiratutako jendea gara.

Beste afiziorik baduzu?

Bai. 60 urterekin erretiratu nintzen, eta solfeoa eta akordeoia ikasten hasi nintzen Aretxabaletan. Eta akordeoia jotzen dut. Orain ere, elkarrizketa bukatzean, jotzera joango naiz, ordu erdi batez edo. Uzten baduzu, ahaztu egiten zaizu.



ALAIK

Elejalde eta Kortabarria nagusi

Alaiak Jubilatuta Elkarteak mus txapelketa egin zuen aurreko asteburuan, eta Antonio Elejalde eta Bittor Kortabarriarentzat izan zen garaipena. Urdaiazpikoak jaso zituzten irabazleek. Gasteizko bikote bat izan zen bigarren –bakailoa–; Jesus Etxabe eta Simon Muñoz, hirugarren –gazta eta ardoa–; eta Ramon Altuna eta Angel Astondo, laugarren –ardoa–.



NIRE USTEZ

PERU ABARRATEGI

Santa Ageda Aramaion

Larunbat honetan, aterkia eskuan, seguruenik, Santa Ageda eskean aritzea tokatzen zaigu Aramaioko trikiti eskolako, bertso eskolako eta koruko partaideei. Ikusitakoak ikusita, esango nuke ez dugula eguraldiaren laguntza handirik edukiko Aramaioko kale eta auzoetan barrena goiz eta arratsalde ibiltzeko. Hala eta guztiz ere, honi bi alde ikusten dizkiot, bat ona eta bestea hobea. Honako hau litzateke alde ona: eguraldi txarra badugu lagun larunbatean, piztu ezazue etxean beheko sua, hartu eskura daukazuen mantarik sendoena eta kokatu ezazue zuen ipurdia sofán goxo-goxo, gu zuen etxeko atarietara kantuan iritsi arte. Bestetik, albiste hobea, igandera begira jarrita, zalantzan jartzen dut Aramaioko koruak larunbatean egun guztia kantuan eman ostean igandean ere euria egingo duenik. Ez naiz meteorologian aditua, are gutxiago intonazio kontuetan, baina, bi aste euripean pasa ostean, konfiantza guztia Aramaioko koruarengan jarria daukat.

Badakizue, igandean euria ari badu, bertso eskolako kideok tonua harrapatzen jakin ez dugulako izango da, gure errua!

OHARRAK

Santa eskea

Bihar, zapatua, 10:00etan irtengo dira, plazatik. Goizean auzoetan ibiliko dira eta bazkalostean, Ibarran.

Korrika Batzordea

Gaur, egubakoitza, egingo du bigarren bilera, 18:30ean, udaletxean. Batzordeak jende gehiagoren beharra duela jakinarazi zuten lehen bileraren ostean.

Martxoaren 8a

Antolaketarako hurrengo bilera hurrengo egubakoitzean, otsailak 8, izango da, 19:30ean, kultura etxean. Eragileetako ordezkarietz gain, norbanakoak nahi lituzkete.



2001ean jaiotako 46 kinto batu dira aste honetan, Manuel Muñoz kiroldegian, dantza entsegua egiteko. GADEA ERRASTI

Imanol Beloki ESKORIATZA

Egun seinalatua da Kinttaden Eguna eskoriatzarrentzat. Urte berean jaiotako herritarrek batu, eguerdi partean poteoa egin, tabernetan edo elkarteetan bazkaldu, eta ostean, goizeko ordu txikiak arte parranda egiteko asmoz, Eingeinke elkarteak abiarazi zuen ekimena da; urtez urte indartzen joan da.

Aurtengoa zortzigarren edizioa izango da, eta zapatuan, otsailaren 2an, ospatuko da. "Eingeinke elkartetik abiarazi genuen ekimena, Santa Ageda neska-mutilak festan irteten zirenean herrian giroa izan zezaten eta, bide batez, bere garaian, Santa Ageda neska-mutilak izan ginenak batzeko. Egitarau berezirik ez da izaten, bestalde, nahiz eta hainbat urtetan, iluntzean, kintada ezberdinetakoak plazan batu eta dantza egin ohi izan duten", adierazi du Mikel Letonak, Eingeinke elkarteko kideak.

Antolatzeke ezer ez egon arren, urtero, kintada bakoitzak bere bereizgarria eraman izan du Kinttaden Egunean: zapia, kamiseta, kapela, betaurrekoak eta gorbata, besteak beste, eta aurten ere hainbatek eramango dute.

Tabernetan leku barik

Kintada askok pasa den urtetik hartuta izaten dute bazkaltzeko lekua, baina badira asko azken unera arte itxaroten dutenak. Hala, berandu ibili direnek zailtasunak izango dituzte, eta bes-

Urte berean jaiotakoen festa

2001ean jaiotakoak izango dira aurten Santa Ageda neska-mutilak. Aspaldian izan den parte hartzerik handiena izango da, 63 lagun animatu baitira; hala ere, motorrak berotzeko, Kinttaden Eguna izango dute aurretik, zapatu honetan

te herri batzuetara joan behar dute bazkaltzera edo afaltzera. "Aldez aurretik zaila da zehaztea zenbat kintadak hartuko duten parte aurtengo festan, baina askok antolatzen dute bazkaria edo afaria egunerako. Lehenengo edizioak oso harrera ona izan zuen, eta halaxe izan da urtero. Adin askotarikoak batu eta egun polita igarotzeko festa denon egutegietan dago markatuta. Hala ere, aurtengo edizioa pasa arte itxaron behar dugu arrakastatsua izan den edo ez den izan adierazteko", esan du Letonak.

SANTA AGEDA EGUNARI HASIERA EMATEKO, KINTTADEN EGUNA IZANGO DA ZAPATU HONETAN

Santa Ageda neska-mutilak, prest
Festa otsailaren 4an hasten da, Santa Ageda egunaren bezperan. Urte honetan 18 urte beteko dituzten gazteek, hau da, 2001ean jaiotakoek, herriko baserriak bisitatuko dituzte. Baserritar jantzita, Santa eskean koplak kantatuz joango dira elizate guztietako baserrietara.

Hurrengo eguna, Santa Ageda eguna, otsailaren 5a, herrian ospatuko dute, eta janzkera aldatu egingo dute: praka eta alkandora zuriak; alpargatak ere zuriak, baina zinta gorriekin; eta gerrikoa eta txapela, gorriak. Lepoan, berriz, koloredun zapi handia. Kintorik zaharrenak eta gazteenak, berriz, txapela eta gerriko beltza jantzita eramango dute. Egun horretan etxez etxe koplak kantatuz ibiliko dira Santa eskean, trikitiak edo soinuak lagunduta.

Aspaldian izan den parte hartzerik handiena izango da aurtengoa, gainera; izan ere, 63 lagun animatu dira. Dantza, berriz, bi egunetan egingo dute, herriko plazan: lehenengoa, Santa Ageda egunean –otsailak 5; aurten, martitzena–; eta bigarrena, hurrengo domekan, otsailaren 10ean, eta dantza-ekitaldia 19:00etan hasiko da.

Horretarako, hainbat astez aritu dira entseguak egiten Manuel Muñoz kiroldegian eta Joseba Iñurrategi pilotalekuan, Gadea Errasti eskoriatzarren gidaritzapean; 2008an Elisabeth

ASPALDIAN IZAN DEN PARTE HARTZERIK HANDIENA IZANGO DA AURTEN, 63 KINTO BATU BAITIRA

Oihana eta Haizea Aranak asmatutakoak

Arana ahizpek sortu dituzten bertso berriak abestuko dituzte 2019an Santa Ageda neska-mutilek.

Santa eskean kantatzeko bertsoak

Usadioa galdu ez dadin gure herri inguruan Eskoriatzako kinto guztiok gabiiltza gogoz kantuan hain egun seinalatuan eskeko koplak ahuan garai bateko arbaso zaharrek egiten zuten moduan

Nola ez garen ahots on eta txanpon gehiegiren jabe jasoko dugun edozerekin oso eskertuta gaude emana gutxi bada be laster eingo dugu alde baina ez zazu aterik itxi limosnarik eman gabe

Agurra

Egun guztia pasako dugu kalez kale atez ate beraz eskerrak eman ta laster goaz hemendik aparte borondatea ikusi eta kejarik ez dugu bape aurrerantzean ederto bizi agur ta ikusi arte

Gabilondorekin batera lehen aldiz banakoa gizonetakoekin batera dantzatu zuen dantzaria, hain zuzen.

Bertso berriak

Azkenengo urteetan, Jose Aranburuzabala *Trankil*-ek asmatutako hainbat bertso ikasi eta kantatu izan dituzte Santa Ageda neska-mutilek, baina aurten, berrikuntza moduan, moldaketa batzuk egin dizkiote Haizea eta Oihana Arana ahizpek.

Santa eskean aritzeko bi bertso berri eta bakarra agur moduan asmatu dituzte. "Erlijio kutsua alde batera utziz, eta gaur egunera egokituta, bertso berriak egin ditugu. Hala, gure kintadakoek gustuko badituzte, eta nahi izanez gero abestu nahi badituzte, kantatuko ditugu", adierazi du Oihana Arana aurtengo kintoak.

"Udal Gobernuak ez digu utzi ardurarik hartzen"

AITOR ZUBIZARRETA EH BILDUKO BOZERAMAILEA

Epe luzerako ikuskerarik eza eta oposizioa aintzat hartu ez izana leporatu dizkio Udal Gobernuari Zubizarretak. Agintaldia amaitzean utzi egingo ditu zinegotzi ardurak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako EH Bilduko ordezkaria da Aitor Zubizarreta, eta agintaldi honetan oposiziotik lan egitea egokitu zaio. Lau urte hauetan lan egiteko aukera gutxi izan dituela adierazi du; hala ere, asko ikasi duela gaineratu du. Hori horrela, ez da aurkeztuko maiatzeko hauteskundeetan alkate izateko hautagai; gazteei bide emango die.

Zein da zure balorazioa agintaldi honen gainean? Eta zuek egindako lanarena?

Nire esperientziaren balorazioa egiten dudanean, bi elementu kontrajartzen zaizkit. Oso aberatsa da, batetik, herria beste modu batera ikusten duzulako, eta herriko gaiak sakontzen laguntzen dizulako, eta horrek merezi du. Beste aldetik, pena dut, ezin izan ditugulako ardurak hartu, ez digutelako utzi. Agintaldia hasi zenean, EAJK bost zinegotzirekin Udaleko esturktura bost elementu edo batzordetan banatu zituen; hala, gurea presentziala izan da. Uste dugu ardurak hartu beharko genituela, eta ardurak hartzeko aukerak izan behar genituela. Utzi digutena egin dugu.

Arlo pertsonalean polita izan da? Herriarrek beste harreman bat sortzen da. Kalean gelditzen



Aitor Zubizarreta, Eskoriatzako EH Bilduko bozeramailea. JAGOBA DOMINGO

zaituzte, galdetzen dizute... eta, hori aberatsa den arren, ez daukazunean erantzunik, ez daukazulako informaziorik, hori gogorra da.

Udaleko jarduna amaituko duzu maiatzean, gainera, ezta?

Lau urtean, ahal dudana egin dut, nire esfortzua hor geratu da, eta uste dut amaitu behar dudala nire ibilbidea, eta jende gazteari aukera eman. Abenduan hasi ginen zerrenda osatzeko prestaketa lanekin; zein ezauzgarri bete behar zituen alkategai batek pentsatzen hasi ginen,

lehenbizi, eta profil ezberdinetakoak ikusi ditugu... Horretarako, hainbat batzar izan ditugu, eta laster esango dugu zeintzuk diren taldea osatzen dutenak. Bileretan batu direnek lan egiteko gogoia adierazi dute, eta jendea prestatuta dagoela sentitu dut. Otsailaren 9an batzarra izango dugu, eta egun horren bueltan adieraziko diegu komunikabideei Eskoriatzako EH Bilduren alkategaia nor izango den maiatzaren 26ko hauteskundeetarako eta zerrenda zeintzuek osatuko duten.

Nolako profila izango du hautagaiak?

Batzarretan atera den puntu garrantzitsu bat da Martxoaren 8a mugarri izan dela. Mugarri bat jarri da, eta emakumeen ahalduzkoa ezinbestekoa da. Horrek esan nahi du emakumeek lidergoa hartu behar dutela. Hortik joan daiteke hautagaitza... Horrez gain, gaztetasuna ere azpimarratu beharra dago. Herri honek etorkizuna baldin badu, gazteen aldetik izan behar du. Inoiz baino gazteria formatuagoa dugu, eta aukera eman behar zaie. Herrigintzarako, ezinbestekoa da hortik abiaraztea.

Udal aurrekontuan, EH Bildu absenteitu egin zen. Zergatik?

Aurrekontuak eztabaidatzerakoan gure ekarpenak egin ditugu. Hainbat onartuak izan dira, baina aurrekontu moduan ez genuen ikusten zerbait trinkoa dagoenik. Ez dago xede bat, edo zerbait egituratuta horren alde. Guk gure herrigintza estiloa nahi genuen, eta joan gara EAJ-rekin zerbait hitzartzera. Izan ere, aurrekontuetan agertzeak ez du esan nahi gero aurrera eramango denik. Idatzizko konpromiso bat nahi genuen.

Zuen proposamenetatik zer azpimarratuko zenuke?

Ekarpen ezberdinak egin ditugu. Batetik, prekarietatearen diagnostia berriro egitea, nerabeentzako programa bat eskaintzea... Azken honetan, kale hezitzailearen figura bat dago, eta horren aldeko apustua egin beharko genuke Eskoriatzan. Beste gai bat Gatz Bidea da; urratsak egin dira, baina egitasmo horrekin jarraitu behar dugu. Eta gero, hainbat obra: Aranburuzabalako eta Hidalga kaleko espaloiak... Aste Zapata, Atxorrotzeko indusketa-ekin jarraitzea...

Aurrekontuetan jasota dagoen inbertsio nagusi bat aurreko Partxis jolas-parkearena da; zer iruditzen zaizu?

Intxaurtxuetan eta San Pedron, Pedro Lasagabasterren garaian, lehen fasea hasi zen, eta gero, bigarrena, Beñat Hercerekin. Auzo horri amaiera agintaldi honetan emango zaio. Jolas-parkeak geratzen da, oso erabilia dena, eta oso ondo ikusten dugu lan hori egitea. Hala ere, irisgarritasun-lan batzuk geratuko lirarteke egiteko.

2030ari begira, nolako Eskoriatza nahi dugu? galderari erantzuteko jardunaldiak, bestalde, nola joan dira?

Oso interesgarria izan da. Agintaldi berria dator, eta, programa osatzeko, herritarren beharrei erantzun behar zaie. Duela lau urte, *EskoHitza* izan zen, eta parte-hartze handia izan zen, ekintza programa interesgarriekin. Hori berreskuratu nahi izan dugu. Orain, esaterako, Eskoriatza Lagunkoiaren diagnostia irten da. Atsegina, eroso... dena; hori nondik aterako da, politikarien ideietatik? Ez, herritarrengandik. Horregatik, eragile ezberdinak batu behar ditugu. **Herriko premia nagusia zein da?** Pertsonak dira ardatz. Euren erosotasuna lantzeko egin behar ditugu gauzak. Herri eroso eta atsegina behar dugu; pertsonak ere atseginak izan behar dira, eta eroso sentitu. Horretarako, gure inguruarekin gustura egotea ezinbestekoa da.

"AGINTALDI BERRIRAKO, ELKARTE ETA ERAGILE EZBERDINAK BATU BEHAR DITUGU"

Lizarrak eta haltzak, landatuta

2018an, 22 jaiotza izan ziren Eskoriatzan, eta, haien gurasoek, familiekin lagunduta, aitzurrak hartu eta zuhaitzak landatu zituzten, pasa den domekan, Arbiñoste eta Santa Marina artean dagoen berdegunean.

Hamabosgarren urtea izan da ekimen hau egin dena, eta aurten, bi zuhaitz mota landatu dituzte: lizarrak eta haltzak.



TXOMIN MADINA

Etxean jokatuta, bigarren postuari eutsi guran

Euskal Ligan ari den Eskoriatza areto futbol taldea bolada onean ari da. Izan ere, Aretxabaletaren aurkako derbia irabazita (4-2) eta azken jardunaldian Sestao garaituta (3-5), bigarren postuan daude sailkapenean Iker Moliaren mutilak.

Asteburu honetan, berriz, etxean jokatu dute partidua, Manuel Muñoz kiroldegian, To-

losala taldearen aurka, domekan, 18:00etan. Hala, bigarren postu horri eutsi nahi diote eskoriatzarrek, eta gogor irtingo dira kantzara hiru puntuen bila.

Hamalagarren jardunaldi hau erabakigarria izango da goiko postuetan mantentzeko. Izan ere, Mondrate taldea, eskoriatzarrengandik puntu bakarreko aldearekin, hirugarren postuan dago, eta laugarren sailkatuak, Scorpio talde ermurrak, berriz, bi puntu ateratzen dizkio Eskoriatzari.

Egiak eta gezurrak bereizteko egitasmoa

'Zientziaren argitan, egia ala gezurra' zikloaren barruan, bi hitzaldi eta ikuskizun bat izango dira otsailean Zaldibar antzokian. Osasun publikoarekin lotutako gaiei garrantzi berezia emango zaie, eta saio guztiak 19:00etan hasiko dira

Imanol Beloki ESKORIATZA

Aurkikuntza zientifikoek eta horien aplikazioek garrantzi handia dute egungo gizartean, eta eragin nabarmena, gainera, gure bizitzetan. Hala ere, adituek ohartarazten dute herritarrek gero eta jantziagoak egon arren, zientziarekin lotutako gaietan informazio falta handia dagoela.

Aditu horiek gomendatzen dute ahalegina egiteko zientziaren zabalkundea indartzeko. Gogoratzen dute zientziaren ondo informatutako gizartea erabaki zuzenak hartzeko eta irrazionaltasunak eta sineskeriak albo batera lagatzeko pertsonaz osatutako gizartea dela, gizarte askeagoa, eta, azken finean, demokratikoagoa. Hori horrela, Eskoriatzako Udaleko Kultura Sailak pentsamendu kritikoa sustatzeko eta zientzia zabaltzeko ziklo bat sartu du otsaileko programazioan.

Lehen saioa, elikaduraz

Bittor Rodriguez dietista-nutrizionista, Elikagaien Zientzia eta Teknologien doktore eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak elikadurari buruz egunero entzuten diren mitoez eta gezurrez jardungo du. Euskaraz izango da, eta bat-bateko itzulpen zerbitzua izango da.



Bittor Rodriguez bergararrak egingo du zikloko lehenengo hitzaldia. GOIENA

'Zientziaren argitan' egitaraua

Saioak 19:00etan izango dira Zaldibar antzokian.

Otsailak 12, martitzena

- *Elikadurari buruz egunero entzuten dituzun mitoak eta gezurrak* hitzaldia eskainiko du Bittor Rodriguez dietista-nutrizionistak.

Otsailak 14, eguena

- *La salud en peligro. ¿Estafa o medicina?* hitzaldia eskainiko du Victor Javier Sanz medikuak.

Otsailak 17, eguena

- *¡Imposible!* Javier Luxor mentalistaren ikuskizuna. Sarrera, 5 euro.

Juan Luis Zubizarreta eta Joxe Mari Etxebarrieta, garaile

Euskal Herriko Mus Txapelketako herriko kanporaketa jokatu zen pasa den domekan, Eskoriatzan, eta txapelkunak Juan Luis Zubizarreta eta Joxe Mari Etxebarrieta izan ziren. Inkernun jokatu zen, eta bertan lau bikotek hartu zuten parte. Zubizarretak eta Etxebarrietak ordezkatuko dute Eskoriatza Gipuzkoa mailan egingo den hurrengo kanporaketan.



INKERNU TABERNA

LEINTZ GATZAGA



2017an Korrika Gatzagatik pasa zen uneetako bat. GOIENA

Korrika Batzordea eratuta, gaur izango da bigarren bilera

Gatzagarrak Labidean batuko dira, Korrikaren bueltan antolaketa lanak prestatzeko, gaur, 19:00etan

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Eratu da Gatzagako Korrika Batzordea, eta hasi dira dagoeneko prestatzeko lanekin. Urta-rrilaren 16an batu ziren Gatzagako elkarte eta eragile ezberdinetako hainbat herritar, eta hainbat gai izan zituzten hizpide Korrika pasako den egunerako eta ordura arte bitartean egingo dituzten ekintzak prestatzeko.

06:00 bueltan iritsiko da Korrika Gatzagara, apirilaren 14an, domekan, eta, egunari begira, ahalik eta herritar gehien batu nahi ditu Korrika Batzordeak. Horretarako lehenengo bileran, orain arteko Korrika edizioetan egin direnak aztertu, eta egin nahi diren ideia ezberdinak batu zituzten, besteak beste.

Zein egoera ekonomikoz abiatzen diren, eragile ezberdinei laguntza eskaera egiteaz, zereginen banaketaz, Korrika lagun-

tzailea izateko egin beharrekoak azaltzeaz, arropa salmentaz, Korrikaren bueltan arlo kulturean egin nahi diren ekintzez, Korrika Txikiak... horrelakoez jardun zuten lehen bileran.

Oraindik aurreratzeko askorik ez duten arren, lanean hasi direla adierazi du Jon Zuazok, Korrika Batzordeko kideak: "Orain arte egin ditugun errepasoa egin genuen. Batzuek funtzionatu izan dute, mantendu egingo ditugu. Hala ere, ekintza berrien aldeko apustua ere egingo dugu. Horretarako, herritarren parte-hartzea ezinbestekoa izango da; beraz, bigarren batzorde-rako dei egiten diegu herriko elkarte, eragile eta norbanakoei".

Gaur, Labidean

Leintz Gatzagako Korrika Batzordea gaur batuko da, Labidean, arratsaldeko zazpitan, eta bilera irekia izango da.

Eskibelen eta Oñateren arteko bizikleta desafioa, Arlabanen

Iker Eskibel eta Ekaitz Oñate eskoriatzarrek desafioa izango dute gaur, 17:15ean hasita. Apustua Arlabango mendatean egingo dute, Aingeru Guardan hasi eta Dorletako Ama Birjina pareraino. Eskibelek hanka bakarrean igo beharko du -hanka aldatzeko aukerarekin-, eta Oñatek biak erabili ahal izango ditu. Saria: afari bat eta ohorea.

Otsailaren 11n izango da Martin Ttipia elkarteko hitzaldia

Nafarroari buruzko zikloaren bueltan, Martin Ttipia elkarteko kideak, otsailaren 11n, izango dira Leintz Gatzagako Herri Liburutegian hitzaldia eskaintzen. Saioa, 19:00etan izango da, eta honakoa izango da eskainiko duten hitzaldiaren izenburua: *Nafarroa euskal estatua. Baina... zer dela eta, Erdi Aroko kontu bat 2019an.*



Kintoak dantzak prestatzen, joan den zapatu eguerdian, Arkupe kultur etxean. AITOR ZUAZABEITIA

Gertu daude herriko Santa Ageda neska-mutilak

Aurtengo kintoek otsailaren 4an ekingo diote urteroko tradizioari, herriko auzoetan abesten. 2000n jaiotako gazteei, urteetan galtzen joan diren ohiturak erakutsi dizkiete Loramendi elkarteak hainbat kidek, horiek gal ez daitezten

Aitor Zuazabeitia ARETXABALETA

Bueltan izango dira dantzan Herriko Plazan domekero, arratsaldeko zazpitan, Aratuste egunera arte. Aurtengoa berezia izango da, XXI. mendeko lehen belaunaldiko neska-mutilek dantzatuko dute eta. Gainera, bost domekatan dantzatuko dute. Kinto batzuen esanetan, taldea handia izateak hainbat arazo ekarri ditu batera mugiarazteko eta koordinazio kontuetarako. "Esperotakoak baino traba gutxiago izan dira, edozelan ere", adierazi dute taldeko gazte batzuek.

Santa Ageda neska-mutilek otsailaren 4an ekingo diote baserriz baserri abesteari, goizetik arratsaldera arte.

Taldearen kopuruari erreparatu, 73 izateak baserrietara abesten joateko hainbat taldetan banatzea ahalbidetuko die, baina hain ugari izatearen onena eta garrantzitsuena, dudarik gabe, sortu ahal izango duten giroa izango da.

Ohiturak berreskuratu nahian

Santa Ageda neska-mutileen taldeak bereziki eskertzen du Loramendi elkarteak emandako laguntza guztia eta urteetan zehar galtzen joan diren ohiturak azaltzea; besteak beste, herriko umeek Santa Ageda neska-mutilekin dantza egitea, koplak berri batzuk ikastea eta hurrizmakilaren erabilera berreskuratzea abesteko orduan.

Udalaren lanari dagokionez, ezberdintasun txiki batzuk izan dituzte elkarren artean; izan ere, aurtengo kintadan, aurreko urteetan ez bezala edo gehiago nabarmenduz, gurasoek eta Udalak protagonismo handiago edukitzea nahi izan dute. Adibidez, San Juan bezperan hain-

UDALAREN LANARI DAGOKIONEZ, EZBERDINTASUN TXIKI BATZUK IZAN DITUZTE EUREN ARTEAN

bat gurasok pinua polea batzuekin jaso beharra zegoela eskatu zuten, segurtasun kontuengatik. Aretxabaletan, inguruko herrietan ez bezala, zuhaitzaren enborra hiru edo lau sokarekin lotuta eta burdinazko sardexka handi batzuekin altxatzen da. Ez da modurik seguruenak, eta askotan erori da zuhaitza; batzuetan, norbaiten oinetara edo balkoiren batera. Edozelan ere, Santa Ageda neska-mutileen artean, enborra polea bidez jasotzea taldearekiko mesfidantza edo gurasoen partetik sortu den gehiegizko kezka kontu bat izanik, proposamena baztertua izan zen lehen unetik; azken finean, hor baitago erroka. Kontuak kontu, eztabaida bertan behera geratu zen, eta bi aldeak pozik daude.

Santa Ageda eguna iristear da eta prestaketak amaitzen ari dira; urtero gogo biziz ospatzen duten egun horren zain daude kintoak eta herriko gainerako bizilagunak.



Herriko Plaza barreneko horma hutsik. MIRARI ALTUBE

Herriko Plazan jarritako bi argazki zaharrak eraman dituzte

Joan den astetik falta dira, eta, bihurkinarekin kenduta, "ondo egindako lana" dela diote udal ordezkariak

Mirari Altube ARETXABALETA

Kultura Saileko kideek jakinarazi dute joan den astetik-eguna zehatz ez dakite-falta direla Herriko Plaza barrenean jarritako bi argazki zaharrak. "Herriar batek pasa zigun abisua, eta ostu egin dituztela konturatu gara. Begira hasita, gainera, ondo egindako lana dela ikusi dugu", adierazi du Jose Migel Uribarrenek, Kultura zinegotziak.

Bihurkina erabilia kenduta

Oso-osorik kendu dituzte tamaina handiko bi argazkiak: "Bihurkina erabilia kenduta daude, eta ez dute arrastorik ere utzi paretan", dio Uribarrenek. Horrekin arduratuta, herriar jarritako gainerakoetan jarri dute arreta; eta guztiak daudela bere lekuan baieztatu dute: "Ez da besterik falta. Ez dakit bi horiei zer ikusi dio-

ten...". Argazki batean parrokia agertzen da eta bestean, hainbat lagun kalean; besteak beste, gotzaina eta alkatea.

Herriarrei laguntza eskaera

Udal Argazki Artxiboaren jabetzakoak diren hamazazpi argazki zahar urriarri jarri zituzten herriko hainbat txokotan-erdiguneari asko, baita futbol zelai inguruan eta bidegorrian ere, besteak beste-. Bisita gidatuak ere antolatu zituzten orduan, eta argazkion gaineko kontu askoren berri eman zuen Aitor Antxia Leturia adituak. "Herriaren historiaren zatitxo baten berri eman gura izan da argazkiokin. Herriaren ondare dira, gainera, eta kezka sortu digu eraman izanak", dio Uribarrenek.

Horregatik, herriarrei laguntza eskatu diete: "Inork ezer baleki, jakinarazi diezagula, mesedez".

San Blas eguna astelehenean, hilaren 4an, ospatuko dute

San Blas eguna otsailaren 3an bada ere, aurten hilaren 4an, astelehenean, ospatuko dute Apotzaga-Etxebarri auzoko Saliente ermitan; arrazoiak da ikastetxeetako neska-mutikoak joan ahal izatea.

Urtero lez, meza esango dute lehenengo (10:30), eta ostean, herriarrek eroandako jakiak bedeinkatuko dituzte.

Otsaileko hiru astelehenetan odol ateratzeak

Arabako odol emaleen elkarteak jakinarazi du datozen hiru astelehenetan etorriko dela autobus Durana kalera, odola eman gura dutenak bertatik pasatzeko (16:45-20:00); hona hemen egunak: 4, 11 eta 18. Hain zuzen, odola emateko nahikoa da 18 eta 70 urte artean izatea, 50 kilotik gora pisatzea eta nortasun agiriarekin joatea.

Haize-metal instrumentu ikasleak, oholtzara

Leizarra musika eskolako tronpeta, tronboi eta tronpa ikasleek, Bergarako eskolako zenbait kideekin batera, emanaldia eskainiko dute martitzenean, hilaren 5ean, Arkupen; ikasitakoa ezagutzera ematea da helburua eta ateak zabalik dituzte herritarrendako

Mirari Altube ARETXABALETA

Gogotsu dihardute entseguetan, egunotan, Leizarra musika eskolako haize-metal ikasleek. Izan ere, emanaldia eskainiko dute martitzenean, otsailaren 5ean, Arkupen (18:00). Bakarka jardungo dute, baita taldean ere, eta Bergarako musika eskolako hiru kide izango dituzte lagun orduan.

Hainbat eratako kantuak

"Instrumentu horiek erakutsi gura ditugu, ezagutzera eman; izan ere, tronpeta eta tronboia bai, baina gainerakoak ez dira batera ezagunak. Tronpa eta bonbardinoa, esaterako", dio Susana Plumed irakaslea. Hainbat eratako kantuak eskainiko dituzte; batzuk klasikoak eta beste batzuk oso herrikoiak: "Abesti zailagoak ere joko ditugu; jazz ukitua dutenak, adibidez. Eta emanaldiari bukaera eman-gogoz diogu *La vida es bella* guztiok batera eskainita".



Ikasleak eta irakaslea, haize-metal instrumentuak esku artean dituztela. M.A.

Haize-metal instrumentuen taldea indartu gurako lukete musika eskolan, eta, horretarako, ikasle gaztetxoaren artean zabaltzea dute helburu. "Halako emanaldietan beste herri batzuetakoak elkartzea oso garrantzitsua da, bakarrik ez daudela sentitzeko", dio Plumedek. Hain zuzen, horregatik, berezia izango da martitzenean emanaldia, eta, ikasle senideez gain, herritarrek ere gonbidatu gura dituzte bertara.

tzitsua da, bakarrik ez daudela sentitzeko", dio Plumedek. Hain zuzen, horregatik, berezia izango da martitzenean emanaldia, eta, ikasle senideez gain, herritarrek ere gonbidatu gura dituzte bertara.

"Tronpa probatu eta pentsatu nuen: hauxe da nire instrumentua"

ETXAHUN ITURRIOTZ TRONPA IKASLEA

Orain dela lau urtetik da Leizarra musika eskolako tronpa ikaslea 11 urte dituen Etxahun Iturriotz, eta orain, Bergarako umeen orkestrako eta Euskadiko Ikasle Orkestrako (EIO) kidea ere bada.

Leizarran bi lagunek bakarrik jotzen duzue tronpa, ez da oso ohikoa; zuk, zergatik?

Lagun batek tronboia jotzen zuen, eta, probatzerakoan, lehenengoan atera nion soinua; horregatik gustatu egin zitzaidan. Geroago, tronpa probatu eta pentsatu nuen: hauxe da nirea.



M.A.

Noiztik zaude EIOn?

laz sartu nintzen lehenengoz, eta aurtien probak pasatu ostean jarraitu egiten dut.

Dagoeneko hasita zaude entseguetan, ezta?

Bai; hiriburuetan elkartzen gara, Gasteizko, Donostiako eta Bilboko kontserbatorioetan, eta hurrengo Gasteizen izango dugu. Aratusteetan hiru kontzertu egingo ditugu, eta horiek gertatzen gabiltza orain.

Gustura zabilta?

Bai, bai; tronpa ikasten nirekin dabilten lagunak ditut eta Bergarako orkestrako kide batzuk ere badaude.

Irakasleak zorrotzak dira?

Musika eskolakoak baino zorrotzagoak? Bai, baina gehiago ere badakite. Ezberdintasun handiena da denbora; zortzi ordu eta erdi egoten gara kontserbatorioan, atsedendialdi ere eginez. laz, gehiago nekatzen nintzen, baina aurtien, bigarren urtea denez, hobeto nabil.



La traviata operaren une bat. WIKIPEDIA

Verdiren 'La traviata' opera emango dute bihar, Arkupen

Sidneyko (Australia) opera jauregian grabatutako emanaldia da, eta sarrerak salgai daude atzotik

M.A. ARETXABALETA

"Herritarrek gustuko dutela opera antzeman dugu, eta hainbat joan izan dira kanpora ikustera; hortaz, gurean ere proba egitera ausartu gara. Aretxabaletan, gainera, badago musikarekiko zaletasuna", jakinarazi du Jose Migel Uribarrenek, Kultura zinegotziak. Hala, Giuseppe Verdi konpositore italiarraren *La traviata* eskainiko dute bihar, otsailak 2, Arkupeko Zarea aretoan (19:00). Sarrerak atzo jarri zituzten salgai, Arkupen bertan, 5 euroren truke.

Aurrerago beste lanen bat

Alexandre Dumas idazle frantsesaren *La dame aux camélias* nobelan oinarritutako lana da, eta opera erromantikoen artean ezagunenetakoa. Hiru atal ditu, eta, guztira, 130 minutuko iraupena; lehen eta bigarren atalak jarraian antzezten dira eta atsedendaren ondoren, hirugarrena.

"Zinemak eta antzezlanek ikusle asko ekarri dituzte Arkupera azken urtean. Eta operari ere harrera beroa eginez gero herritarrek, beste lanen bat ere ekarriko dugu; *La bohème*, adibidez", dio Uribarrenek.

Aratuste-bazkarirako txartelak bihar jarriko dituzte salgai

Aratuste-domekako herri bazkarirako txartelak bihar, otsailak 2, hartu ahal izango dira, Arkupen. 09:00etan zabalduko dituzte ateak horretarako, eta kuadrillaka eman beharko da izena. Bazkaria martxoaren 3an izango da, Ibarra kiroldegian, eta 640 lagunendako tokia dago.

Bestetik, mozorroak eta karrizak gertatzen hasteko lokaldeko giltza –industrialdeko C pabiloia– gaurtik eskatu ahal izango da, hori ere Arkupeko harreran. Horretarako, 20 euroko fidantza jarri behar da, eta arduradun bat izendatu. Giltza hartzen dutenek Karnabalen Batzordeak jarritako arauak bete beharko dituzte.

Abesbatzakoak eta Basotxokoak Santa Ageda kantuan

Astehenean, Santa Ageda bezpera, Aretxabaleta Abesbatzako kideak kantuan izango dira kalerik kale; 18:15ean elkartu Herriko Plazan, eta zaharren egoitzatik ere pasatuko dira, besteak beste. Leizarra musika eskolako ikasle abesbatza eta trikitilariak izango dituzte lagun Sizilian jaiotako santuaren omenezko koplak kantatzerakoan.

Bestetik, Basotxo erretiratuen elkarteko abestaldeko kideak ere kantuan ibiliko dira astehenean. "Astean egin ditugu azken entseguak eta otsailaren 4an kalean izango gara, azken urteotan moduan", adierazi du abesbatzako kide Ramon Quintanillak.

Frontenisa gustuko dutenendako hitzordua

UDA kirol elkarteak emakumezkoen frontenis txapelketa antolatu du Aretxabaletan. Emakumeen artean kirola sustatzeko txapelketa hori otsail bukaeran hasiko da, eta finala martxoaren 8rako finkatu dute, Iturrigorri pilotalekuan

Aitor Zuazabeitia ARETXABAETA

Otsailean jokatu da Aretxabaletako emakumezkoen frontenis txapelketaren VI. edizioa. Hilaren 16an hasiko dira partiduetak eta martxoaren 8an jokatu da finala. Irabazleek 200 euroko saria eta txapela eskuratuko dituzte eta beste bikote finalistarentzat 100 euro izango dira. Hala ere, parte-hartzaile guztiek eramango dituzte sariak.

Izen ematea zabalik dago

Txapelketa horren helburu nagusia emakumeen artean kirola sustatzea da, sortuko den giroaz gozatzeko eta futbola ez den kirol bat praktikatzeko.



Lierni Zangitu aretxabaletarra urtarrileko frontenis txapelketa mistoan. IMANOL SORIANO

Parte hartze handia espero da, eta bost urte dela hurbiltzea lortu zuten jende kopurua batzea izango litzateke aurtengo helburua. Iaz, adibidez, bertan behera geratu zen txapelketa, oso bikote gutxi animatu ziren eta. Hala ere, azken urteetako datuen arabera, parte-hartzearen goranzko joera nabarmentzen da eta iazkoa kasu isolatua izatea espero dute. "Aurten herriko emakumeek erakutsitako jarrerarekin, hasierako datuetara iritsiko garen sententzia daukat". Halaxe adierazi du Oihana Matak.

"Oso giro ona egoten da, eta lagun arteko momentu sana. Hori bai, partiduetan bakoitza bere onena ematen saiatzen da, inork ez du galdu nahi".

Aurrekoetan oso lehiakortasun eta giro ona izan da, eta aurten, gainera, finala Martxoaren 8an jokatzeko bere berezitasuna emango dio txapelketari.

Partiduetak otsailaren 16an, 17an, 23an, 24an eta martxoaren 2an eta 8an jokatu dira. Parte hartzeko izen-emate epea otsailaren 10era arte izango da eta 10 euro izango da bikoteko.

'Matematika eskuetara' hitzaldia Kukumikun

Matematikaren ikuspegi hezitzailea landuko du Leire Aranak otsailaren 4an emango duen hitzaldian (17:30). Kukumikun antolatutako ekintza horrekin, matematikak bizitzeko beste modu bat dagoela aldarrikatu nahi da, berez gai ederra dena ilun, mekaniko eta aspergarri bilakatu delako batzuentzat, eta horren aurka jardun nahi dute.

Atxabaltako M8 Plataformaren bilera martitzenean

Atxabaltako M8 Plataforma datorren martitzenean, otsailaren 5ean, elkartuko da Martxoaren 8ko greba antolatzeko eta horren bueltako ekitaldiak gertatzeko. Bi bilera egingo dituzte -aurretik-: 14:30ean eta 19:00etan, Arkupeko bigarren solairuan. Batzar hori Aretxabaletako emakume guztiei zuzenduta dago, ekarpenak egin ditzaten.



Pausoka
haur eskola

0-3
urte

943 77 03 77
pausoka.he@gmail.com
www.pausoka.eu

Belorrieta 8
20550 Aretxabaleta

Etorri eta ezagutu!

Izen-emate epea: **Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra**
Bulego ordutegia: **09:00-14:00 / 16:00-18:00**

zeuria
zeuena
geuria





Bolurako sarrera, Koldo Eleizalde kaletik ikusita. Estalki berria duen frontoia otsail erdialderako egongo da erabilgarri. J. BEREZIARTUA

Garai bateko hedapen beharra eremu desegoki baten eraikitzearen zama

1970eko hamarkadan eraikitzen hasia, herriko auzorik populatuena denak hamaika buruhauste eragin ditu historikoki; laster estalkidun frontoia irekiko dutela aprobetxatu du GOIENAK proiektu horretaz, garai bateko ez eta etorkizuneko ez berba egiteko

Erabat egonkortzeko hitzarmen bila

Bi urte pasatu berri dira mendia behera etorri eta Boluan arazo larriak eragin zituenetik. Hiru aste luzez larrialdi egoeran egon zen eremua eta kaltetuenean bost hilabete pasatuta ere ezin izan zuten euren etxeetara itzuli. Udalak "eginahal guztiak" egin zituen lur-jausi erraldoiak eragindako egoera "ahalik eta ondoen" kudeatu eta kaltetuei "lehenbailehen" lagundu ahal izateko.

Lurra erabat egonkorta nahi
Bada, oraindik ere lanean jarraitzen du Udalak, 2017ko urtarrilaren 16an eta ondorengo egunetan bizitakoa berriro errepikatu ez dadin: "Hitzarmen bat prest dugu datorren



2017ko urtarrilaren 16an izandako lur-jausiaren kalteak arintzeko lanak. GOIENA

hilabeteetan sinatuko duguna lurren jabeekin. Hitzarmen horren bidez, Udalak eskumen osoa lortuko luke lur horietan segurtasuna areagotzea helburu izango luketen obrak egiteko eta

lurren erabateko egonkortasuna lortzeko", adierazi du Udal Gobernuak. Horrez gain, aurreikusita dute eremu horretan erabilera publikorako ortu batzuk jartzea.

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarako auzorik populatuena da Bolua. Bergaran bizi diren ia 15.000 biztanleetatik, eta azken errolda datuetan oinarrituta, Bolua, Koldo Eleizalde, Aranerreketa eta Iriburu kaleetan 1.481 herritar bizi dira. Herriko beste auzo populatu batzuekin alderatuta: Matxiategin, *poligonoa* moduan ezaguna den esparruan, 983 herritar bizi dira; Osintxun, 400; Angiozarren, 288; eta, azkenik, Labegaraie-tako Ibarra kalean, 186 bizilagun. Datuek argi uzten dute, beraz, Bolua Bergarako auzorik jendetsuena dela.

1970eko hamarkadan eraikitzen hasitakoa auzoa da Bolua, orduko legediak beteko zituena. Hala ere, denborak argi utzi du hasieratik gauza asko egin zirela gaizki. Abiapuntua desegokia izateak gerora hamaika buru-hauste eragin dizkie bizilagunei eta, beraz, garaian garaiko Udal Gobernuari.

Frontoia, bi aste barru erabilgarri

Agintaldi honetan hasi eta bukatu den proiektuen artean Boluko frontoiaren estalkiarena nabarmendu beharra dago, zailantza barik. Elena Lete alkatearen arabera, otsail erdialderako erabilgarri egongo da pilotalekua: "Ukitu batzuk bakarrik falta dira. Obrak oso ondo joan dira eta estalkia dotore geratu da. Uste dugu proiektua garatzeko prozesuan piztu ziren beldur batzuk uxatu direla emaitza ikustean. Gure nahia da kirol taldeek, auzotarrek eta herritarrek erabiltzea, erdigunetik oso gertu dago eta".

Oposizioa, prozesuarekin kritikoa

Gogora ekarri behar da, bizilagun batzuk proiektuaren kontra azaldu zirela-eta, Gobernuak 2017ko irailaren 23an kontsulta egin zuela; baiezkoa irten zen: %34,23ko parte-hartzearekin, estalkiaren aldeko botoak %56,9 izan ziren eta kontrakoak, berriz, %42,8 –herritar batek zuri bozkatu zuen–. Kontsulta zergatik antolatu zuten gogoratu du Lete: "Auzotar batzuek ez zuten

begi onez ikusi eta gogor jarri ziren edozein estalkiren kontra. Puntu horretan auzotarren artean giroa ez gaiztotzeko eta benetan auzoak zer gura zuen jakiteko galdeketa antolatu genuen; gehiengoak frontoia estaltzearen alde egin zuen, argi eta garbi".

Lanak amaitzear direnean, oposizioak ez du begi onez ikusten gauzatu zen prozesua. EH Bilduko Gorka Artolaren ustez, ez zen parte-hartze egokirik eman: "Aldez aurretik ez zitzairen bizilagunei entzun eta horrek eragin zuen gero galdeketa egin behar izatea. Galdeketa baiezkoa jaso zuen eta proiektuarekin aurrera egin da, baina gure zalantzak ditugu emaitza ona izango den eta benetan herriko beharrei erantzuneko dien. Irekia da eta klimatizazio aldetik ez dakigu baldintzak beteko dituen, kirol jarduera batzuetarako mugak egon daitezke... Ez dakigu zer emango duen, ikusiko dugu".

Irabaziko Aiert Lizarraldekin uste du galdeketa aurreko prozesua "biolentoa" izan zela: "Kontra agertu ziren bizilagunek gobernuarekin egindako bilertako bitan egon nintzen eta sekulako tentsioa egon zen. Kohezio sozial ikuspegitik kaltetu batzuk egon ziren. Itxura aldetik polita geratu da, baina ezin da ahaztu hasieran zuen aurrekontua baino ia hiru aldiz gehiago gastatu dela proiektu honetan".

Premia ugari, baina soluzio zailak

Hainbat auzotarrekin egon da GOIENA, eta, gehienek auzoan hobekuntza garrantzitsuak egin direla aitortzen eta eskertzen duten arren, diote oraindik asko dagoela hobetzeko.

Aparkaleku beharra da gehien errepikatzen den aldarrikapena. Ezin da ahaztu kalera doazen askok Boluan aparkatzen dutela, auzotarrendako lekuak nabarmen jaitzita. Gai horren bueltan, oroitzen berezia gordetzen du hirigintza arloko gaetan asko aritu izan den ezker abertzaleko Jesus Mari Garitanok: "Auzo oraindik eraikitzen ari zenean kalkulu bat egin zen,

1.481 HERRITAR BIZI DIRA BOLUAN, 983 MATXIATEGIN, 400 OSINTXUN ETA 288 ANGIOZARREN

ESTALI BERRI DUTEN FRONTOIA OTSAIL ERDIALDEAN EGONGO DA ERABILGARRI, AUZOTAR GUZTIENTZAT

garajeak eta kanpoko aparkalekuak aintzat hartuta, etxe bakoitzeko aparkaleku bana zegoela esaten zuena. Datu hori oso positiboa zen orduan eta nahikoa zela zirudien, baina gaur egun auto bakar baterako lekua izatea motz geratu da. Etxe bakoitzean bi auto daude, gutxienez...".

Herri barruan joera orokorra oinezkoen lehentasuna ematea bada ere, gaur egungo errealtatea da autoen erabilera oso errotua dagoela herrian eta herri barruko mugimendu asko autoz egiten direla. Mugikortasunarekin jarraituz, Garitanok gogoratzen du garai batean Koldo Eleizalde eta Iriburu kaleetan autoak bi noranzkoetan mugitzen zirela eta aldatu egin behar izan zela: "Egoera hori desastre hutsa zen eta norabide bakarreko egin ziren. Orduan ere kexa mordoa izan ziren, baina uste dut egoera asko hobetu zela".

Aparkaleku gabeziari erantzun behar izateaz gain, irisgarritasuna bermatzea izan da auzo-arendako beste erronka handienetako bat. Espainiako Gobernuko presidente Jose Luis

Rodriguez Zapateroren *Eplana*-ren bitartez, 2009an eta 2010ean eraiki ziren lau igogailuei esker nabarmen hobetu da irisgarritasuna. Auzorako sarrera eta irteera bakarra Zubieta-Masterreka ardatza –Zubietako zubiaren obrek egoera konplikatu dute azken hilabeteotan– izatea eragozpen bat gehiago da, eta bizilagun batzuek diote auzoa gero eta ilunago dagoela. Argiteria publikoa aldatzeko eskatzen diote Udalari.

Eskari eta interbentzio txikiak

Era berean, horrenbeste erreplikatzeko ez diren bigarren mailako eskarien artean daude, besteak beste, gune berde gehiago sortzea, Iriburu kalea oinezkoen ere zabaltzea eta kutxazain automatikoren bat jartzea. Udalak egin dituen azken interbentzio txikien artean daude honako hauek:

AUZOTARRAK ETA POLITIKARIAK BAT DATOZ: HASIERATIK GAIZKI ERAIKITAKO AUZOA DA BOLUA

Koldo Eleizaldeko eta Iriburuko atarte batzuk apaindu dituzte, landareak eta koloretako harriak jarrita; estalita dauden espazio ugarietan garbiketa zerbitzu berezi bat abiatu dute; Iriburu kalean zabor puntu espezifikoa jarri dute... Eta Udalaren etorkizun hurbilerako asmoen artean daude, besteak beste, Koldo Eleizalden argiteria indartzea eta Aranerrekako espaloiak konpontzea.

Hobekuntzak hobekuntza, auzotarren eta politikarien artean adostasun zabala dago Boluren egoera errotik hobetzeko soluzio oso zaila dela baieztatzerako orduan. Hiru agintalditan Bergarako alkate izan zen Victoriano Gallastegik argi dauka: "Ahal dena egin da, baina Bolua dagoen lekuan dago eta hori da bere arazo nagusia".

Jesus Mari Garitanok ere antzeko irakurketa orokorra egiten du: "Egiten dena eginda ere Boluak ez du batere soluzio errazik". Bolua oinarritik hobetzeko edozein obrak faraonikotik izango lukeelako gehiago gaur egungo baldintzek ahalbidetzen dutenetik baino.



Igogailuetako bat egiteko lanak, 2009an. GOIENA

Irisgarritasuna, erronka historiko

Auzo guztirako irisgarritasuna bermatzea izan da Udal Gobernu ezberdinen buruhauste nagusietako bat. 2009an, Espainiako Gobernuaren diruarekin –Zapateroren *E plana* moduan ezaguna–, lau igogailu eraiki ziren: Santa Ana parkearen amaieran, erdigunea eta Bolua kalea lotzen dituen; Bolua kaletik goiko etxeetara eta Beart elkartearen egoitzara doana; errepidea eta Koldo Eleizalde lotzen dituen; eta Koldo Eleizalde eta Iriburu kaleen artekoa. Zetabi Arkitektura Bulegoa ibili zen proiektu horrekin eta lau igogailuak egiteko aurrekontua 1.200.000 eurokoa izan zen. Igogailuei esker, Boluko 89 atarrietatik, 67 atarik zailtasun txikia dute irisgarritasun aldetik –gehienez, %8ko malda eta hamar eskailera–; ertaina 20 atarik –%10eko malda eta 30 eskailera, gehienez–; eta bi atarik zailtasun handia –%10eko malda eta 30 eskaileratik gora–.

Zabalotegi eta Bolua lotzearen kontra

2006 eta 2007 artean Zabalotegi eta Bolua lotuko zituen proiektuak protesta ugari eragin zituen bizilagunen artean. Zabalotegi kaletik bidea ireki, Mizpirualdetik igaro ostean Errotalde parkea zatitu eta handik errepide berri hori Koldo Eleizalde kalera irtetea jasotzen zuen proiektuak, labor azalduta. Baina ez zen gauzatu; bizilagunek osoko bilkuren aretoa hartu zuten, sinadurak batu zituzten eta manifestazio bat ere egin zuten, besteak beste.

Gallastegi: "Irtene ona zen"
Orduko alkate Victoriano Gallastegik penaz gogoratzen du proiektua ez gauzatu izana: "Alde zaharreko trafikoa arintzea zen helburua. Guretzat, oso proiektu garrantzitsua zen, etorkizunerako irtene ona. Baina bizilagun asko kontra agertu ziren, eta oposizioa ere bai; ez genuen liskarrik nahi eta horregatik bertan behera geratu zen. Ekonomikoki bideragarria zen; orduko planifikazioa kontuan hartuta, egingarria zen". Hain zuzen, Udala



Zabalotegi eta Bolua lotzeko proiektuak protesta ugari eragin zituen. GOIENA


enpresa eraikitzaileek kudeatzen zuten zuten mezua zabaldu zen bereziki protesten artean, finantziarioa espekulazioan oinarrituta zegoela aditzera emanda: *Nork agintzen du udalean? Enpresa eraikitzaileek?*

Garitano: "Desastre bat zen"

Hirigintza arloan, ezker abertzaleko zinegotzi edota aholkulari moduan lan handia egindakoa da Jesus Mari Garitano; ondo gogoratzen du proiektu hura: "Desastre handi

bat zen; bereziki, Zabalotegiko bizilagunentzat. Errotaldeko lorategia ordurako babestuta zegoen eta urarentzat pare bat hargune ere bazeuden. Goiko baso-zatia ez zegoen babestuta, eta Mendiak Bizirik-ek presioa sartu zuen hori ere babesteko". 2007an, Garitano bera alkategai izan zen Bergara Aurrera zerrenda ilegalizatu ostean, EAE-ANVK hauteskundeak irabazi eta Agurte Barruso izendatu zuten alkate; proiektua orduan geldiarazi zuten behin betiko.


Ze premia ikusten diozu auzoari?



IGOR ZABALA
AUZOTARRA

"Estalkiarekin, frontoia oso erabilgarria izango da"

"Frontoiaren estalkia oso polita da eta auzoarentzat erabilgarria izango da. Herri honetan egiten duen eguraldia ikusita, oso ondo etorriko da; ez dakit zein den ideia, baina uste dut pilotarekin lotura duten erabilerekin harago beste erabilera batzuk eman ahal zaizkiola. Bestalde, aparkaleku gehiago behar ditugu, nabarmen; bereziki, goiko partean, aparkatzea desastre hutsa da. Eta ez hori bakarrik: goiko partean larrialdiren bat egongo balitz, drama itzela izango litzateke. Hala ere, badakit soluzio errazik ez dagoela..."



PEDRO MARI ZUBIA
AUZOTARRA

"Trenbidea behar den moduan txukundu dezatela"

"Nire ustez, behar nagusia duena da goiko trenbidearen ingurua. Txukundu dezatela, bidea behar den moduan garbitu dezatela. Menditik lurra erortzen denez, normalean oso zikin egoten da pasabidea. Noiz edo noiz garbitzen dute, baina sarriago pasatu beharko liriteke; *egungo ogia biharko gosea*. Horrez gain, alderik alde dagoen hodi handi bat dago bidean, eta kendu egin beharko lukete. Gainerakoan, epe motzean konpongarriak diren gaien artean, ez dut behar handirik ikusten".

"Gobernu honi alternatiba erreala eskainiko diogu"

GORKA ARTOLA EH BILDUREN ALKATEGAIA

2015etik zinegotzi den 29 urteko bergararrak herri batzarraren eta udal taldearen babesa oinarri hartuta heldu dio alkategai izateko ardurari: "Ondo pentsatutako erabakia izan da"

Jokin Bereziartua BERGARA

Maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako EH Bilduren alkategai izateko erronkari "gogotsu" heldu dio Artolak; alkate irtengo balitz, Bergarak izan duen alkate gazteena litzateke. **Uste duzu baldintzak betetzen direla Gobernu aldaketa eragiteko?** Uste dugu egungo Gobernuari alternatiba erreal bat osatu ahal diogula, Bergarari herri programa txukun bat aurkeztuta. Elkarlanerako prestutasun osoa izanda ere, Gobernu honi alternatiba bat eskaini gura diogu. **Zeintzuk izan dira Gobernu honen gabezia nagusiak, zure ustez?**

Batez ere, herriarekiko loturan ez dute asmatu. Entzule aktiboa izatea aldarrikatu izan dute, baina praktikan ez dute lortu. Ez dute herritarren parte-hartze erreal bat bermatu; gai estrategiko askotan ikusi izan da hori.

2015etik zara zinegotzi. Ze lanetan aritu izan zara, bereziki?



Gorka Artola, San Martin plazan, eguaztenean. JOKIN BEREZIARTUA

Azken bi urteak Udaleko jardunera bideratu ditut, liberazio partzial bati esker. Obra eta Zerbitzu, Hirigintza eta Ingurumen batzordeetan aritu izan naiz, batez ere, baina kultura eta auzoen batzordeetan ere parte har-

tu izan dut. Liberazioak ahalbidetu dit arlo ezberdinak ezagutu eta lantzea, udal taldearen koordinazio lanak nik egin ditudalako, neurri batean.

Albistea publiko egin denetik, jaso duzu herritarren babesa?

Bai, eta asko eskertzen da. Sare sozialetatik bereziki mezu asko jaso ditut eta batzuek kalean ere gelditu naute. Zinegotzi izateak esposizioa bazekarren, baina argi dago alkategai izatea jauzi kualitatibo nabarmena dela. Horrek eragin bat badu arlo pertsonalean, baina ilusioarekin eta gogotsu ekingo diot erronkari.

Nolakoa izan da zu alkategai izendatu arteko prozesua?

Gabonen aurretik, hauteskunde lantaldea jarri zen martxan, eta, aurreko herri batzar batean, proposamen ezberdinak jaso ziren. Horiek guztiak landu ostean, atzoko [astelehena] herri batzarrera proposamen zehatza eramatea zen asmoa, eta nire hautagaitza zen proposamen hori. Herri batzarrak berak eta azken lau urteotan ondoan izan dudana udal taldeak erakutsitako babesak eraman nau erronka berri hau onartzera. Hori bai, ondo pentsatutako erabakia izan da.



Astelehenean egin zuten lehen bilera irekia, Irizar jauregian. MARTXANTERAK

Otsailaren 11n egingo dute greba antolatzeko bigarren bilera irekia

Lehen bileran, deialdia sektore berriei zabaltzeko diagnosi bat egin zuten, baita egitarau-zirriborro bat ere

J.B. BERGARA

Martxoaren 8ko greba feministaren helburuak argitu eta Bergaran antolatu beharreko ekintzak antolatzeko lehen bilera irekia egin zuten astelehenean, Martxanterek deituta: "Diagnosi txiki bat egin genuen, hurrengo deialdiari begira beste sektore batzuek grebarekin bat egin dezaten. Egitarauaren zirriborro bat ere egin genuen... Kontu ugari zintzilik geratu ziren, eta, horregatik, bigarren bilera ireki bat antolatu dugu". Otsailaren 11n egingo dute bilera ireki hori, Irizarren (19:00).

Greba, bost ardatzetan

Martxoaren 8ko mobilizazioak 11:00etan eta 19:00etan izango dira –herriz herriz lantzen ari dira–, eta greba bost ardatzetan egingo da: pentsiodunak, ikasleak, zaintza, enplegua eta kontsumoa. "Emakumeei zaintzak eta lan erreproduktiboak ez egiteko deialdia zabalduko diegu; era berean, kontsumitzeari uzteko proposamena egingo diegu, bereziki enpresa eta merkataritzagune handietan, azkeneko horiek direlako lan esplotazioaren eta baliabideen ustiaketa basatiaren ikur nagusienetakoak".

OHARRAK

San Joxepe: argindarraren gizarte-bonua

Erretiratu elkarteak hitzaldi eta saio praktiko bat antolatu du argindarraren gizarte-bonuaren gainean. Martxoaren 6an izan arren, 25 plazatarago dago mugatuta. Izena emateko: 943 76 21 40.

Moztutako zuhaitzen egurra, herritarrentzat

Azken hilabeteotan moztutako zuhaitzen egurra berrerabiltzea erabaki du Udalak, eta herritarren artean banatuko du; interesa dutenek 943 77 91 53 telefono zenbakira deitu beharko dute.

Agorrosingo igerilekua itxita asteburu osoan

Alebin eta infantil mailetako Gipuzkoako txapelketa jokatu denez, igerilekua itxita egongo da bihar eta etzi, egun osoan.

2020ko egutegian parte har daiteke oraindik

Argazkiak jasotzeko epea zabalik dago. Gaia libre da. Parte hartzeko: euskara@bergara.eus edo 943 77 91 63.

Bergarako Erraldoi Taldea, Valentziara

Borrianan (Castello, Valentzia) bihar ospatuko den topaketa batean hartuko dute parte; Euskal Herriko lehen taldea da han egongo dena. Gaiteroek eta trikitilariak ere hartuko dute parte.



Gorka Artola alkategai izendatu zuen herri batzarra, martitzenean. EH BILDU

Orain, zerrenda eta programa osatzera

Hauteskundeetarako taldeak, orain Artolarekin batera, zerrenda eta "herri programa" osatzeko lanean jarriko da, aldeztu aurretik "lanketa ideologiko handia" eginda badute ere. EH Bilgune berria ere irekiko dute otsailaren 8an, Irala kalean: "Ateak zabalik egongo dira, erabat".

Labegaraietako tapizean lehian gimnastak bihar

Zapatuan egingo dute, goiz eta arratsalde, A mailako eskola arteko gimnasia txapelketa Labegaraietan; eurekin batera lehiatuko dira, baita ere, amateur mailakoak. Guztira, 100 gimnasta baino gehiago espero dituzte antolatzaileek

Xabier Urzelai BERGARA

Labegaraietako kantxako zorua tapiz handi batekin estaliko dute bihar, zapatua, urteroko hitzorduak agintzen duen moduan. Izan ere, 10:00etan hasita –kiroldegiko ateak ordubete lehenago irekiko dituzte–, Gipuzkoako gimnasia taldeetako ordezkari mordoa batuko da ikasturteko lehenengo azterketan, A mailako eskola arteko txapelketan. Adin txikietako gimnastekin batera, baina, amateur mailako gimnastek ere hartuko dute esku: "Gimnastek, guztira, 60 talde ariketa eskainiko dituzte, eta, horrekin batera, 104 gimnastak euren barkarkako lanak erakutsiko dituzte", dio Nagore Jimenezek, Ariznoako ordezkariak: "Bada, goizean, Ariznoa Taldeko bi talde ariketa izango ditugu, eta barkarkako beste bi saio. Arratsaldean, berriz, klubeko barkarkako ariketa bat izango dugu".

Egun osoko lana klubarendako

Bihar, klubeko ordezkariak buru-belarri ibiliko dira lanean dena ondo irten dadin: "Gipuzkoako talde nagusiak izango ditugu eta guraso asko gerturatuko dira bertara, lan handia izaten dugu. Baileratik Arrasateko Dragoikoak eta gu izango gara lehian, baina Eibarakoak, Tolosakoak, Donostiako hainbat klubetakoak... gimnasta asko batuko dira".

Hala, Gipuzkoako lehenengo eta bigarren fasearen ostean etorriko dira finalak, eta onenak Euskadiko Txapelketarako sailkatuko dira: "Ariznoan Euskadiko txapelkunak izan ditugu, baina orain egokitzapen fasean gaudela esango nuke. Ainize Lizarralde da iaztik gure entrenatzailea eta oso lan ona egiten dabil gimnastekin, oso pozik gaude. Emaitzak, baina, etorriko dira aurrerago, ez da lehenetasuna orain".



Gimnastak Agorrosingo tapiz gainean. GOIENA

"Emaitzek ez dute lehenetasuna, egokitzapen fasean gaude"

NAGORE JIMENEZ ARIZNOAKO ZUZENDARITZAKO KIDEA

Zapatuan, zakua bete lan izango dute Ariznoa gimnasia taldea osatzen duten lagunek. Entrenatzaile eta gimnastak kantxan jarriko duten tapizean gertatzen denari begira egongo dira. Baina halako txapelketa bat antolatzen lan handia dago atzean.

Urteko lehenengo azterketa izango da biharkoa.

Bai, halaxe da, eta gimnastak dagoeneko urduritasun puntu horrekin daude. Bueno, bai gimnastak eta baita gu ere, egia esateko. Euren dako, azken hilabeteotan egindako lana erakusteko momentua da, ariketak ondo egiten dituzten ikusteko lehen froga. Eta suposatzen da baietz, dagoeneko ariketa horiek txukun egin behar dituztela, gogor entrenatzen ibili dira-eta horretarako. Lehenengo txapelketa, gainera, etxeko



GOIENA

ikusleen aurrean izango dute, onerako eta txarrerako. [Barre] **Lehenengo fasea da hau, hiru hilabete barru bigarren aukera izango dute.** Denboraldia luzea izaten da. Zapatuko Gipuzkoako lehenengo fasea da, eta maiatz inguruan bigarren fasea egoten da jokoan. Ondoren, Gipuzkoako finalak izango ditugu, eta, hain zuzen ere, emaitza onak batzen dituztenak Euskadiko Txapelketara joango dira gero.

Sergio Gutierrez eta Ioritz Arrieta finalerdietan daude


Datorren martitzenean jokatuko dituzte Soraluze lau eta erdiko txapelketako gainontzeko final-laurdenak

X.U BERGARA

Sergio Gutierrez eta Ioritz Arrieta dagoeneko Soraluze lau eta erdiko Txapelketako finalerdietan daude. Aste barruan –martitzenean– jokatu zituzten final-laurdenak eta Julen Alberdi eta Xabier Zubiria gainditu zituzten. Hain zuzen, Gutierrezena eta Alberdirena izan zen partidu berdindua.

Lehena, partidu ederra

Lehenengo partiduan, Sergio Gutierrezek 22-19 irabazi zion Julen Alberdiri. "Partidu ederra izan zen. 47 minutuko iraupena izan zuen eta Gutierrezek 17 tanto egin zituen, guztira –bi, saketik–. Alberdik, berriz, 14 tanto egin zituen. Galdu, berriz, bosna pilotakada galdu zituzten, eta detaile txikiak erabaki zuten norgehiagoka", adierazi du BKEko ordezkari Julen Aranburuk.



Pilotaria pilota astintzeko gertu. GOIENA

Bigarren partiduan, Ioritz Arrietak 22-6 irabazi zion Xabier Zubiriari. "Hor desoreka handiagoa egon zen pilotarien artean. Zubietak ez zuen ohiko maila erakutsi, eta Arrieta oso ondo ibili zen. 27 minututan erabakita zegoen norgehiagoka".

Gipuzkoakoa Agorrosinen

Oraingo asteburuan, Agorrosingo igerilekuan Gipuzkoako alebin eta infantil mailako txapelketak jokatuko dituzte –zapatuan eta domekan, goizez eta arratsaldez–, eta, horrenbestez, erabiltzaileendako itxita egongo dira igerilekuak. Gipuzkoako klub guztietako ordezkariak izango dira lehian; adibidez, Bergarako klubeko ordezkariak.



GOIENA

Bolada onarekin jarraitu gura du Bergara Soralucek

Begarako senior mailako talde nagusia bolada onean dago, azken hiru partidua irabazi eta gero. Eta laugarren garaipenaren bila joango dira bihar, zapatua, Irunera. Sailkapenean atzealdeko postuetan dagoen Erroibide izango dute aurrean (20:00). Azken bost partidua galdu eta gero, joan den astean irabazi egin zuen talde horrek.

Egiaren kantxan jokatu du eskubaloit talde nagusiak

Azken bi jardunaldietan irabazi eta gero, eta joan den astean Munttarperen kontra 19-25 galduta, bergararrek bolada ona eten zuten. Hurrengo hiru partidua, berriz, sailkapenean ondo-ondoan dituzten Egiaren, Donibaneren eta Aritzbataldereen kontra jokatuko dituzte. Lehenengo donostiarren kantxan izango da, bihar (20:15).



Nagusien antzerki eskolakoak, artxiboko irudian. GOIENA

Gazteei zuzendutako antzerki eskola amesten

Jardunek DBHko ikasleei zuzendutako antzerki eskola martxan jarri nahi du; egubakoitzetan izango dute hitzordua, Zabalotegin. Gazteen kezka plazaratzeko gunea izango da, eta gorputz espresioa, ahoskera eta sormena lantzeko lekua

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA
Jardun euskara elkarteak gazteei zuzendutako antzerki eskola jarri nahi du martxan. DBHko ikasleei zuzendutakoa izango da, eta helburua da adin tarte horretako neska-mutikoen euren kezka adierazteko lekua izatea eta, horrez gain, sormena garatzeko espazioa izatea.

Egubakoitzetan elkartuko dira
"Antzerkia ahozko eta gorputz adierazpena bultzatzeko tresna bikaina da", azaldu du Jarduneko Maitane Arizabaletak. Metodologia parte hartzaile bidez aurrera eramaten den ekimena da; modu horretan, "talde lana eta elkartasuna" ere lantzen dituzte.

Saioak egubakoitzetan egingo dituzte, 17:15etik 18:15era bitartean, Zabalotegin. Antzerki eskolan izena eman nahi duenak mezu bat bidali dezake jardun-kultura@topagunea.com helbidera, edo 943 76 36 61 edo 605 712 469 zenbakietara dei dezake.

Irakasle lanetan Amaia Arriaran ibiliko da eta ordaindu beharrekoa da 12 euro Jarduneko bazkideek eta 15 euro gainontzekoek.

Sorkuntza, bere osotasunean
Jardunek badu gaztetxoan antzerki eskola –LHko ikasleei zuzendutakoa– eta 2016tik aurrera baita nagusiei zuzendutakoa ere. "Badago adin tarte bat antzerkian jarraitzeko gogoia eta ilusioa duena, baina e bere lekua topatzen ez dutena. Gaztetxoan taldean jarraitzeko helduak dira; izan ere, euren kezka eta gaiak ulertzeko eta jorrazteko modua beste batzuk dira", azaldu du Amaia Arriaren irakasleak. Horregatik sortu nahi dute DBHko ikasleei zuzendutako taldea.

**ANTZEZLANA
SORTZEKO ORDUAN,
TALDEKIDEEN IDEIAK
ERRESPETATZEN
IKASTEN DUTE**

Gazte horiek euren kezka plazaratu eta sormena lantzeko bidea izan dezaten.

"Helburua ez da bakarrik antzezlan bat interpretatzea. Sorkuntza prozesu bat da, eta diziplina ezberdinak lantzen dituzte. Antzezlan euren sortzen dute, eta, horretarako, taldeki-deen ideiak errespetatu behar dituzte, eta elkarlanean lan egin", dio Arizabaletak. Antzezlan lan horren "fruitua" dela dio.

Irakaslea, bidelagun
"Gorputz espresioa, ahoskera, sormena... lantzen dugu", azaldu du Arrietak. Antzerki eskolan egiten dituzten ariketak baliatzen dituzte ideiak hartzeko, eta, ondoren, antzezlan idazten dute. "Nik lagundu egiten diet: 'Ondo iruditzen zaizue beste modu honetara adieraztea hori?'. Euren baimenarekin antolatuta eta bideratzen dut gidoia", gaineratu du Arrietak. Antzerkia gustuko dutenek barikuetan izango dute antzerkian murgiltzeko aukera.

Jarri dute martxan Koldo Eleizalde literatura lehiaketa

Maiatzaren 3an bukatuko da lanak aurkezteko epea; idatzizkoak paperean aurkeztu behar dira, BAZen

A.E. BERGARA

Udaleko Euskara batzordeak abiarazi du Koldo Eleizalde lehiaketa. Aurtengoa 34. aldiz izango da, eta berrikuntzekin etorriko da.

Lehiaketak bere sustraiak mantentzen ditu, eta baita helburuak ere. Urteak pasa ahala, hainbat genero gehitu dituzte. Hala, aurtun, aurreko urteetako genero guztiak –ipuin idatzia, komikia, bertsoa, ipuin-kontaketa, antzerkia, txisteak...– mantenduko dituzte, eta berri bat gehitu: poesia aurkezteko auke-

ra ere zabaldu da 2005ean edo lehenago jaiotakoentzat.

Lanak aurkezteko epea maiatzaren 3an bukatuko da. Idatzizko lanak –ipuin idatzia, poesia, komikia, bertso idatzia...– paperean aurkeztu behar dira, Bergararren Arreta Zerbitzuan, eta ikus-entzunezkoak –antzerkia, ipuin-kontaketa, bertso kantatua, txisteak...–, ordea, sare bidez aurkeztu behar dira, Bergarakoeuskara.eus atarian.

Ekainean banatuko dituzte lehiaketako sariak, Seminarixoa aretoan.



JOSE MIGEL LASKURAIN

Bielorrusiatik, sariarekin

Begarako txistulari bandako zuzendari Jose Migel Laskurainek saria ekarri du Bielorrusiatik. Urtarrilaren 22an zuzendu zuen Bielorrusiako irratitelerak orkestra sinfonikoa; eta, *Neguko ametsak* Workshop-lehiaketako lehenengo saria eskuratu zuen. Pozik dago Laskurain, saria nori eman musikariek euren erabaki zutelako bozketa sekretu bidez.

Bingen de Pedoren koadroak Donostian jarri dituzte ikusgai

Bingen de Pedro margolari bergararraren *Ihesaldi* izeneko erakusketa Donostiako KUR galerian jarri dute ikusgai. Hogei koadroz osatutako erakusketa da; horietako batzuk, parretan beharrean, lurrean daudenak. "Koadrotik ihes egin nahian dabilzan objektuak" irudikatu ditu De Pedrok. Apirilera arte egongo da ikusgai.

Gutxi batzuk, baina badaude 'Go!azen' ikusteko sarrerak

Bihar, zapatua, eta etzi, domeka, eskainiko dute *Go!azen* ikuskizuna, Seminarixoan. Lau emanaldi eskainiko dituzte; zapatuan 19:00etan eskainiko duten saiorako sarrerak agortuta daude, baina oraindik geratzen da lekua gainontzekoetarako. Zapatuan 17:00etan eta domekan 12:00etan eta 17:00etan dira beste hiru emanaldiak.



dk's'18

DEBAGOIENENKO
KIROL SARIAK

Mankomunitateko Udal bakoitzak bere herriko kirolari, elkarte edo ekimena sarituko du.



Aretxabaletako
Udala

ARETXABALETA SARIA
Odilo Vázquez Álvarez



Begarako
udala

BERGARA SARIA
Mikel Linazisoro



LEINTZ GATZAGA

LEINTZ GATZAGA SARIA
Dorletako Ama
Txirrindulari Elkarte



OÑATI
dabilen herria

OÑATI SARIA
Oñatiko Espeleologia Taldea



eskoriatzako
udala

ESKORIATZA SARIA
Martín Pérez



ARAMAIO SARIA
Ione Oyanguren
López de Bergara



ANTZUOLAKO
UDALA

ANTZUOLA SARIA
Alaitz Urkiola Lizundia



ELGETAKO
UDALA

ELGETA SARIA
Iratxe Alonso



ARRASATEKO UDALA

ARRASATE SARIA
Iñaki Uribetxeberria

EMAN BOTOA

Herritarren Sarirako hamar hautagairen artean eman botoa
goiena.eus-en, otsailaren 8a baino lehen.

IRABAZI ABONAMENDUA! Parte hartzaileen artean
Debagoieneko kiroldegi baterako urte osorako abonamendua

SARI NAGUSIEN
BABESLEAK:

ekidegroup

KIROLARI ONENAREN SARIA

goiena | AXA
seguru bizi

TALDE ONENAREN SARIA



PUBLIKOAREN SARIA



Obra Social "la Caixa"

SARI BEREZIA

goiena"

KOMUNIKAZIO TALDEA
GOIENA SARIA

Oharra: Ekitaldia otsailaren 13an egingo da Arrasateko Amaia antzokian 19:00etan eta gonbidapena beharrezkoa izango da bertan zuzenean jarraitu ahal izateko.

**GOIENA TELEBISTAK ZUZENEAN EMANGO DU EKITALDIA HERRITAR GUZTIONDAKO ETA
STREAMING BIDEZ GOIENA.EUS WEBGUNEAN ERE JARRAITU AHAL IZANGO DA.**

la hiru milioiko aurrekontua

Obra garrantzitsuek eta iazko ekainean gertatutako uholdeen ondorioek markatutako aurrekontuak dira 2019koak. 2.939.118 eurokoa da eta egingo diren obra handien artean daude Olarangoa, Torresoroakoa edo Eztalako aldagelena, besteak beste

Maidar Arregi ANTZUOLA

Guztira, 2.939.118 euroko aurrekontua onartu da asteon egindako osoko bilkuran, EH Bilduren aldeko botoekin. EAJ absenteitu egin da eta Alderdi Sozialistak aurkako botoa eman dio 2019ko aurrekontuari.

Udal Gobernuak adierazi du garrantzi handia hartzen dutela aurten hainbat obrak; hala, Torresoroako, Eztalako eta Olarango obrek eroango dute inbertsioetara bideraturiko diru kopuru handiena.

Aurrekontu "bereziak" izan direla azpimarratu du Beñardo Kortabarria Antzuolako alkateak, iazko uholdeek eraginda hainbat erabakik aurrekontuan izan dute-eta isla: Torresoroako obraren auziak eta Antzuolako Udal Etxegintza SA (AUE) desegiteak, besteak beste.

Antzuolako alkateak azaldu du AUE desegin ostean etorri den diru sarrerak "puztu" duela aurtengo aurrekontua -253.000 euro gehiagorekin-. Baina, era berean, AUE desegiteak ahalbiderratu duela Torresoroako obra lehenbailehen hastea. Aitortu du herritarrek etorkizuneko

Antzuola nolakoa gura duten ere oinarri izan dutela aurtengo aurrekontua egiteko garaian.

Parte hartze prozesua

Antzuola eitten prozesuaren barruan, herritarrek eskatutako hainbat gai aurten abiaraziko ditu Udalak. "12 urteko epean aurrera eramateko erabakiak adostu genituen parte hartze prozesuan, eta horiek aurrera eramango dira ondorengo urteetan".

Aurten landuko den gai horietako bat da Antzuolako kulturaren gaineko hausnarketa. "Parte hartze prozesuan irten zen gai nagusietako bat izan zen Antzuolan dagoen kultura eskaintzaren gainean hausnarketa egitearen beharra. Kanpoko aholkularitzarekin landuko dugu eta 9.000 euro bideratuko ditugu".

Antzuolako egoera sozioekonomikoaren azterketa ere abiatuko dute. Baita Errekalde eta Beheko auzoen gaineko hausnarketa ere. "Bi auzo horiek degradatzen ari direla-eta berriro duintasuna itzultzeko hausnarketa egin gura dute herrita-

rrek. Nolabait, pentsatu behar dugu auzo horiei duintasuna nola itzuli eta herritarrok gure senti ditzagun berriro zer egin daitekeen. Bilerak proposatzeko, gutunak bidaliko ditugu helburu jakin batekin: zer egin genezake denon artean auzo horiek hobetzeko?". Hasiara batean kosturik ez duten ekimenak badira ere, aurrelana eskatzen dutela dio Udalak eta gerora, ateratako ondorioen arabera, inbertsio ekonomikoa egitea ere ekar dezaketen gaiak direla.

Berdintasunaren alorrean lanean jarraitzeko, hiru mila euroko diru partida bat ere bideratuko da aurten. "*Berdinbidean* programan gaude eta parekidesunaren aldeko jarrera sustatzen jarraituko dugu. Antzuolan bada helburu bera duen mugimendua. Jende asko mugitzen dute eta kontzientziazio-lan handia egiten dute".

Eskola eta haurreskola

Eskolako obrak ez du zuzenean aurrekontuetan eragiten, baina bai zeharka: "Ohartu gara haurreskola eskolako eraikinean dagoela eta obra-gunetik kanpo mantendu beharreko zerbitzua dela. Horregatik, gazte txokora eramango da zerbitzua". Egokitzapen-lanak egin behar dira, ordea, eta 25.000 euro inguruko kostua izango du Udalarendako. "Zerbitzua estrategikoa eta oso garrantzitsua da Antzuolarendako; beraz, beharrezko egokitzapenak egingo ditugu. Gazte

MAIATZERAKO, HAURRESKOLA GAZTE TXOKOA DAGOEN LOKALERA EROANGO DU UDALAK

Aurtengo obra potoloenak



Olaran etxea. Olarango eraikina zaharkitua dago eta ez da irisgarria. Igogailua jarriko dute barruan eta komunak eta telekomunikazio sarea berrituko dituzte. 170.000 euroko kostua du. Aurten, 90.000 euro bideratu dira eta 2020an 80.000 euro.



Eztala. Asteon jakingo da aldagelan eragindako kalteengatik Bidegiren aseguruak zenbat diru jarriko duten. Hori zehaztean sinatuko du Antzuolako Udalak bi urterako hitzarmena Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Departamentuarekin.



Torresoroa. Torresoroako eraikinean hobekuntzak egingo dituzte, eta gerakinetik aterako da dirua. Sarrerako bigarren ate automatikoa jarriko da, ikasteko gune berria egingo dute eta eraikinaren kanpoaldea margotuko dute, besteak beste.

2019ko gastuen aurrekontua

Saila	Euro
Idazkaritza	1.429.166,19
Hirigintza	733.729,52
Alkatetza	28.210
Gizarte Zerbitzuak	396.732,07
Kultura, Kirola, Hezkuntza	278.475
Euskara, Gazteria	73.756,12
Guztira	2.939.118,19

ITURRIA: ANTZUOLAKO UDALA

txokoa, berriz, haurreskolara ekarriko da". Auzolanean egingo da traslaoa eta maiatzerako haurreskola gazte txokoa egongo da; horren ondorioz, apirilera gazte txokoko kurtsoa amaitu egingo da aurten".

Bestelako hainbat lan

Hainbat txukuntze-lan egingo dituzte aurten ere herrian. Bide publikoetan 33.000 euroko inbertsioa egingo dute: "Iaz, hainbat auzotan asfaltatze-lanak egin genituen, eta bide publikoei jarraipena emateko diru partida bideratu dugu. Eta landa-bideetarako beste 23.000 euro".

Herri Eskola aurreko balkoia ere berrituko dute oso-osorik, 15.000 euroekin. Eta eskolako patioa itxidura ere ixtea adostu dute. Lan hori egiteko 40.000 euro jaso ditu aurrekontuak. Hala ere, eskolako obren ondorioz, osorik ezingo dela patioa itxi aurreratu du Antzuolako alkateak: "Gela aurrefabrikatuak patio ondoan egingo dira, eliza eta eskola arteko gunean jarriko dira. Gelak eskolarako sarrera zuzena eduki behar du eta horregatik ezingo da patioa itxitura guztiz itxi".

Aipatu ere, aurten baserrietara ura eramateko lanek beste 40.000 euro jasoko dituztela. "Irimoi aldean egingo ditugu lanak fase berri honetan. Baserrietako ura, baina, sarera egokitzea adostu dugu, Ur Kontorszioarekin, eta beste 18.000 euro bideratuko ditugu eskatutako aldaketak eta egokitzapenak egiteko ur sarean".

Errekerimendua

Bestalde, martitzeneko osoko bilkuran, Bergarako ordenantza fiskalei errekerimendua jartzea onartu zen, EH Bilduren eta PSEren aldeko botoekin.

Izan ere, Bergarako Udalak ez du onartu Agorrosingo tasen gaineko ordenantza fiskalaren kontra jarritako erreklamazioa, eta, horregatik, errekerimendua jarriko dio Antzuolako Udalak. Elgetako Udalak ere errekerimendua egitea onartu berri asteen egindako osoko bilkuran.

ESKOLAKO PATIOAREN ITXITURA ITXI EGINGO DUTE; ORAINGOZ, BAINA, ZATI BAT BAKARRIK

"Interes alderdikoia"



MIREN ARRATE GALLASTEGI
PSE

"2019ko aurrekontuak iazkoaren *deja vu*-a dira. Berrito Udalbiltzari, Uemari eta ETako presoak bisitatzera joateko familiei laguntzak ematen zaizkie. Udal Gobernuari leporatzen diogu herritar guztiendako gobernatu ez izana. Argi ikusten da EH Bilduren interes alderdikoia. Euredako gobernatzen dute, eta ez antzuolar ooren interesendako".

"Azken uneko aurrekontuak"



BASILIO ORMAZABAL
EAJ

"Agintaldi hasieratik, alkateari aurrekontuak denen artean egiteko eskatzen ibili gara. Beste behin, azkenengo momentuan eginiko eta batzordeetan eztabaidatu gabeko aurrekontuen aurrean aurkitzen gara. [...] Gastuetan jasotzen diren partida batzuek sarreretan kontrapartida eduki behar lukete eta ez dira bere osotasunean sartzen: hilerriko eta gimnasioko zerbitzuak edo udalekuak. Positiboki baloratzen ditugu, bai kultura eta kirol elkarteei zein kultura ekintzetarako aurreikusten diren partiden gehikuntzak; espero dugu hurrengo urteetan jarraipena izatea eta ez hauteskundeak diren urtean egindako gehikuntza izatea. [...] Inbertsioekin ados gaude, eta espero dezagun urtean bertan gauzatzea. Izan ere, aurrekariak ez digute hori erakutsi azken hiru urteetan. [...]".

Antzuolako haurreskolak atear irekita ditu urte osoan zehar

Herriko haurreskolak plazak libre ditu eta gurasoek urte osoan zehar dute aukera haurra matrikulatzeko

Maidar Arregi ANTZUOLA
Haurreskolak Partzuergoak hiru matrikulazio epe ditu: irailean, urtarrilean eta maiatzean. Antzuolako haurreskolan, baina, ez dago matrikulazio eperik. "%75 beteta ez dagoenez, beti

dago aukera haurra eramateko, beti dago zabalik", argitu dute. Une honetan, bi gela daude: 0 eta 1 urteko haurrendako; eta bigarrena, 1 eta 2 urteko haurrendako". Lehenengoan sei plaza daudela libre argitu dute

eta bigarrenean, berriz, lau plaza. Orduetgia 08:00etatik 17:00etara den arren, aukera dago 07:30ean zabaltzeko.

"Hileko kuotaren kalkulua familia unitatearen errenta estandarizatuaren arabera egingo da, 18.000 euroko irabaziak baino gutxiago dituzten familien kasuan izan ezik; haiek doan izango dute. Erditze anitzeko kasuetan edo anai-arrebaren bat edo gehiagorekin kointzidituz gero, hurrengo kuotak doan izango lirake".

Arrolakoak, Oiz mendian

Euriari, haizeari eta lainoari aurre eginez, gailurra egitea lortu zuten Arrolako mendizaleek. Domekan ateratako argazkia da. Hurrengo irteera otsailaren 17an egingo dute, Arrasateko Udaltx mendira. Ibilbide hau egingo dute: Udala, Besaide, Udaltx eta Udalara buelta. Izena arrolamet@gmail.com helbidean eman behar da.



ARROLA

'Antzuola' jolasgunea

Ahierran, *Antzuola* izeneko jolasgunea inauguratu dute, bi herrien arteko senidetza irudikatzen. Egurrezkoa da eta naturarekin egindako elementuak ditu oinarri. Era berean, Beñardo Kortabarria *Aiherrako enbaxadore* izendatu dute, ume aihertarrei Antzuolako udalekuetan parte hartzeko aukera emateagatik.



ANTZUOLAKO UDALA

Larrugintzaren ondarea balioan jartzeko hausnarketa

Antzuolak historia modernoan zehar larru langintzarekin hurreman eta tradizio handia izan du, ekonomiaren ardatz nagusi izan da eta bi mendez. Hala ere, eta industriaren eboluzioarekin batera, desagertzen joan da langintza hori, eta, gaur egun, jarduera horrekin loturiko gehiena galduta eta desagertuta dago.

Hain zuzen ere, eta belaunaldi berriei larrugintzak herrian izan zuen eragina transmititzeko, hausnarketa-saioa egingo dute otsailaren 16an Orlaranen, 09:30etik 12:30era. "Zer egin larru langintzaren ondarearekin? Zer egin dezakegu antzuolarrok larru langintzaren ondarea balioan jarri eta herritarrei erakusteko? Erantzunak hausnarketa-saiotik eskuratu gura ditu. Esparru anitzeko herritarrek gura dituen gonbidatu", dio Udalak.

Santa Ageda bezperan kantuan egingo dute

Otsailaren 4an, astelehena, ospatuko da Santa Ageda bezpera. Hala, aurten ere, abesbatza, Anelkar, Sagiri eta herriko txistulari taldea elkarrekin irtengo dira kantuan egitera. Santa eskean batzen den dirua Saharako haurrak udan ekartzeko izango da. Antzuolar oro gonbidatuta dago 18:30erako plazan.

Erronka garrantzitsuak Ozkarbi elkarteetan

Urtebeteko hausnarketa prozesu baten ostean, barra ingurua berritzea, kultura atala sortzea eta gazteendako espazio berri bat zabaltzea onartu dute bazkideek. Horrekin batera, bazkide izateko bideak malgutu egingo dituzte, eta urteko kuota igo egingo dute

Larraitx Zeberio ELGETA

Ozkarbi elkarteko bazkideek erabaki garrantzitsuak hartu dituzte urtarrilaren 17an egin dako batzar orokorrean. Aspaldi honetan elkarte biziraupen egoeran dagoela azaldu dute presidente kargutik irten berria den Maite Mandalunizek eta erreleboa hartu duen Oxel Erosarbak. "Ozkarbi elkarte gastronomiko bat baino gehiago izan da beti, eta argi dugu gaur egungo egoerak neurri batzuk hartzea eskatzen duela", azaldu du Mandalunizek.

Lehenengo eta behin, egokitzapenak egingo dituzte estatutuetan. Elkartearen helburuen artean gehikuntza bat egin dute: euskara sustatzeko ekintzak antolatzea, eta horiek dinamizatzea atal propioa izango du Ozkarbik. "Herriko dinamiketan parte hartzeko moduak pentsatu beharko ditugu orain. Badugu herriko eragileekin elkarteko asmoa; izan ere, egin daitezke gauzak elkarlanean".

Batzarrak, bestalde, bazkide berriak egiteko bideak malgutzea onartu du. "Ume ginela sartzen ginen lehen Ozkarbira, eta, azkenaldian, guraso profileko jendea sartzen da. Askotariko be-lanaldien arteko topalekua izan da sorreratik Ozkarbi, eta hori




Ozkarbi elkarteko bazkideen urteko batzar orokorra, urtarrilaren 17an. I. ARANTZABAL

berreskuratu nahiko genuke". Hala, orain arte ez bezala, sarre-ra kuota bost urteko epean ordaintzeko aukera izango da, eta gazteendako gune berri bat zabalduko dute elkarteetan.

Gazteendako gune berria

Eraikineko hirugarren solairua egokituko dute 13-18 urte bitarteko gazteendako. "Leku horrek komunak, sofak, telebista bat, kanpotik ekarritakoak jateko mahai bat, wifi konexioa eta berogailua izango ditu hasiera batean", azaldu du Erosarbak.

Herrian dagoen egoera bati erantzuna emango diotela ere uste dute Ozkarbin. "Guraso diren bazkideen esanetan 13 urtetik gorako gazteak kalean, etxetik irten barik edo Bergarako lokalatan ditugu. Nahiko genuke horiek elkartera erakartzea. Hala, behin-behineko bazkide figura sortu dugu. Urtean 25 edo 50 euroko erabiltzaile-kuota bat eta bazkide ekarpenaren zati bat ordainduko dute. Ideia da adinera iritsitakoan aurreratua izatea bazkide ekarpen guztia edo ekarpenaren zati handiena".



Elkartearen erronka berriak lantzen aritu den zuzendaritza taldea. I.A.

Erabaki estrategikoen unea

"Zuzendaritzan sarterakoan ikusi genuen elkartearen bideragarritasun ekonomikoa arriskuan zegoela, eta horrekin batera sentsazioa genuen galtzen joan direla Ozkarbik sorreratik zituen helburuak. Hau da, elkarte gastronomiko huts bihurtzen ari ginela. Hala, hausnarketa prozesu batean sartu ginen. Ia urte oso bat eman dugu horretan. Galdetu dugu gure inguruko elkarteetan, eta inkesta bat egin dugu bazkideen artean. Sozioen %32,7k erantzun dute inkesta hori, eta adierazi dute bat egiten dutela elkarteak sorreratik dituen balioekin eta misioekin. Esan dute, gainera, herrira zabalik dagoen elkarte bat nahi dutela, eta urtean zehar ekintzak antolatuko dituen".

Ozkarbi elkarteak, gaur egun, 220 bazkide ditu, eta 157 erretiratu erabiltzaile. Guztira, 377 lagunek dute giltza.

Lanak barra inguruan

Bazkideek azken urteotan elkartearen egiten duten kontsumoaren jaitzierarekin ere kezkatuta, beheko solairuko barra inguruari itxura berria ematea onartu dute Ozkarbiko kideek. Altzariak aldatzeko, argiztapena hobetzeko eta gunea margotzeko asmoa dute. "Sortu nahi dugu bazkidea gustura egongo den gune erakargarri bat. Eraikineren jabeekin harremanetan gaude, eta espero dugu ez dela eragozpenik egongo", azaldu du Erosarbak.

"Erabaki berri hauek guztiak ez dute ziurtatzen konponduko diren elkarteak dituen arazo guztiak, baina argi ikusi dugu zerbait egin beharra dagoela, eta bazkideen babesarekin arrisku batzuk hartzeko prest gaude", esan du Mandalunizek.

ZUZENDARITZAK UDABERRIAN INAUGURATU NAHI DITU ELKARTEKO ESPAZIO BERRIAK

Agorrosingo tasen kontrako bide aurre-judiziala hartuko du Udalak

Abokatua eta prokuradorea izendatuta daude, eta Antzuolako Udalak ere bide beretik joko du

L.Z. ELGETA

Bergarako Udalak ez du onartu Elgetako eta Antzuolako udalek azaroan jarritako erreklamazioa, eta martitzeneko osoko bilkuran errekerimendua egitea onartu du Elgetako udalbatzak. EH Bil-

duren aldeko botoekin eta Gu Geu Elgetako ordezkarien abs-tentzioarekin hartu da erabakia.

Hala, Bergarako Udalak ez badio eskatutakoari erantzunik ematen hilabeteko epean, alkatea baimenduta dago auzi-erre-

kurtsu bat aurkezteko. Abokatua eta prokuradorea ere izendatuta daude. Eskararekin ados egonda ere, oposizioa kideek uste dute saiakera gehiago egin beharko lirakeela bide judizialek kanpo adostasun batera iristeko. EH Bilduko ordezkariak, ordea, ez datoz bat. Saiakerak egon direla adierazi dute eta Bergarako Udalaren aldetik ez dutela adostasun batera iristeko borondaterik ikusten. Antzuolako udalbatzak ere bide aurre-judiziala hartzea onartu du.

Iraitz Lazkano alkatea martitzenean 'Harira' saioan

Elgetako kontuak izango dituzte aztergai, martitzenean, Goiena telebistako *Harira* saioan; izan ere, Eneko Azkaratek gidatutako elkarrizketa tar-tean, Elgetako alkate Iraitz Lazkano izango da gonbidatua. Hainbat gairi buruz galdetuko diote alkateari ordubeteko elkarrizketa saioan, eta 21:30ean eta 23:30ean emango dute telebistan.

OHARRAK

'Gu ere kontalari'

Gaur, barikua, umeek kontatuko dituzte ipuinak liburutegian. Saio irekia da eta 17:00etan hasiko da.

Literatura solasaldia

Eguenean, hilak 7, Hitzez Pitz literatura solasaldia egingo dute liburutegian. Irakurgaiak dira Aitor Aranaren *Ipuin lizunak* liburuko hiru idazlan. Argibideak, liburutegian.

Mendi Mendia Racing jaia, otsailaren 9an

Mendi Mendia Racing jaialdiaren hirugarren edizioa izango da otsailaren 9an. Egun osoko egitaraua osatu dute antolatzaileek, eta, hain zuzen ere, aurreko edizioetan baino parte hartze handiagoa espero dute aurtengoan

Amaia Igartua. ELGETA.

Mendi Mendia Racing jaiak bere tokia hartu du herriko urteroko agendan, eta aurtengoa, hirugarren edizioa izango du. Otsailaren 9an izango da jaialdia, eta egun osoko egitaraua iragarri dute antolatzaileek.

Herriko zenbait gidari eta pilotu antolatutako jaialdia da, eta "gero eta jende gehiago hartzen du parte", adierazi du Mikel Beretxinagak, antolatzaileetako batek.

Egun osoko egitarau oparoa iragarri dute hirugarren edizio-rako: izango ditu auto erakusketa, triki-poteoa, talde argazkia, bazkaria eta kontzertuak –Barne Guda, Demencials eta Brigade Loco–.

Mendi Mendia Racing jaiaren lehenengo edizioan, 60 pertsona elkartu ziren mahai-inguruan. Hirugarren edizio honetan, 100 pertsona baino gehiago aurrekusten dituzte jaialdiko antolatzaileek. "Bazkarirako 100 txartel saldu ditugu jada eta kontzertuetarako ere 100 inguru", argitu du Beretxinagak.

Txartel salmentaz gain, kamisetak ere jarriko dituzte salgai. Gaur, arratsaldeko zazpietatik aurrera, herriko plazan eskuratu ahalgo dira. "Hurrengo larunbatean jendea kamisetarekin etortzera animatzen dugu", esan du Beretxinagak.

Jaialdian bildutako dirua bideratuko dute lehiaketetara laguntzera hurbiltzen diren adiskideen dietak eta autoaren bestelako gastuak ordaintzera.

Txartel salmenta

Otsailaren 5a da txartelak erosteko azken eguna. El Rincon de Lolan, Bergarako Arranoan edo 608 67 64 42 telefonora deituta eskuratu daitezke.

Bazkariko txartelaren prezioa –kontzertuen sarrera barne– 16 euro da. Kontzertuen sarrera, berriz, 5 euro.



Auto erakusketa, iazko Mendi Mendia Racing jaiaren. IMANOL SORIANO

"Belaunaldi berrietan geroago eta zaletasun handiagoa dago"

MIKEL BERETXINAGA MENDI MENDIA RACING

Zenbatero osatzen duzue Mendi Mendia Racing?

Guztiak elkartzen garen lasterketetan, hamabost lagun inguru biltzen gara asistentzian.

Zein lasterketa duzu gustukoena?


Nire gustukoena Saronen dago, Kantabrian. Maila nazionalako lasterketa da. Bi urtez joan gara jarraian eta postu onak lortu ditugu; koparen bat ere ekarri dugu handik.

Debagoienera antolatzen diren lasterketen gainean zer diozu?

Nire ustez, orain, gutxi egiten dira. Igoerak besterik ez da gelditzen: Goriakoa, Udanakoa eta, berriena, Udalakoa.

Badago zaletasunik gure eskualdean?

Bai; belaunaldi berrietan gero eta zaletasun handiagoa dagoela esango nuke.



L.Z.

Badago zure moduko autoendako tailerrik Debagoienera?

Gu saiatzen gara konpontzen, baina tailerrek beti daude laguntzeko prest.

Egingo dituzuen lasterketen planifikaziorik egiten duzue?

Lasterketa pare bat egiten ditugu, eta, horien arabera, gainontzeak erabakitzen dira. Aurtengo helburua rally egitea da, Euskal Herrian sei egingo baitira.



Eva Laorden, Oliver Magoa eta Liuba Burianska. OLIVER MAGOA

Oliver magoaren ikuskizuna bihar, zapatua, Espaloian

'Balore magikoak' ikuskizuna eskainiko du Oliver magoak zapatuan, Espaloia antzokian, 16:30ean

A.I. ELGETA.

Antzerkia, magia, musika eta umorea uztartzen dituen ikuskizuna eskainiko du Oliver magoak zapatuan, arratsaldeko lau eta erdietan.

Balore magikoak ikuskizunean, bestelako ikuspuntu batetik lantzen du magia Oliver magoak. "Balio desberdinak sustatzea helburu duen ikuskizuna da, hala nola errespetua, migrazioa eta elkartasuna", adierazi du magoak.

Sarrerak www.kulturhiru.eus eta www.elgeta.eus atarietan eskuratu daitezke. Salmenta fisi-

koari dagokionez, berriz, El Rincon de Lola jatetxean (Elgeta) eta Eruan (Bergara), Irati (Arrasate) eta Kultu (Eibar) tabernetan daude eskuragai.

Ibilbide oparoa

Oliver magoak 15 urte daramatza magiaren munduan. Formatu askotariko ia 200 ikuskizun eskaintzen ditu urtean.

Elgetan eskainiko duen *Balore magikoak* ikuskizuna ume zein gurasoei zuzenduta dago eta bere eskaintzako "ikuskizun nagusia" dela azaldu du magoak berak.

GORA ETA BEHERA



Domingo Iturben isuritako errautsak

Argazki bat iritsi zaigu erredakziora kexa bat azaltzeko. Domingo Iturbe kalean norbaitek zakarrontzia hustu, eta errautsak eta zigarro-mutxikinak bota ditu lurrera.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Oihana Elortza OÑATI

Otsailaren 13an beteko dira 45 urte Tximist espedizioa Madrilgo aireportutik abiatu zela. "1974an egin genuen lehen saiakera eta 1980an gailurra. Bi irteera izan ziren, baina espedizio bakarra. Horrela ikusten dut nik", dio Felipe Uriartek (Pasaia, 1941), bietan parte hartu zuen mendigoizaleak.

Tximist

30 urte zituen Felipe Uriartek Everest-erako (8.848 metro) lehen euskal espedizioan, 1974an; taldeko gazteena zen. "Urte batzuk lehenago, Andeetan ibili zen euskal talde bat, hango mendietan, eta haiei bururatu zitzairen Everestera joatea. Orduko hartan parte hartu zuen Rodolfo Kirch-ek gonbidatu ninduen ni eta baiezkoa eman nion, noski. Mendira joateko hegazkina hartzen nuen lehen aldia zen; ordu arte, auto-stop egiten joaten nintzen. Eta hegazkinak zeharkatzen zituen lurralde haietan zein paraje eder egongo ziren pentsatzen egin nuen bidaia osoa".

Espedizio hartan parte hartu zuen inork ez zuen aurretik 7.000 edo 8.000 metroko mendirik egin, baina ez ziren itsu-itsuan joan. "Europan, pertsona gutxi zeuden ordurako Everesten izandakoak, baina batzuekin berba egitea lortu genuen eta ahalik eta informazio gehien batu genuen. Taldekide bakoitzak bagenuen gure eginbeharra bidaia antolatzeke; nik neuk, esaterako, janariaz, jatekoaz, arduratu behar nuen", du gogoan Uriartek. Egitaraua egin, kontuak atera eta dena aurreikusit moduan joan zela dio.

1974ko otsailaren 13an abiatu ziren Madrilgo aireportutik eta maiatzaren 13an saiatu ziren Rosen eta Uriarte tontorrera heltzen. "Orduan, ez zegoen eguraldi iragarpenik, Internetik ere ez genuen ezer kontsultatzeko. Eta biko taldeak egiten genituen; txandaka joaten ginen. Anjel Vallejo Rosen-ek (Biarritz, 1942) eta biok osatzen genuen soka talde bat eta guri egokitu zitzaigun egun hartan tontorrerako bidea hartzea. Ez genuen lortu, baina lo-zakuak, denda, janaria eta gasa kanpaleku hartan utzi genituen hurrengoendako. Beste hiru saiakera egin ziren, baina eguraldi txarrarekin egin zuten talka eta ez ziren goraino



Felipe Uriarte Himalaiako mendien argazkia eskuan duela Atzeko kalen. IMANOL SORIANO

Everest igotzeko lehen saiakera

Aurten dira 45 urte Tximist espedizioa abiatu zela Euskal Herritik Himalaiara, Everestera. Jaitsi eta berehala eskatu zuten berriz joateko baimena. 1980an egin zen bigarren euskal irteera. Talde bietako kide izan zen Felipe Uriarte

heldu". Rosen eta biak 8.530 metroan zeudela haizea atera zen eta lainoak ekarri zituen. "Zorrite onik ez genuen izan, goiz hartan eguraldia zapuztu egin zelako. Orain, ordura begira jarrita, uste dut Rosenek eta biok ez genuela mendigoizaleen sena izan. Egund hartan goraino joateko ahalegina egin izan bagenu, bi aukera genituen gailurra egiteko: egun hartan bertan, edo behera jaitsi, gaua han pasa eta hurrengo goizean berriz saiatu. Baina ez genuen hori egin, han gelditu ginen gaua igarotzeko, eta aukera bakarra izan genuen. Pena. Orduko oxigeno botilek ere ez zuten ahalmenik tontorreraino joan eta jaisteko, gastatu egiten ziren. Gainerakoan, oso ondo joan zen dena, aurreikusit moduan eta inolako istripurik gabe. Eskumako eskuan bi izozketa txiki baino ez nituen izan nik".

Jaitsiera ez zen gozoa izan. Hego hegalerara jaitsi ziren. Eguraldia txarra zen, haizea indartsu zebilen eta denda asko apurtu zituen. "Gelditzen zen azken dendan sartu ginen eta tapatu ginen beste denda baten zati batekin. Oxigeno botila bat topatu genuen eta hura partekatzen genuen Rosenek eta biok. Lozakurik gabe geunden, hotz genuela. Oxigenoa hartzea tokatzen zitzaigunean, lo gelditzen ginen; bat lo seko eta bestea hotzak", gogoratzen du Uriartek.

Oñatiko Cegasa enpresak jarri zuen dirua Everesteko lehen espedizioaren izena. "Gailurra egin edo ez, marketin moduan hartu zuten irteera. Bigarrenerako, baina, erabaki zuten ezetz. Baina bi milioi eman zizkiguten, hasteko. Egia esan, ez dakit zehazki Cegasak edo zuzenean Juan Zelaia. Euskaltzalea, abertzalea eta independentista zen Zelaia. Bere gogoan zen ikurrina bat jartzea lurreko tontorrik altuenean. Garai hartan, gutxi ziren euren bandera gailurrean jarri zuten herrialdeak, bakarrik lau, eta gura zuen bosgarrena Euskal Herria izatea. Beraz, alde batetik bazegoen enpresa interes bat, baina baita politikoa ere, garbi", dio Felipe Uriartek.

Zabaleta eta Arrue

1980an iritsi zen Everesteko gailurrera euskal espedizioa. Martin Zabaletak (Hernani, 1949) lortu zuen tontorra iris-

Oñatitik Annapurnara trekkinga egitera

Euskal espedizioak 1980an Everesteko gailurra egin baino urtebete lehenago, 1979an, trekking bat egitera joan zen hogeit bat laguneko talde bat Annapurna ingurura, Felipe Uriarte gidari zutela. Tartean ziren lau oñatiar: Begoña Ugarte, Mertxe Arregi, Iñaki Zabala eta Luxio Ugarte. Baita kale Zaharreko farmaziako Xabier Barrenetxea soraluzetarra eta haren lagun Agustin Txurruka eta Juan Rodriguez *Juanillo*. "Gutaz gain, Donostiakoak, Iruñekoak eta Madrilgoak ere baziren taldean. Ikaragarria izan zen irteera hura. Hilabetekoa izan zen; hiru asteko trekkinga egin genuen. Gurekin batera zamaketariak eta sukaldariak ere baziren. Kanpin



Oñatitik joandako Barrenetxea, Arregi eta Ugarte Annapurnan 1979an. F.U.

dendetan egiten genuen lo; hiru aste haietan, oker ez banago, gau batean bakarrik egin genuen lo ostatuan. Felipe Uriarterekin joan ginen. Oso aberasgarria izan zen. Paisaia haiek eta hango jendeak,

herritarrek, mundua ikusteko edo bizitzaz disfrutatzeko beste ikuspegi bat zabaldu zitaten", kontatzen du irteera hartan parte hartu zuen Begoña Ugarte oñatiarrak.



Euskaldunak trekking-a egiten Annapurnan 1979an. FELIPE URIARTE



Egurrezko zubiak. FELIPE URIARTE



Nepago zamaketaria. TXIMIST ESPEDIZIOA



Tzin Dtroma xerpa. TXIMIST ESPEDIZIOA

tea, Pasang Temba xerpa lagun zuela.

Zortea izan zen bigarren irteera hartan aldatu zen gauza bakarra ala egon zen gailurra ahalbideratu zuen beste prestaketa ere? Uriarteren ustez, bai, zorte hobea izan zuten urte hartan sei urte lehenago baino. "Egia da bitarteko urte haietan guk ere irteera gehiago egin genituela goi mailako mendietara. Esperientzia handiagoa genuen, baina prestaketa antzerakoa izan zen. Bitarteko urte haietan, Martin Zabaleta, Ricardo Gallardo (Donostia, 1941) eta hirurok Perun izan ginen eskalatzeko. Baita Alpeetan eta Himalaiako mendi zailak egiten ere. Teknikoki prestatuagoak geunden, bai. Oxigeno botilek ere bazuten gaitasuna hego hegaletik goraino joan eta jaisteko, eta garrantzitsua zen hori ere. Beraz, baliabideak eta materia-

"IKURRINA TONTORREAN JARTZEAK BAZUEN INTERES POLITIKOA"

FELIPE URIARTE

lak hobeak ziren, bai, eta urte hartan eguraldia alde genuen. Martin Zabaleta indartsu zegoen, eta, eguraldi on hura aprobetxatuta, tontorra egin genuen".

1980ko euskal espedizio hartan hartu zuen parte Juan Ramon Arrue oñatiarrak ere. "Gaur egun, espedizio bat baino gehiago egoten dira batera inguru haietan eta 500 lagunetik gora elkartu daitezke kanpamentu nagusian. Orduan, baina, askoz gutxiago ginen. Hamabiren bat izaten ginen hemendik joandako mendigoizaleak eta beste hamabiren bat edo, gutxi gorabehera, hangoak, xerpak. Guztira, 40 lagun inguru izaten ginen. Jendea etortzen zen arrautzak ekartzera, irratiz ere berba egin behar zen... Arrue ez zen mendira igo, baina kanpalekuko antolaketaz arduratu zen, dena koordinatzeaz, oinarrizko kanpalekua gobernatzeko. Beharrezkoa zen lan hura ere, erabat".

Oñatiarrak

Espedizio hura gertutik jarraitu zuen Begoña Ugarte oñatiarrak. Aurreko urtean, 1979an, Martin Zabaletarekin egin zuten topo Annapurnan. "Gu hilabe-

terako joan ginen inguru hartara trekking bat egitera. Gogoan dut Martin Zabaleta eta bere taldekideekin elkartu ginela han. Annapurnako gailurra egiteko saiakera egin zuten eurek, baina ez zuten lortu goraino heltzea. Hurrengo urtean, baina, munduko tontorrik altueneraino iritsi ziren", gogoratzen du.

1979an hasi zen lanean Ugarte Cegasan, eta, abuztuko oporrak urrian hartu eta Annapurnara trekkinga egitera joan zen herriko jaietan. "Soraluzeko lagun batzuekin joan ginen lau oñatiar. Urbian, Aizkorri eta inguruko mendietan ibilitakoak ginen, baina inoiz ez 5.000 metrora. 23 urte nituen nik; argazki kamerarik ere ez nuen orduan hara eramateko. Izugarriko esperientzia izan zen. Harrezkero, beste seitan egon naiz Himalaiako trekkingak egiten", dio Begoña Ugarte oñatiarrak.

"KANPIN DENDAK, SUKALDARIA... DENA ERAMAN GENUEN LEHEN TREKKINGEAN"

BEGOÑA UGARTE



NIRE USTEZ

XABIER IGARTUA

Hogeita zazpi

Kaixo, Joseba.

Bada marka! Otsailean sartu berritan, martxo burutik kendu ezinka nabil. Ez da Inauteriak gustuko ez ditudalako, ez; bi data berezi datozelako baizik: urteak beteko dituzun eguna, bata; ospatzeko ezer ez duena, bestea.

73 urte betetzera doan besteren bat imajina dezaket, sentsazio gazi-gozoz. Zahartzen ari denaren gaziaz eta urte horietan guztietan bizitakoaren gozoaz. Zer esan, baina, azken 27 urteak ziega zuloan pasa dituenak? Borroka armatua desagertuta espetze politika guztiz aldatuko zela zioten. Ez da horrela izan, ordea. Legeak dioenaren kontra, 70 urteak aspaldi atzean utzita, preso jarraitzen duzu. Gauzak horrela, 27 atxilo urtetara iritsiko zinateke, horiek guztiak Oñatitik urrun, etxeokengandik aparte, eta, hala ere, nahikoa ez espetxeetako giltzen jabe direnentzat. Ase ezineko mendeku gosea. Zenbat gehiago, baina? 73 urte beteko dituzu, eta gertukoekin etxean ospatzea dagokizu. Dagokizue. Aske, Xabier, Xabin, Anjel eta beste guztioi bezala. Berandu baino lehen, gainera.



Edurne Urteaga, Madrilen egin den Fitur azokan, joan den astean. OINATUR

Ideia berriekin etorri dira Madrilgo Turismo Azokatik

Txakurrekin datozen turistendako aukerak nola eskaini izango da landuko duten gaitako bat

O.E. OÑATI

Madrilen urtero egin ohi den Fitur Turismo Azokan egon dira aurreko urtean Oñatiko ordezkariak. Ana Martín –Sozioekonomia zinegotzia–, Ikerne Altube –Oñatiko Turismo eta Garapen Agentziako arduraduna– eta baita Turismo Bulegoko eta Arrikruetzeko zerbitzuak ematen dituen Oinatur kooperatibako ordezkariak ere.

Aurreko urteetan bezala, azokako nobedadeak ezagutu eta Oñatin zer dagoen erakustea izan da Fiturren egin dutena. "Euskadik izan duen standean

eman dute, esaterako, Oñatiko berri, eta 2019rako zer landuko duten ikusi dugu. Adibidez, txakurrekin etortzen diren turistendako eskaintza landuko dute eta Oñatin hori nola egin ere aztertuko dugu", dio Oinatur kooperatibako Edurne Urteagak. Eta gaineratu du: "Ideia horiek hona ekarri eta hemengoekin berri beste batzuei ematen ibili gara; Espainiako Estatuko agentzia ezberdinei, adibidez. Bizpahiru bilera egin ditugu, eta, horiez gain, jende askorekin hitz egin dugu. Ea, ba, Oñati ezagutzera etortzen diren".

Baratzeko Pikua umeen erabilerarako prest dago

San Martin auzoan eraiki dute jolasgune berria eta bi zatitan dago banatuta: goiko aldean, hosto iraunkorreko arteak eta gerezio japoniarrak daude eta behean berriz, landareekin, urarekin eta harearekin jolasteko espazioa sortu da

Maialen Regueiro OÑATI

San Martin auzoko bi etxebizitzaren eraikinen artean zegoen belardi zatiari erabilpena emateko asmoz, Udala Iñigo Seguroarekin jarri zen harremanetan. Udalak bere aukerak zeintzuk ziren adierazi zion Sarasolari, eta, handik aurrera, *Olaran paisaia* izeneko dokumentua lantzeari ekin zioten. Hala, martitzenean aurkeztu zuten Baratzeko Pikua jolasgune berria, eta umeentzako erabilgarri dago dagoeneko.

Jolasgunearen ezaugarriak

Iñigo Seguroak eta bere lantaldeak diseinatutako jolasgunea da: "Diseinua egiteko, ume batek kanpo gune batekin nola disfrutatuko lukeen pentsatu nuen eta bururatu zitzaidan lehenengo ideia zuhaitz bat izan zen". Pikondoa da ume bat errazen igo dezakeen zuhaitza eta hori izan da proiektuaren ardatza. Are gehiago, jolasgunearen izena ere hortik dator.

Jolasgunea bi zatitan dago banatuta: goiko aldean, hosto iraunkorreko arteak eta gerezio japoniarrak daude, eta horiek fruitua ematen hasten direnean jateko aukerarik ere izango da. Beheko aldea, berriz, jolasteko espazioa izango da,



Hainbat udal ordezkari eta Iñigo Seguroa, Baratzeko Pikuan. M.R.

landareak, ura eta harea dituen besteak beste. Horrez gain, gune berri horrek txirrista, rokodromoa, arbela eta *tipi* bat ditu.

Koloreek ere garrantzia dute jolasgune horretan. Izan ere, "gune hau alternatiboa den heinean, dituen koloreak ez dira ohiko jolastoki baten ikusi daitzkeenak". Kasu honetan, beltza eta zuria erabiltzearen aldeko apustua egin da, horia, berdea edota gorria ekiditeko asmoz. Emaizta baloratze aldera, Seguroak aipatu du "zuria eta bel-

tzaren nahasketarekin, jolasgunea integratuta" geratu dela inguruko etxebizitzek dituzten koloreekin.

Umeen erabilerarako diseinatua
Gunearen sarreretako batean espazio hori erabiltzeko gomen-

OHIKO PARKE BAT ERAIKITZEA SAIHESTUZ, ESPAZIO HORI ELEMENTU NATURELEZ OSATU DA

dioak aipatzen dira taula informatibo batean. Bertan aipatzen da, besteak beste, jolasgune hori ez dela ohiko espazio bat eta jolasteko beste modu bat bilatzen dela. "Gainontzeko parkeetan gurasoak umeen gainean egoten dira une oro, eta hemen, beste jarrera bat bilatzen da; alegia, gurasoak barandak dauden lekuan egotea, umeek egiten dutena ikusten".

Balorazio positiboa

Aurkezpenean izandako udal ordezkariak eta Seguroak berak balorazio positiboa egin zuten Baratzeko Pikuaren emaitza ikusi ostean. Seguroak hauxe adierazi zuen: "Paperean diseinatutakoa errealitatean ikustea izugarria da eta emaitzarekin pozik nago". Horrez gain, aipatu zuen udaberrian jolasgune itzuliko dela, landutakoak emandako fruituak ikustera.

Mikel Biain alkateak, bestalde, ontzat jo zuen Seguroak eta haren lantaldeak proiektu horretan egindako lana. Horrez gain, Biainek honako hau azpimarratu zuen: "Parke berezi bat da eta Udalak hasieratik argi izan du ohiko beste jolastoki bat ez zela egingo; hau da, elementu naturalekin osatutako jolasgune bat eraikitzea nahi zen". Elementu naturalak erabiltzearen arrazoia hau dela adierazi zuen alkateak: "Umeak elementu naturalekin eta naturarekin harremanetan egotea ezaugarri garrantzitsua dela uste dugu, umea ume izan dadin". Baratzeko Pikua errealitate bihurtuta, etorkizunean eraikiko diren jolasguneentzat abiapuntu izan behar duela eta ildo beretik jarraitu behar dela adierazi zuen Biainek.

Urtaza eta Juanitosa denda historikoek ateak itxiko dituzte

Duela hilabete batzuk, Kale Barriko Urtaza mertzeriak itxiera iragarri zuen, ehun urte baino gehiagoko zerbitzua eman ostean.

1911n ireki zituen ateak Kale Barrira eta Atzeko kalera ematen duen Juanitosa dendak, eta, ehun eta zortzi urte beteta, dendaren itxiera iragarri dute sare sozialetan. Itxieraren arrazoiaren artean daude, besteak beste, erretiroa, zahartzarua eta online mundua. Hain zuzen, produktu asko, eta askotarikoak, saldu ditu negozio horrek eta mostradore atzean izan ditu familia bereko lau belaunaldi.

Juanito izan zana eta *juanitoziena* egituretatik dator dendaren izena, haren alargunak, Josefa Antonia Garitanok, ireki zituen-eta ateak. Hasiera batean, jostailuak saltzen zituzten, baina, modak aldatzen joan diren heinean, gizartearen joera berrietara egokitu dira. Juanitosak ez du itxiera datarik iragarri, baina produktuen likidazioari ekin dio.

Hainbat ekintza San Blas eta Santa Ageda egunak ospatzeko

San Blas eta Santa Ageda egunen baitan, hainbat ekintza egingo dira. Lehena gaur izango da, 17:00etatik 19:00etara bitartean, Lagun Leku erretiratuen lokalean: ezarrirako lokarri bedeinatuak hartzeaz gainera, bi euroren truke San Blas opilak txokolate eta karameluarekin gozatzeko aukera egongo da.

Horrez gain, igandean, 2001ean jaiotakoek kinto-batzea egingo dute herriko kaleetan zehar. 100 gazte inguru irtengo dira, Bizipoz Kafena hasita, eta Santa Marina eta Errekalderako bidea hartuko dute. San Lorentzon, San Martinen eta Bidebarrietan izango dira, besteak beste. Bazkaldu Etxe Aundi jatetxean egingo dute.

Santa Ageda egunaren baitan, eta urteroko hitzordua erreplikatzu, astelehen goizean, 10:00etan hasita, Aloña abesbatzako kideek Santa Ageda bezperako kantuak abestuko dituzte, San Martin egoitzan hasi eta Foruen plazaraino.

Aisialdirako berritasunak

Herriko hainbat jolasgune berritzeko asmoa du Udalak. Kasablanka auzoko parkean, besteak beste, berritasunak egin dituzte, bi ziburu, txirrista bat, saskiak eta ateak dituen kantxa txiki bat eta ping-pong jolaserako mahaia jarrita.

Ugarkalde auzoan dagoen jolastokia estali egingo dute –partaidetzako aurrekontuetan erabakita–, baina proiektu hori

2020ko aurrekontuetan sartuko dute.

Aisialdirako beste berritasunen artean, skate pista ondokoa aipatu behar da. Izan ere, Udalak parkourra egiteko oztopo izango diren horma antzekoak jarri nahi ditu. Era horretan, Enpresagintza Fakultatearen aurrealdean kirol hori praktikatu ahal izateko espazio bat sortuko dute.



Kasablanka auzoko parkea. OIHANA ELORZA



2017ko *Argi Arantzazu* erakusketa. ILUNPETAN ARGAZKI TALDEA

'Argi Arantzazu 2019'-k aurreikuspenak hautsi ditu

Ilunpetan Argazki Taldeak apirilaren 5etik maiatzaren 12ra bitartean ospatuko duen Argi Festibalaren baitan antolatutako egonaldi artistiko eta erakusketa deialdia da 'Argi Arantzazu 2019', eta dagoeneko itxita dago izen-ematea

Amaia Igartua. OÑATI

Argi Festibalak eta Arantzazu Gaur Fundazioak elkarlanean antolatutako *Argi Arantzazu 2019* deialdiaren izen-ematea itxi da urtarrilaren 30ean, eta aurreikuspen guztiak hautsi ditu.

Deialdi ireki formatuan egiten den bigarren edizioa izango da aurtengoa. Hain zuzen ere, Arantzazuko Gandiaga Topagunean erakusketa bikoitz batekin eta hamabost eguneko egonaldi artistiko batekin sarituko diren bi egile hautatuko dituzte.

"Argazkilaritza beste termino batzuetan ulertzen duen jendea-ri zuzenduta dagoen deialdia da aurtengoa. Kontuan hartuta hamabost eguneko egonaldi artistikoa gehitzen dela sarian, kontziente gara ez dela edonoren eskura dagoen zerbait", azaldu du Itziar Bastarrrika argazkilaria eta Argi Festibalaren zuzendari artistikoak.

100 pertsonak baino gehiagok eman dute izena deialdian. "Aurreikuspenak bete, eta gaituztu

egin ditugu. Proposamen hau egitean, bagenekien afizionatu mailan lan egiten duen jende askori atea ixten genizkiola. Ez genuen inondik inora espero 100 izen-emetara iritsiko ginenik", azaldu du Bastarririkak.

Berrikuntza gisa, hautatuek bi lan-saio izango dituzte Juan Pablo Huercanosekin -Jorge Oteiza Museo Fundazioko zuzendariordea- eta Erika Goyarrolarekin -artearen historialaria eta komisario independentea-.

Gaia paisaia eta identitatea da. "Arantzazurekin eta bertako espirituarekin oso lotuta dagoen gaia da. Arantzazuk baduelako euskaldunon identitatean nola baiteko presentzia, eta paisaia, zer esanik ez, ez dago hitzik hori

**ARGAZKILARITZA
BESTE TERMINO
BATZUETAN ULERTZEN
DUEN JENDEARI
ZUZENDUTA DAGO**

azaltzeko. Inguruarekin lotzeko aukeraturiko bi kontzeptu dira", aditzera eman du Bastarririkak.

Arantzazu, artisten gotorleku

Arantzazu Gaur Fundazioarekin batera bultzatutako deialdia da. "Fundazioaren helburua Arantzazu dinamizatzea eta dinamika kulturaleri toki bat eskaintzea da. Basilikaren sorkuntzatik, artisten gotorleku izan da Arantzazu", azaldu du Juan Biainek, Fundazioko kudeaketa ardura-dunak.

Hastapen Ikastaroa

Otsailaren 11tik apirilaren 1era izango da argazkilaritza hastapen ikastaroa, astelehenero, 18:00-19:30 bitartean. Partaideen artean adostutako larunbat batean saio praktikoa egingo da.

Ez da ezagutzarik behar eta aukera manuala duen kamera eramatea gomendatzen dute. Prezioa 90 euro da eta izena ilunpetan@gmail.com helbidean eman behar da.

Oñatiko Bertso Txapelketa jokatu da, etenaldiaren ondoren

Bost urteren ostean, herriko bertso txapelketa jokatu da aurtengoa; hain zuzen ere, zazpigarren aldian izango du

Amaia Igartua OÑATI

Herriko Txinparta Bertso Eskolak iragarri duenez, aurtengoa jokatu da Oñatiko Bertso Txapelketaren zazpigarren edizioaren antolakuntza lanekin hasiak dira dagoeneko.

Martxo amaieran jokatu dira finalaurrekoak eta apirilaren 13an, Korrika herritik igarotzen den egun berean, arratsaldean, jokatu da herriko Bertso Txapelketaren finala. Bost urteko geldidunaren osteko zazpigarren edizioa izango da aurtengoa.

Azken edizioa

2014ko abenduan jokatu zen azkeneko Oñatiko Bertso Txapelketa. Herriko hamabi bertsolarik hartu zuten parte txapelketan orduan.

Bi kanporaketa eta finala izan zituen txapelketak. Lehen kanporaketa azaroan jokatu zen, gaztetxean. Bigarren kanporaketa, zazpi bertsolarik hartu zuten parte eta abenduaren 6an jokatu zen, Arranon.

Finala abenduaren 20an jokatu zen, gaztelekuan, eta Andoni Goitiak eraman zuen txapela.

Mekalki-Aloña Mendi, sailkapeneko gorengo postuari eustera

Mekalki-Aloña Mendi saskibalo taldeak Donostiako STL Azkune taldearen aurka jokatu du gaur, 20:00etan, Donostiako Santo Tomas Lizeoan.

Sailkapeneko gorenean daude Mekalki-Aloña Mendiko mutilak, hamaika garaipenekin. Horrenbestez, marka itzel horri eusteko asmoz, bosgarren sailkatuen aurka lehiatuko dira.

Aloñaak Ilintxaren aurka jokatu du domekan

Oñatiarrek aurreko asteburuan Aretxabaletako UDaren aurka lortu zuten garaipenaren ondoren, lehenengo postuetan mantentzeko helburuarekin Ilintxa SD taldearen aurka jokatu du Aloña Mendiko Erregional Preferenteko taldeak.

Asteburu honetako partidua Legazpiko Bikuña zelaian jokatu da, domekan, 16:30ean.

Portugaleteko puntuen bila doaz eskubaloiko neskek, bihar

Zubikoan Lauko Elgoibarren kontra galdu eta gero (17-31) animoa errekuaratu gura dute txantxikuek

X.U. OÑATI

Asteburuko kontrario Jarrileras talde bizkaitarrak Oñatikoek baino bi puntu gutxiago ditu sailkapenean, eta tarte hori handitzeko asmoz egingo dute bidaia Kortabarriaren neskek bihar (zapatua, 19:30) Portugaletera.

Talde bizkaitarrak azken bi partidua etetik kanpora jokatu ditu eta etxean -kanpoan ez moduan- sendotasun handia erakutsi dute, liga hasierako bi partidua baino ez dituzte portugaleten galdu. Baina, joan den astean bigarren sailkatu Elgoi-

barren kontra Zubikoan galdu eta gero, Aloña Mendikoek garaipen gosez joango dira Portugaletera.

Elgoibar indartsu ibili zen

Joan den astean Aloña Mendikoek ezintasuna sentitu zuten elgoibartarren aurrean. Hasieratik galtzen joan ziren oñatiarrek, nahiz eta lehenengo 40 minututan zortzi goleko aldeari eutsi zioten. Defentsan nahiko txukun ibili baziren ere, erasoan oñatiarrek min egiteko aukera txikiak izan zituzten.

Udalek euren sarituak erabaki dituzte DKSetarako

DKS SARIAK Debagoiena Kirol Sarietara begira, ibarreko udalek erabaki dute herrietako sariak nortzuek jasoko dituzten. Bestalde, publikoaren sarirako dagoeneko 1.700 lagun baino gehiagok eman dute botoa; otsailaren 8a da horretarako azken eguna

Xabier Urzelai ARRASATE

Otsailaren 13an Amaia antzokian egingo duten DKSen ekitaldiari begira, antolatzaileek aditzera eman dute banatuko dituzten hamalau sarietatik bederatziz zeintzuendako izango diren. Hain zuzen, Herrietako Sariak eman dituzte aditzera –ondoko taulan duzue zerrenda– eta udaletako ordezkariak arduratu dira sari horiek nori eman erabakitzeaz –Antzuola izan da salbuespena, herritarren esku utzi dute-eta erabakia–. Bide batez, publikoaren sarirako botazioak arrakasta handia izan du lehen astean, 1.700 boto baino gehiago jaso dituzte-eta *Goiena.eus* atarian.

Sariak errepikatzen aukera

Herri bakoitzak kirolari, kirol talde edo kirol eragile bat saritzeko aukera izan du, eta formula horrek aukera ematen du DKs sarietan herri guztiak ordezkatzeko. Hala, saritu horiek izango dira Dorletako



Alaitz Urkiolak jasoko du Antzuola saria, DKS barruan. ALAITZ URKIOLA

Ama Txirrindularitza Taldea (Leintz Gatzaga saria), Iñaki Uribeetxebarria (Arrasate saria), Odilo Vazquez (Aretxabaleta saria), Alaitz Urkiola (Antzuola saria), Iratxe Alonso (Elgeta saria), Martin Perez (Eskoriatza

saria), Oñatiko Espeleologia taldea (Oñati saria) eta Jone Oianguren (Aramaio saria). Hori horrela, Mikel Linazisorok eta Martin Perezek bi sari jaso dituzte, publikoaren sarian ere hautagaien artean daude eta.

Gipuzkoako errekorra ondu du Dapenak 5,26ko markarekin

ATLETISMOA Duela 23 urte Jon Karla Lizeagak ezarritako marka gainditu du arrasatearrak –zentimetro bat hobea–

X.U. ARRASATE

2018an lesioek ez zioten utzi Istar Dapenari nahi moduko errendimendua izaten, baina Realeko atleta arrasatearrak motibatuta hasi du pista estaliko denboraldia, eta dagoeneko hasi da emaitzak batzen. Izan ere, joan den astean Anoetan egin zituzten parte-hartze libreko saioetan, Dapenak 5,26 metroko salto egin zuen pertikarekin, eta, bere irakasle Jonathan Perez gainditzearekin batera, Gipuzkoako inoizko marka onena –pista estalian– ere ondu



Istar Dapena. ARRASATE KANPANZAR

zuen; hain zuzen, Jon Karla Lizeagak 1996an egin zuena.

Aire librean ere Gipuzkoako errekorren jabe da Dapena. 5,31ko marka lortu zuen duela bi urte, eta horregatik jaso zuen iaz Gipuzkoako Federazioaren eskutik Urrezko Ezkurra saria.

Alex Agirianok 7,20ko marka

Bestetik, Arrasate Kanpanzar taldeko Alex Agiriano eskoriatzarrak 7,20 metroko marka egin zuen joan den astean luzerajauzian, 20 urtez azpikoetan. Jauzi ikusgarria da, baina Espainiako Federazioak 7,30 metroko gutxieneko marka eskatzen du Minks-en (Errusia) jokatu duten 20 urtez azpikoen luzerajauzi topaketara joateko. Hori gertatzen dihardu Agirianok, hain zuzen ere, Mikel Uribealongo entrenatzailearekin.

Herri bakoitzeko sariak

LEINTZ GATZAGA SARIA

- **Dorletako Ama Txirrindularitza Elkarteari** 40 urte baino gehiagoko ibilbideari merezitako aitortza.

ARRASATE SARIA

- **Iñaki Uribeetxebarria** Urteetan Arrasaten squasha –kirol minoritarioa izanda– sustatzeko egin duen ahaleginagatik.

BERGARA SARIA

- **Mikel Linazisoro** Nazioarteko txapelketa askotan podiumera igo zen iaz, eta gazteen Joko Olinpiarretan izan zen, Argentinan.

ARETXABALETA SARIA

- **Odilo Vazquez** UDA barruan karate saila sortu izanaren erantzule, herrian borroka arte hori sustatzeko egin duen ahaleginagatik jasoko du bere herriaren saria.

ANTZUOLA SARIA

- **Alaitz Urkiola** Euskal Herriko rally txapelketa Aingeru Castro gidariarekin batera. Hamaika lasterketa baino gehiago irabazi zituzten 2018an.

ELGETA SARIA

- **Iratxe Alonso** Mendi lasterketetan azken urtean izan duen ibilbideagatik. Hamar onenen artean izan da proba askotan.

ESKORIATZA SARIA

- **Martin Perez** Gupil aulkiko saskibaloia liga gorenean jokatu du, Gasteizko Zuzenak taldearekin. Europako 22 urtez azpiko Europako txapelketan brontzea irabazi zuen abuztuan.

OÑATI SARIA

- **Amet taldea** Oñatiko espeleologia taldeak 50 urte betetzen dituelako sarituko dute.

ARAMAIO SARIA

- **Jone Oianguren** Izotz hockeyan jokatu du, Gasteizko Sumendi taldean, eta selekzioarekin ere jardun du dagoeneko.

"Partidu bakoitza finala balitz bezala zelairatu behar dugu"

FUTBOLA Aretxabaletako kapitain Iker Arriolabengoak erreakzionatu beharra daukatela nabarmendu du

X.U. ARRASATE

Joan den astean Beti Gazteren kontra kolpea jaso eta gero, Ohorezko Erregional mailako Aretxabaletako kontrario zuzen Elgoibarren zelaia bisitatu du asteburuan. Bi taldeak dabilta jaitziera postuetatik urrunduz guran, eta astelehenean *Harmailatik* saioan Iker Arriolabengo kapitainak aitortu zuen "espabilatu" beharra daukatela: "Bigarren itzuli ia osoa geratzen zaigu aurretik, baina geratzen diren partiduak finalizat hartu behar ditugu. Dina-

mika positiboan sartzea komeni zaigu, baina taldea batuta dago eta lanean jarraituta etorriko dira emaitzak".

Mondrak etxean jokatu du

Zuri-moreek, berriz, etxean jokatu dute. Azken bost partiduetan garaipen bakarra eskuratu, zuri-moreek aurreko postuen borrokan egoteari utzi diote. Laugarren dagoen Tolosa hartuko dute bihar Mojategin. Azkenik, seigarren dagoen Murtikuren zelaian jokatu du Bergarak.

Bailara erreferente da Emakume Master Cup-en

PILOTA Joan den astean Galdakaon hasi zuten txapelketan Debagoieneko 17 pilotari izan ziren lehian. Hemezortzigarrena Arrate Bergara bergararra da, baina lehenengo mailako pilotariekin jardungo du; horiek asteburuan hasiko dute txapelketa, Murgian

Xabier Urzelai ARRASATE

"Zuen bailaran sasoiko zaudete, hamazortzi pilotari izango dira eta Emakume Master Cup txapelketan. Eta deigarria da Oñatiren kasua, Bartzelonarekin batera Oñati da eta txapelketan pilotari gehien dituen: hamabi, guztira". Txapelketako antolatzailerik GOIENARI esandakoak dira, txapelketaren atarian. Hala, joan den astean Galdakaon lehenengo jardunaldia jokatu, hamazortzi pilotari horietatik hamaikak egin dute aurrera.

Hirunako multzoetan

Txapelketako kanporaketak hirunako multzoetan antolatu dituzte. Galdakaoko partiduetako batean, Bergara eta Oñati izan ziren aurrez aurre, eta Reyes Azkoitiak eta haren alaba Jaxone Larrañagak tanto bateko aldeagatik irabazi zieten Irati Usandizaga eta Nerea Uriarte txantxikuarrei (18-17). Multzo horretako hirugarren bikoteak erakutsi zuen beste maila batean dagoela, eta erraz irabazi zituen Oñatikoen eta Bergarakoen kontrako partiduetan (2-18 eta 18-5). Hala, bergararrek eta berastegiarrek egin dute aurrera, eta oñatiarrak kanporatuak izango dira.

Oñatikoak Oñatikoen kontra

Lehenengo taldeko kanporaketan, berriz, herrikideen arteko lehian izan zen. Eta hor, Oihane Aizpuruak eta June Ugartek 18-11 irabazi zieten Eider Quintasi eta Jaione Urangari. Azken horiek galdu egin zuten multzoko hirugarren bikote Larrabetzuko eta Donostiako Sagarnaren eta Elorzaren kontra, eta horiek ere kanpoan geratu dira.

Eta bigarren taldean ere Oñatiko Irati Blazquezek eta Karmele Egañak osatutako bikoteak ezin izan du aurrera egin, Galdakaon jokatuak bi partiduetan galdu egin zituen eta.



Bergarako eta Oñatiko pilotariak aurrez aurre Galdakaon. EMAKUMEMASTERCUP

BAILARAKO HAMAIIKA PILOTARIK LORTU DUTE LEHENENGO KANPORAKETA GAINDITZEA

Beste sei bikotek aurrera

Gainontzeko partiduetan, Nerea Plazaola eta Eider Plazaola oñatiarrek galdu egin zuten Basauriko eta Andoaingo bikotearen kontra, baina hirugarren bikotea aurkeztu ez, eta aurrera egin dute. Maddi Berrokal bergararrak ere aurrera egin du Altsasuko Udane Bergara bikotekidearekin batera, eta Oñatiko Maddalen Etxegaraik eta Usue Osese ere aurrera egin dute, sopolarre irabazi (18-14) eta errioxarren kontra (16-18) galduta. *Dobletea*, berriz, Antzuolako Galeano ahizpa gazteek egin zuten; Leirek eta Nagorek lekeitiarrei 4-18 irabazi zieten, eta 18-2 Zamudioko bikoteari.

Azkenik, asteburuan Murgian lehenengo mailako pilotariekin hasiko dute txapelketa, eta hor Arrate Bergarak ordezkatu du Debagoiena.

Bailarako pilotariak Master Cupen

AURRERA EGIN DUTENAK

- Oihane Aizpuru Oñati.
- June Ugarte Oñati.
- Nerea Plazaola Oñati.
- Eider Plazaola Oñati.
- Jaxone Larrañaga Bergara.
- Reyes Azkoitia Bergara.
- Maddi Berrokal Bergara.
- Maddalen Etxegaraik Oñati.
- Uxue Osese Oñati.
- Leire Galeano Antzuola.
- Nagore Galeano Antzuola.

KANPORATUAK IZAN DIRA

- Eider Quintas Oñati.
- Jaione Uranga Oñati.
- Irati Blazquez Oñati.
- Karmele Egaña Oñati.
- Irati Usandizaga Oñati.
- Nerea Uriarte Oñati.

LEHENENGO MAILAN DABIL

- Arrate Bergara Bergara.

Oharra: Asteburuan hasiko du txapelketa.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONA.

Elgoibar-Aretxabaleta

Domeka. 17:00. Mintxeta.

Mondra-Tolosa

Domeka. 16:30. Mojategi.

Mutriku-Bergara

Zapatua. 16:30. Mutriku.

ERREGIONAL PREFERE.

Aretxabaleta-Beasain

Domeka. 16:30. Ibarra.

Zumaia-Mondra

Domeka. 15:30. Aita M.

Ilintxa-Aloña Mendi

Domeka. 16:30. Legazpia

LEHEN ERREGIONALA

Aloña Mendi-Ordizia

Domeka. 16:30. Azkoag.

Urki-Arizmendi

Zapatua. 18:00. Unbe.

Bergara-Zarautz

Domeka. 16:30. Ipintza.

EMAK. OHOREZKO ERR.

Lagun Onak-Bergara

Zapatua. 15:30. Azpeitia.

Urola-Leintz Arizmendi

Domeka. 12:00. Argixao.

EMAK. GORENGO MAILA

Mutriku-Aloña Mendi

Domeka. 16:30. Mutriku.

Bergara-Intxurre

Zapatua. 17:30. Ipintza.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELK.

Mondrate-Gernikako L.

Zapatua. 17:30. Musako.

Eskoriatza-Tolosala

Domeka. 18:00. M. Muñ.

Zirauntza-Aretxabaleta

Zapatua. 19:00. Araia.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

Eskoriatza-Euskalduna

Zapatua. 19:40. M. Muño.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELK.

Ugeraga-Ford Mugarri

Zapatua. 20:00. Urduliz.

Fagor Indus.-Siglo XX

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

EUSK. TXAP. EMAKUM.

Jarrilleras-Aloña Men.

Zapatua. 19:30. Portuga.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

Egia-Soraluce BKE

Zapatua. 20:15. Egia.

SASKIBALOIA

EBA

MU-Universidad Valla.

Domeka. 18:30. Arrasate

GIPUZKOAKO SENIORRAK

STL Azkune-Mekalki Al.

Gaur. 20:00. Donostia.

GIP. BIGARREN MAILA

Erroibide-B. Soraluce

Zapatua. 20:00. Irun.

EMAKUMEZKOAK

Bera Bera-Eskoriatza

Zapatua. 20:00. Donostia

GIMNASIA ERRITM.

Zapatua, 10:00etan

hasita, goiz eta arratsalde

Agorrosinen.

SASKIBALOIA MUK Valladolideko taldea izango du aurrean

Domekan (18:30, Iturribe) jokatuko du EBA kategoriako Mondragon Unibertsitateak Valladolideko Unibertsitatearen kontra. Arrasatekoek azken bi partiduetan Burgosen jokatu behar izan dituzte, eta emaitza ez da txarra izan, bi partiduetan horietako bat irabazi egin dute eta. Arrasatekoak seigarren postuan daude orain.

ARETO FUTBOLA Etxean dute lehian Mondratek eta Eskoriatzak

Euskadiko Txapelketan diharduten bi talde horiek etxean jokatuko dute 14. jardunaldiko partidua -ordutegiak, taulan-. Arrasatekoak hirugarren daude, eta lider dagoen Gernika hartuko dute. Eskoriatza, berriz, bigarren postuan dago, eta atzerago dagoen Tolosaren kontra jokatuko dute. Aretxabaletak Araian du hitzordua.

ESKUBALOIA Siglo XX taldeak ezin du ezustekorik eman

Euskadiko txapelketan ez dago hanka-motzik, baina sailkapenean azken postuan dagoen Siglo XX taldeak ezin du Zubikoan ezustekorik eman. Horretan ahaleginduko dira Fagor Industrialeko mutilak bihar (18:00). Ford Mugarri Arrasatek, berriz, Urdulizen jokatuko du bihar (20:00), kontrario zuzena den Ugeragaren kontra.

FUTBOLA Bergarak Lagun Onak aurreratu gura du sailkapenean

Joan den astean Realaren kontra porrot logikoa jaso ostean, Bergarako neskek erronka polita izango dute aurrean, sailkapenean postu bat gorago dagoen Lagun Onak-en zelaian jokatuko dute eta zapatuan. Leintz Arizmendik ere etxetik kanpora jokatuko du; Zumarragan jokatuko dute, domekan, Urolaren kontra.

Dantza tradizionalak eta neoklasikoa, eskutik

Maitasun istorio garratza kontatzen du Zuberoako Kompany Beritza elkarteak 'Üda batez' ikuskizunean, dantza neoklasikoaren eta Zuberoako dantzen nahasketaren bitartez; otsailaren 9an, zapatuan, 19:30ean, Amaia antzokian eskainiko dute

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

Aspaldikoa da Zuberoako eta Arrasateko euskalgintzaren arteko harremana. Orain dela 16 urte, Gabonetan Zuberoako ikastolen aldeko otarreak saltzen hasi ziren, eta harrezkero harremanak sendotzen joan direla kontatu du Arrasaten bizi den Renee Harbustan zuberotarrak: "Ikastolak eta, orokorrean, euskalgintzan jarduten dutenak oso eskertuta daude jasotzen duten laguntzagatik, eta, esker ona adierazteko, Arrasaten *Üda batez* dantza ikuskizuna eskaintzeko proposamena egin ziguten. Lehenengo ekimena izango da hori, baina udazkenean hego eta ipar Euskal Herriko dantzak eta bestelako kultura adierazpenak batuko dituen topaketa antolatzeko asmoa dago".

Zuberoako ikastolak eta Kompany Beritzak elkarlanean ekoiztu dute, eta euskal dantzak eta dantza neoklasikoa uztartzen ditu. AED, Portaloia, Geike, Lore Gazteak eta Arrostitz taldeen ekimenez, eta Udalaren laguntzarekin, otsailaren 9an eskainiko dute, Amaia antzokian, 19:30ean. Sarrerak *Arrasate.eus* atarian eros daitezke, 10 eurotan. Batutako diruaren zati bat Zuberoako ikastolei laguntzeko izango da.



Üda batez ikuskizunean parte hartzen duen lantaldea. KOMPANY BERITZA

"Bertakoekin, guztiendako"

Zuberoako kantariak, dantzariak eta artistak bultzatzen ditu Kompany Beritza elkarteak; honelaxe azaldu du elkarteak kide Johaie Etchebestek: "Helburu bikoitz bat lortzea irrikatzen dugu hastapenetatik gure elkartean: Zuberoako euskal dantza eskolen lana baloratzea, errepertorio berrietara irekita egonda, batzuetan klasikoak, eta baita sarritan garaikideak ere;

ZUBEROAKO DANTZAK ETA NEOKLASIKOA UZTARTZEN DITUEN 'ÜDA BATEZ' SAIOA AMAIA ANTZOKIAN

eta bestetik, Zuberoaren eta, oro har, Euskal Herriaren ezagutzan eta sustapenean parte hartzea".

Hogei urteko ibilbidean sei ikuskizun sortu dituzte. "*Üda batez* gure bigarren dantza ikuskizuna da. Martxoan egingo dugu azkeneko emanaldia, Maulen; 2018ko urtarrilean hasi ginen entseguekin eta urrian egin genuen lehen emanaldia; hasieratik adosten genuen amaiera-data, ikuskizunak bete-betean eragiten die-eta euren taldeen dinamiketan", dio Etchebestek.

Ohi duen moduan, ikuskizunaren prozesu guztia egin du Kompany Beritzak. "Joana Etxart bertako idazleari eskatu genion gidoia idazteko, pastoralak idatzi izan ditu. Pabio Lopez neoklasi-

ko estiloko dantzari eta koreografoari eman genion gidoia, gero. Eta aurrekoan moduan, herrietako dantza taldeen artean aukeraketa egin, eta hemeretzi hartu genituen; 18 eta 30 urte bitarteko dantzariak dira, oso onak, profesionalen maila dute".

Kantuan inspiratuta

Zuberoako *Goizean goizik* abesti zaharretik abiatuta idatzitako istorioa dela dio Etchebestek: "Protagonista nagusia emazte bat da, eta horrek badu lagun mina, baina jai batean banandu egingo da, beste batekin joango da, eta ezkondu gero. Lagun min ohiak ez du ondo hartuko eta pozoitu egingo du emaztearen senarra... Asmatutako ipuin bat da, baina mitologiako eta maskaradako pertsonaiak ere sartu ditugu. Bakarrrik dantzen bitartez kontatutako istorioa da, bukaeran aipatutako kantuari erreferentzia egiten badiote ere. Lopez Miarritzeko dantza eskolakoa da, neoklasikoa, erromantikoa, argiekin asko jolasten dute giro berezia eta bizia sortuz. Eta guk egin duguna da mundu hori nahasi egiten dakigunarekin, hau da, gure dantzekin. Ordu bat eta hamar minutuko emanaldia da".

Elkar ezagutzeko

Iparraldeko bira arrakastaz ari dira egiten, sei emanaldi egin dituzte, eta, amaitu aurretik, Arrasaten -hegoaldean egingo duten bakarra- eta, azkena, martxoaren 18an, Maulen. "Oso pozik gaude, aretoak bete egin ditugu. Publiko guztientzako modukoa da. Arrasateko emanaldia gure dantzariak bertakoekin egon eta elkar ezagutzeko baliatuko dugu, irailean egin gura dugun topaketarako hariak lotzen joateko".

Martxoaren 18tik apirilaren 17ra egingo dute Laburbira

Euskal film laburren zirkuitua eskaintzeko, otsailaren 7ra arte egin daiteke eskaera

A. A. ARRASATE

2018an zehar 29 film labur jaso zituen Euskaltzaleen Topaguneak Laburbiran, euskarazko film laburren zirkuitu ibiltarian, parte hartzeko. Horietatik, bederatzi lan aukeratu dituzte eta ordubeteko saioa osatu dute, eta laster herriz herri erakutsiko dute bilduma berria.

Aukeratutakoaren artean, Arrasateko Ane Zuazubiskarrek egin duen *Erroak* dago; zuzendari moduan egin duen lehenengo lana du, baina aurretik taldean hainbat film labur egindakoa da. Arrasatekoarekin batera, honako hauek osatzen dute aurtengo bilduma: *Begi ninien koreografia* (Arrate Fernandez); *Shell phone* (Miren Mujika); *Zapatak* (Irati Murua); *Ama* (Josu Martinez); *June* (Arantza Ibarra); *Hotzean garbitu* (Maddi Barrenetxea- Marta Teijeira); *Ihunpean* (Iker Maguregi eta Andrea Martinez) eta *Handiak eta txikiak* (Laida Ruiz).

Hamaseigarren Laburbira eskaini gura duten erakunde edo elkarteek otsailaren 7a dute azken eguna Euskaltzaleen Topagunea elkartera eskaera egiteko: leire@topagunea.eus helbidera idatzi edo deitu 674 34 57 56 telefonora.

JAUZI BAT, IZANGO BAGARA

GOIENA TELEBISTA, ERREPORTAJEA

BAGARA PROIEKTUAREN AMAIERAN, HONEK EGINDAKO IBILBIDEAREN ERREPASOA

OTSAILAREN 7AN, EGUENEAN, 21:00ETAN ETA 23:30EAN

BABESLEA:



goiena
Zu hemen zaude.



IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU
Aramaio.90 metro koadroko etxebizitza salgai erdiguñean. Hiru logela eta bi komun. Berokuntzarekin. Despenseta, terraza eta garaje itxia. Komunak izan ezin, dena kanpoaldera begira. 660 57 40 66 (Miren)

104. ERRENTAN HARTU
Arrasate. Arrasaten etxebizitza hartuko nuke errentan. 634 09 55 46

Bergara. Kaixo. 29 urteko neska bergararra etxera bila. Lanean nago kontratuarekin. 618 92 40 53

Oñati. 23 urteko gaztea pisukide bila etxebizitza bat errentan hartzeko. 697 46 13 53

Oñati. Oñatian apartamentu edo etxebizitza txiki bat hartuko nuke errentan. 32 urteko oñatiar langilea naiz. 688 67 94 67

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Logela behar dut errentan, erroldatu ahal izateko aukerarekin. 620 40 64 12

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garajea ematen da errentan, Arimazubi plazan. 615 50 88 15 edo 688 69 79 89

204. ERRENTAN HARTU

Oñati. Garajea hartuko nuke errentan, Errekalde auzoan edo inguruan. Telefonoa: 677 73 81 08

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate eta inguruak. Goizez edo arratsalde, hiruzpalau orduz, nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko gertu nago. 618 93 59 29 (Nora)

Arrasate. Asteburuetan nagusiak zainduko nituzke. 632 48 38 91

Arrasate. Asteburuetan nagusiak zainduko nituzke. 631 59 67 91

Arrasate. Nagusiak zaintzeko gertu orduka, egunez edo gauetz. Telefonoa: 603 25 79 96

Arrasate. Nagusiak zaintzen eta garbiketarako lan egingo nuke. 642 49 38 67

Arrasate. Neska ardura-tsua edozein lan egiteko gertu. 612 54 16 03

Bergara edo Arrasate. Gauetan lan egiteko gertu nago: pertsonak zaintzen, tabernak garbitzen eta abar. 616 20 49 83

Bergara eta inguruak. Mutila nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko gertu. 663 53 76 71

Bergara. Lan bila nabil. Umeak edo nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko. 600 02 74 13

Debagoiena. Arratsaldeetan edo asteburu zehar jaigunetan zaintza lanak egiteko gertu nago. 631 98 15 50

Debagoiena. Biltegiko lanetan, garbiketarako edota mantenu formazioa eta esperientzia daukan mutila lan bila. 688 84 25 92

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketara eta antzeko lanetan aritzeko. Telefonoa: 631 03 04 49

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbitasun lanak egiteko. Telefonoa: 688 20 93 63

Debagoiena. Emakumea nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia daukat. 688 73 10 25

Debagoiena. Esperientzia duen mutila gertu nagusiak zaintzen edota garbiketarako lan egiteko. 638 85 43 36

Debagoiena. Esperientzia duen neska etxean bertan bizi izaten lan egiteko gertu. 631 88 74 53

Debagoiena. Esperientzia duen neska gertu nagusiak zaintzen edota garbiketarako lan egiteko. Telefonoa: 654 11 15 14

Debagoiena. Esperientzia eta Eusko Jaurizaritza lantzerako baimena dituen neska nagusiak zaintzeko gertu. 602 64 68 17

Debagoiena. Esperientzia eta Eusko Jaurizaritza lantzerako baimena dituen neska nagusiak zaintzeko gertu. 643 52 80 95

Debagoiena. Esperientzia eta ohitura onak dituen neska, nagusiak eta umeak zaintzeko edota garbiketarako egiteko gertu. 631 09 46 89

Debagoiena. Esperientzia eta titulazioa dituen bertako neska, egunean zehar nagusiak zaintzeko gertu. 688 72 88 97

Debagoiena. Esperientzia eta titulazioa dituen bertako neska, egunean zehar nagusiak zaintzeko gertu. 688 72 88 97

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke garbiketara eta zaintza lanetan. 631 93 23 22 (Jessica)

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke garbiketara eta zaintza lanetan. Telefonoa: 631 19 12 64

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke garbiketara eta zaintza lanetan. Telefonoa: 651 67 60 48

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbitasun lanak egiteko. Telefonoa: 688 20 93 63

Debagoiena. Garbiketara eta zaintza lanak egingo nituzke, etxean bertan bizi izaten edo orduka. 631 86 08 30 (Maria)

Debagoiena. Gazte arduratsua eta zintzoa gertu egunean zehar etxera eta tabernatan garbiketarako egiteko, nagusiak eta umeak zaintzeko, sendagilearengana edota kalera lagundu eta abar. Telefonoa: 698 33 46 49

Debagoiena. Harreragile, dandari, tabernako zerbitzari zein ume eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 631 74 27 19

Debagoiena. Harreragile, dandari, tabernako zerbitzari zein ume eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 631 88 05 63

Debagoiena. Harreragile, dandari, tabernako zerbitzari zein ume eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 632 71 88 89

Debagoiena. Legezko agiriak eguneratuta daukan neska arratsaldetan edota asteburuetan lan egiteko gertu. Telefonoa: 662 02 45 80

Debagoiena. Lorezain eta baserriko lanak, zerbitzari edo sukalde laguntzaile moduan, pertsona nagusiak zaintzen eta erakuntza zein iturgin laguntzaile lanak egingo nituzke. 612 55 69 52

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Telefonoa: 695 40 56 65

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketarako egiten lan egingo nuke. Telefonoa: 631 19 58 88

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke gauetan edo asteburuetan. Telefonoa: 659 90 85 13

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edota garbiketarako lan egingo nuke. 662 25 27 26 (Gils)

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketarako lan egingo nuke. Telefonoa: 602 86 21 99

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketarako lan egingo nuke. Telefonoa: 679 30 12 37

Debagoiena. Neska gertu garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita atari eta abarrak garbitzen ere. 631 44 24 02

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Telefonoa: 603 64 98 53

Debagoiena. Neska gertu orduka nagusi eta umeak zaintzeko. Baita atari, taberna edota etxeak garbitzeko ere. 605 33 35 48

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzeko eta garbiketarako gertu gertu. 674 90 28 66

Debagoiena. Zerbitzari edo sukalde laguntzaile lan egingo nuke, pertsona nagusiak zaintzeko, baserriko lanak egiteko eta eraikuntza zein iturgin laguntzaile izateko prest. 632 62 76 07

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO
Arrasate. Batxilergoko lehenengo mailako ikasle bati matematikako eskola partikularrak emango dizkion pertsona bat behar dugu. 669 87 24 54

8. DENETARIK

808. BESTELAKOAK

Elkarkea Mendiolan. Mendiola auzoko erretegiak elkarkea gastronomiko bat egiteko asmatan ari gara eta beharrezko kopurua betetzeko, azken bazkidean bila gabilta. Interesaturik egonez gero, mendiolarkarzo@gmail.com edo 650 86 76 19 edo 628 44 00 49

ibargaral 3 • BERGARA Tel./Faxa: 943 76 97 97 www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI
BERGARA:
• Mendiveitia, 86 m², 2 logela, zeharo berrituta. Telakoa eta fuzado berrituta 145.000€.

IRAGARKIA JARTZEKO:

- 943 25 05 05
SAILKATUAK@GOIENA.EUS
WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Horrik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan beheara uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarki onorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

- ORDAINTZEKO ATALAK:
• Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldut. Denetarik/Saldut.
• Iragarriak Goiena paperean eta Goiena eus-en argitaratuko dira.
• Astebeteko prezioa: 20 euro 18 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
• Astebete baino gehiagor argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
• Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

ASTEAGOIENA TELEBISTAN



AINHOA TIRAPU ATEZAINARI ELKARRIZKETA
'Elkarrizketa' Egubakoitza, 21:30

bagara herrigintzan
GOIENA

BAGARAKO EKITALDIAREN LABURPENA

'Saio berezia' Egubakoitza, 23:00

Table with 3 columns: EGUBAKOITZA, 1; ZAPATUA, 2; DOMEKA, 3. Lists various programs and times.

ASTE BUKAERAN
BERGARAKO OSOKO BILKURA
'Osoko bilkura'
Zapatua, 14:00/ Domeka, 22:00

ASTE BUKAERAN
OÑATIKO OSOKO BILKURA
'Osoko bilkura'
Zapatua, 22:00/ Domeka, 14:00

EGUEN, 7
'JAUZI BAT, IZANGO BAGARA'
'Erreportajea'
21:00

OROIGARRIA


Pablo Riviere Aranda

2019ko urtarrilaren 29an hil zen, 50 urte zituela.

Asko izan dira elkarrekin pasatako momentu onak eta aurrerantzean horrela izango zaitugu gogoan, Pablo!

Zure Arrasateko kuadrilla:
Xabi, Luis, Josema, Lontxo, Tomy, Piti, Edu, Mikel, Raul eta Joxe.

Arrasaten, 2019ko otsailaren 1ean.



OROIGARRIA

Pablo Riviere Aranda

- Goian bego -

2019ko urtarrilaren 29an hil zen.

Nahiz eta gure artetik urrutira joan, beti izango zaitugu gure bihotzean.



Matz-Erreka Kooperatiba Elkarteko lankideak.
Antzuolan, 2019ko otsailaren 1ean.



OROIGARRIA

Pablo Riviere Aranda

(Ikastolako guraso izandakoa)

2019ko urtarrilaren 29an hil zen, 50 urte zituela.

Gure bihozmina adierazten diegu etxekoei.



Arizmendi Ikastolako langile, guraso eta kolaboratzaileak.
Leintz bailaran, 2019ko otsailaren 1ean.



OROIGARRIA

Karmelo Mendarozketa Heriz

2019ko urtarrilaren 26an hil zen, 82 urte zituela.

Karmelo joan jaku baina bere irribarrea beti gure bihotzean.

Bere familixiek.
Arrasaten, 2019ko otsailaren 1ean.



OROIGARRIA

Roberto Urzelai Martinez de Iturrate

2019ko urtarrilaren 23an hil zen, 55 urte zituela.

Beti izango zara gure oroimen eta bihotzetan.

Leguxka taldeko lagunak: Ivan, Yulia eta Nekane.
Oñatin, 2019ko otsailaren 1ean.



URTEURRENA

Maria Gamboa Murgoitio

2018ko otsailaren 1ean hil zen, 78 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 3an, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiaren.

Senarra: Luis. Semea: Iker eta Sonia. Bilobak: Danel eta Beñat.

Zure irribarrea betirako bidelagun. Maite zaitugu.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Arrasaten, 2019ko otsailaren 1ean.



ESKER ONA

Jose Mari Epelde Bergaretxe


2019ko urtarrilaren 23an hil zen, 79 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2019ko otsailaren 1ean.



ESKER ONA




Arantxa Imaz Arrue

Joxan Alvarezen alarguna

2019ko urtarrilaren 28an hil zen, 72 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2019ko otsailaren 1ean.



ESKER ONA



Ricardo Suarez Santos

2019ko urtarrilaren 28an hil zen, 75 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2019ko otsailaren 1ean.



GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 1	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Zapatua, 2	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15
Domeka, 3	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Astelehena, 4	FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Martitzena, 5	IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Eguaztena, 6	AMEZUA: Santa Marina 32 / 943 79 09 74
Eguena, 7	ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 1	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Zapatua, 2	ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
Domeka, 3	ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
Astelehena, 4	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Martitzena, 5	URRITIKOETXEA: Orizondo plaza 4 / 943 76 11 74
Eguaztena, 6	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Eguena, 7	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 1	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Zapatua, 2	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Domeka, 3	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Astelehena, 4	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Martitzena, 5	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguaztena, 6	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguena, 7	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

ARRASATE GAUEZ EGUNEZ	
(22:00etatik 09:00etara)	
2018ko abenduaren 31ra arte:	
IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39	

BERGARA GAUEZ EGUNEZ	
(22:00etatik 09:00etara)	
2018 osoan:	
MOZOS: Iparragirre 2	
943 76 12 15	

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
 CDF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05 edo eskelak@goiena.eus

- ▶ Hiletara egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Eskerri ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €
 - ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €
- Goiena: irakurriena Debagoienean.**

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Jakin ezazue nahiz eta heriotz aseguruia izan, zuek nahi duzuen hiletara-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA

TXUTXU-MUTXUAK



1



2



3



4



5



6

1. Musika, elkartrukeko aitzakia

Arrasate Musikaleko eta Tarragonako Montblanc herriko Josep Porter i Rivera musika eskolako ikasleek elkartrukea egin zuten aurreko aste bukaeran. Hainbat emandaldia egin zituzten, baina ikusgarriena Kulturateko klaustroan egindakoa izan zen. Esperientzia ederraren ostean, bueltako bidaia geratzen da. Hori, Tarragonan.

3. Triatloi Federazioak emandako sariekin

Euskadiko Triatloi Federazioak Ainhize Barrainkua, Miren Josune Bikuña, Juan Martin Elexpuru eta Xabier Jauregi debagoiendarrak saritu zituen, Eibarren egindako ekitaldian. Kategoria ezberdinetako sailkapenak osatzeko, Euskadin jokaturako sei duatloietako eta bederatzi triatloietako emaitzak hartu dituzte kontuan.

5. Txirrindulari ohiak, protagonista

Jesus Aranzabal, Paco Galdos, Txomin Perurena, Marino Lejarreta eta Joseba Beloki egon ziren aurreko zapatuan Dorletako santutegian dagoen erakusketa bisitatzen. Argazki eta maillot zaharrak ikusi zituzten, Dorletako Ama Txirrindulari taldeko kideek gidatuta. Ostean, mahai-ingurua egin zuten.

2. Urdineta-Gartzia bikotea nagusi

Jon Urdinetak eta Amaia Gartziak osatzen duten bikote mistoak irabazi zuen Aretxabaletako txapelketa, finalean Lierni Zangituri eta Luis Fernandezi irabazita. Hain zuzen, 25-16 irabazi zuten azken partidua. UDAK antolatzen duen txapelketan zortzi bikotek parte hartu dute: sei aretxabaletarrez osatutakoak; beste bat oñatiarrez; eta beste bat gatzagarrez.

4. Uberako jaioberriendako, auzoko zapiak

Bergarako Ubera auzoan San Paulo jaietan murgilduta ibili ziren aurreko aste bukaeran. Askotariko ekintzak egin zituzten egubakoitzetik zapatara, eta, horietako batean, auzoko jaioberriak omendu zituzten, zapi bana emanez txikiei.

6. Hamar zuhaitz berri Eskoriatzan

Eskoriatzako Zuhaitz Egunean hamar familiak parte hartu zuten. Hala, familia bakoitzak ale bat landatu zuen, Arbiñoste eta Santa Marina arteko lur eremuan. 2018an herrian jaiotako 22 umeek zuten ekitaldian parte hartzeko aukera. Azkenean, hamar familia animatu ziren.

ZORION AGURRAK



ARETXABALETA
Agate Etxebarria Zabala
Otsailaren 6an, 4 urte.
Zorionak, printzesa!
Egun politta pasatu eta asko disfrutatu, neska handi! Patxo erraldoi bat asko maite zaittugun aitaxoren eta amaxoren, baina bereziki, ilargiraino eta bueltan maitte zaittuen Kermanen partetik!




BERGARA
June Gonzalez
Otsailaren 6an, 6 urte.
Zorionak, maitia! Sei urte! Muxu handi bat, familia osoaren partetik.



ARETXABALETA
Haritz Salaberria Madinabeitia
Otsailaren 4an, 4 urte.
Zorionak, Haritz! Lau urte, txapeldun! Patxo erraldoi bat Unaxen eta etxeko danon partetik! Asko maitte zaittugu.




BERGARA
Aner Garcia Mujika
Otsailaren 2an, 8 urte.
Zorionak, Aner! Oso ondo pasatu zure eguna. Etxekoan partetik.



BERGARA
Maren Fernandez Lopez
Otsailaren 2an, 5 urte.
Zorionak, marimatraka! Desiratzen gauz zure urtebetetzia elkarrekin ospatzeko! Segi halako alai! Muxuak, familia osoaren partetik.




BRINKOLA
Alma Cabello Davila
Otsailaren 2an, 6 urte.
Zorionak eta patxo handi bat, Arrasateko aitiba-amamen eta izeba-osaben partetik. Ondo pasatu zure egunean!



ARRASATE
Leire Eraña
Otsailaren 2an, 26 urte.
Zorionak eta patxo handi bat, printzesa! Egun ederra pasatu eta bixar ederto ospatuko dugu!



ARETXABALETA
Nahia Berridi Errasti
Otsailaren 1ean, 4 urte.
Zorionak, *patxo!* Ederto ospatu zure eguna eta muxu erraldoia, etxeko danon partetik!



OÑATI
Hego Garcia Calzada
Otsailaren 1ean, 4 urte.
Zorionak, maitia! Gure etxeko printzipea handitzen doa! Txokolatzeko patxoak batez ere, aitaxoren, amaxoren, Aneren eta Enararen partetik.



OTXANDIO
Ane Arejolaleiba Carrasco
Otsailaren 1ean, 2 urte.
Zorionak, pottola. Patxo handi bat, Atxabaltako familiariaren partetik.




BERGARA
Irati Barrigon Gauna
Urtarrilaren 31n, 7 urte.
Zorionak, maitia! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Muxu asko, denon partetik.




ARRASATE
Nahia Garro Arana
Urtarrilaren 31n, 11 urte.
Zorionak eta muxu handi bat, etxekoan partetik.



BERGARA
Irati Larrea Perez
Urtarrilaren 31n, 4 urte.
Zorionak, Irati! Ondo-ondo ospatu eguna. Patxo potolo bat eta belarritik lau tirakada, familia osoaren partetik!




ARRASATE
Hodei Garitaonandia Uriarte
Urtarrilaren 30ean, 11 urte.
Zorionak, txapeldun! Gozatu topera maite dituzun horiekien. Asko gure zaitugu.



OÑATI
Unax Zubia
Urtarrilaren 29an, 8 urte.
Zorionak, mutikotxo, familia osoaren partetik!




BERGARA
Endika Urigoitia
Urtarrilaren 28an, 7 urte.
Zorionak, Endika! Zure aita Lander, ama Ana, Irati, Luzia eta Eder, aitteite Karlos, amama Enkarna eta beste senideen partetik!




ARETXABALETA
Anje Arriola Serrato
Urtarrilaren 28an, 11 urte.
Zorionak, maitxi! Zu nagusitzen zoiazen arren, guretako beti izengo zara gure etxeko *txikiri!* Patxo handi bat, mila merezi dituzun arren!



ARETXABALETA
Ganix Gomez Iturbe
Urtarrilaren 28an, 6 urte.
Zorionak, bihotza! Bizitzaren bidean, segi gozatzeko eta ikertzen. Familia osoaren partetik, muxu erraldoi bat.



OÑATI
Beñat Urkia Goenaga
Urtarrilaren 25ean, 2 urte.
Zorionak, Beñat! Etxeko danon partetik, muxu erraldoi bat.



OÑATI
Xuban Mujika
Urtarrilaren 24an, 2 urte.
Zorionak, etxeko danon partetik! Primeran pasatu zure egunian!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko
17:00ak arte
jasotako zorion
agurrak bakarrik
iragarriko ditugu.

Hortik aurrera
jasotakoak
hurrengo astean
argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus



ARGAZKILARIAXXXX

ARETXABALETA Santa Ageda neska-mutilak kantuan eta dantzaz
2000n jaiotako neska-mutilek kantuan eta eskean jardungo dute, etxerik etxe, Santa Ageda egunez. Iluntzean, Herriko Plazan, 19:00etan, dantzaz egingo dute.

Otsailaren 5ean, kaleetan eta Herriko plazan.



ARGAZKILARIAXXXX

ARRASATE 'Zazpiak bat' antzezlan

AXT taldearen azken antzezlan, gizakiaren gaiztakeriaren inguruan. Helduendako, eta euskaraz. Sarrerak, hamar eurotan. *Etzi, domekan, Amaia antzokian, 19:30ean.*

EGUBAKOITZA 1

ARRASATE Jaime Zamakolaren erakusketa

Gaur inauguratuko dute Debako artistaren bilduma. Tamaina eta gai ezberdinetako hamar lan ipiniko ditu.

Hilbehera tabernan, 12:00etan.

OÑATI San Blas opilak eta bedeinkatutako kordelak

Bedeinkatutako lokarriak, San Blas opilak, txokolata eta goxokiak banatuko dituzte. Prezioa, bi euro. *Lagun Lekun, 17:00etan.*

ELGETA 'Gu ere kontalari'

Herriko gaztetxoak kontalari *Liburutegian, 17:00etan.*

ANTZUOLA Claudia Larrauriren erakusketa

Antzuolan bizi den artista mexikarraren lanak ikusgai. *Aitz Garbi tabernan, 17:00etan.*

ELGETA Mendi Mendia Racing, mahaia

Otsailaren 9an egitekoa den probako antolatzaileek mahaia ipiniko dute kamisetak eta bazkarirako txartelak saltzeko. *Mendizaleen plazan, 19:00etan.*

OÑATI Gabonen aurkako jaialdia

Punk eta hardcore jaialdi basatia, Drei Affen, Titadine, Fly Shit, Lokuria, Kamorrah eta Disasko taldeekin. Sarrerak, bost euro. *Gaztetxean, 21:00etan.*

ZAPATUA 2

ARETXABALETA Aratuste bazkarirako txartelen salmenta

Kuadrillaka eman behar da izena. *Arkupen, 09:00etan.*

BERGARA Gimnasia erritmikoa

Eskolarteko A mailako eta amateur mailako Gipuzkoako txapelketa jokatu dute.

Labegaraletan, 10:00etan.

BERGARA Igeriketa

Gipuzkoako alebin mailako eskolarteko eta infantil mailako neguko txapelketak.

Agorrosinen, 10:00etan.

OÑATI Jabetze Eskolako izen-ematea: epea bukatu

Irakurle eskola feminista: gorputzak hitz delako ikastaroko izen-ematea gaur bukatzen da: 943-78 04 11 edo Oñati.eus.

Udal bulegoetan, 10:00etan.

OÑATI Inauterietako entsegua

Dantzak ikasteko entsegu eguna. *Eltzian, 12:00etan.*

ESKORIATZA Kinttaden Eguna

Adin ezberdinetako kintoek ospakizuna egingo dute.

Fernando Eskoriatza plazan, 12:00etan

ELGETA Oliver magoa

Balio magikoak delako ikuskizuna. Antzerkia, musika, magia, umorea eta dantzak nahasten dituen saioa

egingo du, umeendako. Sarrerak, zortzi euro.

Espaloian, 16:30ean.

ESKORIATZA San Blas opilak egiten

Gaztetxoendako ekintza.

Gaztelekuan, 17:00etan.

BERGARA Energiari buruzko erakusketa

Energia: guzti-guztiaren jatorria eta amaiera delako bilduma ikusgai maiatzaren 5era arte.

Laboratorium museoan, 18:00etan.

ARRASATE San Blas opilak egiten

Sukaldaritza tailerra egingo dute gaztetxoek.

Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.

BERGARA 'Berriro inoiz ez!' erakusketa

36ko gerra oinarri duen bilduma, hilaren 10era arte.

Aroztegin, 18:00etan.

ARETXABALETA 'La Traviata: desde la bahia de Sidney'

Verdiren opera zinema formatuan emango dute. Sarrerak, bost euro.

Zaraia aretoan, 19:00etan

DOMEKA 3

OÑATI Kintoak

2001ean jaiotako gazteek kinto-batzea egingo dute.

Foruen plazan, 10:00etan.

ARETXABALETA San Blas opila jan eta mendi buelta

Gaztetxoak San Lorentzo baselizaraino joango dira opila jatera.

Gaztelekuan, 10:00etan.

ARRASATE 'Familia jolasean'

0-8 urte arteko seme-alabak dituzten familiendako ekintzak, domekero, martxoaren 31ra arte. *Okendoko ludotekan, 17:00etan.*

ARRASATE Wii dantzak

Gaztetxoendako ekintza. *Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.*

OÑATI The Northagirres taldea

Urretxuko taldeak *Corte fino*, bere hirugarren diskoa, aurkeztuko du. *Itturri tabernan, 19:30ean.*

ASTELEHENA 4

ARETXABALETA Santa Ageda neska-mutilak baserri

2000n jaiotako neska-mutilak koplakantari ibiliko dira herriko auzoetan zehar.

Herriko auzoetan, 07:00etan.

ESKORIATZA Santa Ageda bezpera

2001ean jaiotako neska-mutilak baserri ibiliko dira abesten. *Herriko baserrietan, 08:00etan.*

OÑATI Santa Ageda bezpera

Aloña abesbatzako kideen San Martin egoitzan hasita. *San Martin egoitzan, 10:00etan.*

ARETXABALETA San Blas eguna

10:30ean, meza, Apotzaga-Etxebarri auzoko Salluente ermitan; eta ostean, jakien bedeinkapena. *Apotzaga-Etxebarri auzoan.*

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko. *Foruen plazan, 12:00etan.*

ARETXABALETA Odol ateratzea

Arabako odol emaleen elkartea. *Durana kalean, 16:45ean.*

ARETXABALETA 'Matematika eskuetara' hitzaldia

Arizmendi Ikastolako matematika irakasle Leire Aranak egingo die berba 0-6 urte arteko umeen gurasoei.

Kuku Miku elkartearen, 17:30ean.

ARETXABALETA 'Bidelaguna' erakusketa

Gaur zabalduko da Gu Haziak Gara elkartearen erakusketa.

Arkupen, 18:00etan.

ARETXABALETA Santa Ageda kantuan

Aretxabaleta Abesbatzakoren emanaldia, Leizarra musika eskolakoekin eta trikitilariekin. *Herriko kaleetan, 18:15ean.*

ANTZUOLA Santa eskean

Abesbatza, Anelkar, Sagiri eta herriko txistulari taldeak, kantuan. Udan Saharako haurrak ekartzeko erabiliko da batutako dirua. *Herriko plazan, 18:30ean.*

MARTITZENA 5

ARETXABALETA M8

Plataformaren batzarra

Bi batzar egingo dituzte: 14:30etan eta 19:00etan.

Arkupen.

ARRASATE Odol ateratzea

Hileko lehenengo deialdia egin dute. *Anbulatorioan, 16:30etan.*

OÑATI Bingo saioa

Erretiratuendako.

Lagun Lekun, 17:00etan.

ARETXABALETA Haize-metal instrumentu ikasleen emanaldia

Leizarra musika eskolako ikasleak. *Arkupen, 18:00etan.*

OÑATI M8-ko emakume graba prestatzeko batzarra

Oñatiko sare feministaren eskutik. *Eltzian, 18:00etan.*

OÑATI Psikologia irakurle taldea

Silvina Fondra psikologoak gidatutako solasaldia izango da. *Liburutegian, 18:30etan.*

BERGARA 'Oroimenaren inguruan' hitzaldia

Aranzadiko kide Lourdes Herrastik egingo du berba. *Aroztegin, 19:00etan.*

ESKORIATZA Santa Ageda eguna

2001ean jaiotakoek dantza egingo dute herritarren aurrean. *Fernando Eskoriatza plazan, 19:00etan.*

OÑATI Inauterietako entsegua

Dantzak ikasteko entsegu eguna. *Eltzian, 20:00etan.*

EGUAZTENA 6

BERGARA Eguaztenetako azoka

Herriko baseritarren produktuak erosteko aukera. *Oxirondon, 18:00etan.*

OÑATI 'Tertulaixan' irekia

Katixa Agirre idazleak parte hartuko du saioan, eta irekia izango da interesa duten herritar guztiendako.

Danele Sarriguartek gidatuko du saioa.

Liburutegian, 18:30etan.

ESKORIATZA Korrika Batzordea

Apirilaren 14an pasako da Eskoriatzatik, eta ekintzak antolatzen hasi gura dute. Irekia, herritar guztiendako.

Kultura etxean, 18:30etan.

BERGARA Zinekluba

Pequeño secreto pelikula emango dute. Sarrerak, hiru euro.

Zabalotegin, 20:00etan.

EGUENA 7

ELGETA 'Hitzez pitz' irakurketa solasaldia

Aitor Arana idazlearen *Ipuin lizunak* liburutik hartutako hiru idazlan hartuko dituzte hizpide.

Liburutegian, 11:00etan.

OÑATI 'Talent show' lehiaketa: lanak entregatzeko epea

Taldeka, bideoak grabatu beharko dira, beraien talentua erakusteko. Lanak entregatzeko azken eguna otsailaren 15a da.

Kuboan, 17:00etan.

ARRASATE 'Etorkizuna alanbre hesi artean' erakusketa

Gaur zabalduko dute, hilaren 14ra arte.

Kulturaten, 17:30etan.

ARRASATE 'De la retirada a la reconquista' ikus-entzuzkoa

Emanaldi irekia.

Kulturaten, 19:00etan.

ARRASATE Ainara LeGardon bakarlarria

Otsaileko Kooltur Ostegunetako lehen emanaldia egingo du Bilboko musikariak, bandaren laguntzarekin. Sarrerak, bost euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

EGUBAKOITZA 8

ANTZUOLA M8: batzar irekia

Egun horri begira herrian egin beharrekoak lantzen hasteko batzarra egingo dute.

Olaranen, 17:30etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

El gran baño

Zapatua: 19:30.
Domeka: 20:30.

Bumblebee

Zapatua: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Aquaman

Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

ARETXABALETA

ARKUPE

El gran baño

Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

EIBAR

COLISEO

Bajo el mismo techo

Zapatua eta domeka: 17:00.

Gente que viene y Bah

Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

The old man & the gun

Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

Uno mas en la familia

Zapatua eta domeka: 17:00.

Bajo el mismo techo

Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

BOULEVARD

Bajo el mismo techo

Egunero, eguna izan ezik: 12:35, 16:10, 18:15, 20:20, 22:25, 00:30.
Eguena: 16:10, 18:15, 20:20, 22:25.

Green book

Egunero, martitzena izan ezik: 13:15, 17:00, 19:40, 22:30.
Martitzena: 17:00, 19:40.

Dragon ball super (euskaraz)

Eguaztina: 18:00.

La gran aventura de los Lunnis

Egunero, zapatua izan ezik: 13:00, 16:45.
Zapatua: 16:45.

Como entrenar a tu dragon

Zapatua: 12:00.

La favorita

Egunero, martitzena izan ezik: 13:20, 16:25, 18:50, 21:15, 23:40.
Martitzena: 16:25, 18:50.

Glass

Egunero, martitzena izan ezik: 12:15, 16:00, 18:35, 21:10, 23:45.
Martitzena: 16:00, 18:35.

Creed: la leyenda de Rocky

Egunero, martitzena izan ezik: 13:10, 16:00, 18:45, 21:25, 00:05.
Martitzena: 16:00, 18:45..

Ralph rompe Internet

Egunero, zapatua izan ezik: 12:45, 17:30.
Zapatua: 12:45, 15:45.

El gran baño

Egubakoitza eta zapatua: 19:40..

El vicio del poder

Egunero: 22:15.

Familia al instante

Egunero: 12:20, 16:30, 19:00, 21:30, 23:50.

Asterix

Egubakoitzetik domekara, eta eguaztina: 12:30, 15:55.
Astelehena eta martitzena: 15:55, 18:00.

Gente que viene y Bah

Egubakoitzetik domekara, eta eguaztina: 22:20, 00:30.

Astelehena eta martitzena: 20:00, 22:20.

Eguena: 16:15, 18:15.

El regreso de Mary Poppins

Egunero: 13:30, 16:40.

Aquaman

Egunero: 19:20, 22:10.

Superlopez

Egunero: 12:40.

Bohemian Rhapsody

Egunero: 19:05, 00:25.

GORBEIA

Asteriz: el secreto de la pocion magica

Egubakoitza eta zapatua: 16:40, 18:25.
Domeka: 12:15, 16:30.

Bajo el mismo techo

Egubakoitza eta zapatua: 18:30, 20:30, 22:30.
Domeka: 18:30, 20:30.

Astelehenetik eguenera: 17:30.

Bohemian Rhapsody

Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 20:40.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

Creed: la leyenda de Rocky

Egubakoitza eta zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.

Astelehenetik eguenera: 17:30.

Dragon ball super

Egubakoitza eta zapatua: 16:35, 18:35.
Domeka: 12:15, 16:35, 18:35.

El regreso de Mary Poppins

Egubakoitza eta zapatua: 17:20.
Domeka: 12:00, 17:20.

El reino

Egubakoitzetik domekara: 19:10.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

El vicio del poder

Egubakoitza eta zapatua: 21:40.
Domeka: 20:25.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

Familia al instante

Egubakoitza eta zapatua: 20:10, 22:30.
Domeka: 12:00, 18:20.

Astelehenetik eguenera: 17:30.

Gente que viene y Bah

Egubakoitza eta zapatua: 20:35, 22:30.
Domeka: 20:35.

Glass

Egubakoitza eta zapatua: 19:50, 22:20.
Domekatik eguenera: 19:50.

Green book

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30.
Domekatik

eguenera: 17:30, 20:00.

La gran aventura de los Lunnis

Egubakoitza eta zapatua: 16:45.
Domeka: 12:00, 16:45.

Mi vecino Totoro

Domeka: 12:00.

Ortiz, el hombre de hielo

Egubakoitza eta zapatua: 18:44, 20:40.
Domeka: 18:44.

Astelehenetik eguenera: 17:30.

Ralp rompe Internet

Egubakoitza eta zapatua: 17:00.
Domeka: 12:00, 17:00.

Spiderman

Egubakoitza eta zapatua: 17:10.
Domeka: 12:15, 17:10.

Superlopez

Egubakoitzetik domekara: 16:35.

Todos a una

Egubakoitza eta zapatua: 18:45, 20:40, 22:30.
Domeka: 18:45, 20:40.

Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Uno mas en la familia

Egubakoitza eta zapatua: 16:50.
Domeka: 12:00, 16:50.

KRITIKA

La favorita ★★★★★

Zuz.: Yorgo Lanthimos. **Herr.:** Britania Handia (2019). **Aktoreak:** Olivia Colman, Rachel Weisz, Emma Stone.

Errukigabeko norgehiagoka

ANTONIO ZABALA

La favorita XVIII. mendean kokatzen da, Britainia Handian. Filmaren pertsonaia nagusiak hiru emakume dira: Ana Erregina; erregina bera txikitatik ezagutzen duen Marlborough dukesa; eta gaztelura neskame lanak egitera doan dukesaren lehenusina. Hiruren artean sortzen, garatzen eta aldatzen doazen harremanen azalpena izango da istorioaren ardatz nagusia. Botere grina, norberekeria eta handinahia nabarmentzen dira pertsonaien izaeretan. Erreginak haur baten

portaera du. Alde batetik, ahula da; eta bestetik, berekoia eta krudela. Marlborough dukesak ederki daki erregina maneiatzen. Bera da benetan politikaren hariak mugitzen dituenak. Azkenik, heltzen den neskameak handitasun nahia dauka, eta, poliki-poliki, erreginarengana hurbiltzen ahaleginduko da, boterea lortu nahian. Bi lehenusinen artean gerra sortuko da erreginarekin konfiantza lortzeko. Eta erreginak, berriz, etekina aterako dio egoera horri.

Lanthimosek oso modu egokian kontatzen dizkigu egoera desberdinen ñabardurak eta pertsonaien trikimailuak. *La favorita* komedia maltzurra eta krudela da. Gortearen heziera onaren atzetik, errukigabeko norgehiagoka basatia dago.

Pelikulan zehar, oso ondo heltzen zaizkigu pertsonaia bakoitzaren izaerak eta trazu guztiak. Alde horretatik, oso pertsonaia aberatsak dira, eta lorpen izugarri horretan zerikusi handia dute hiru aktoreen lan zoragarriak.



AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA

Topikoak, fama

Berezi fama daukagu. Oñatiarrok. Zoro fama. Zertarako ukatu. Ama Bergarakoa dudala esaten diet gai horrekin tematzen direnei.

Gaiak luzerako ematen baitu. Kondearen "pernada eskubidea". Lehengusuen arteko ezkontzak. "Harrikada" duten pertsonen zerrenda. Oñatiko haizea. "Zoroei" gertatutako xebebrekeriak.

Itxi fama ere badaukagu. Oñatiarrok. Herritik ez ateratzearen fama. Zertarako ukatu. Halakoetan, Donostian bizi naizela esaten dut.

Hasten baitira esaten kolpeka ere ez gaituztela herritik ateratzen. San Prudentzion buelta ematen dugula. Kanpotarrek beti ligatzen dutela Oñatin, "aurpegi berriak" direlako. "Kuba Txiki". Endogamia... Eta zoro famara berriro.

Eta alai fama daukagu. Oñatiarrok. Festazale fama. Zertarako ukatu. Orduan, oñatiar peto-pettoa naizela esaten dut.

Beti jaietan dagoen herria, Oñati. Auzoek bakarrik ez, kale bakar batek ere bere festak izan ditzakeen herria. Triana daukagu. Ole! Eta Casablanca. Trump gabe, gainera. Zertarako irten Oñatitik? Zoratuta egon behar da... Kasuen, ezin zoro famatik libratu!

BUKATZEKO



Asier Garitano, Realaren partidu bat zuzentzen. IRUTXULOKO HITZA



Gaizka Garitano, Athleticen entrenamendu batean. URIOLA.EUS

Garitano senideen arteko derbia izango zen biharkoa

Francisco Javier Melendez genealogistak egindako ikerketa batek frogatu du Asier eta Gaizka Garitano urrutiko senideak direla; Bergarako Garitano Erdikoa baserrian dute jatorria, eta Miguel Antonio Garitano da amankomunean duten lehen senidea

Eneko Azurmendi BERGARA

"Hainbat kirol komunikabidek zioten ez zegoela senidetarrentzat Asierren eta Gaizkaren artean, eta genealogistak oso kuriositate handiko pertsonak garenaz, bien zuzenbide genealogikoak aztertzen hasi nintzen, 2017 hasieran. Urte bereko martxoan aurkitu nuen euren lehen arbaso amankomuna: Miguel Antonio

Garitano Askasubi, Asierren zuzenbidearen aitona eta Gaizkaren seigarrena", dio Melendezek.

Genealogistaren arabera, Miguel Antonioren eta bere emazte Theresa Saribiarte aretxabalearen bi semeen ondorengoak dira Asier eta Gaizka.

Lehenik, Interneteko datu biografikoak arakatu zituen, eta, ostean, Ondarroako eta Berga-

rako erregistro zibilean hiru jaiotza-agiri eskatu zituen. "Agiri horietako bitan aurkitu nituen 1901a baino lehen jaiotako Asierren eta Gaizkaren aitaren aldeko birraitonen izenak", dio.

Protagonisten hitzak

Asierrek duela urte pare bat izan zuen horren berri. "Kuriosoa iruditu zitzaidan. Gaizkari

whatsapp bat bidali nion eta hark ere ezer ez zekiela esan zidan. Txantxetan aritu ginen geure artean. Egia esan, bai, bitxia da", azaldu du.

Gaizkak, berriz, bien arteko harreman ona azpimarratu gura izan du. "Gutxi ikusi arren, oso harreman ona daukat Asierrekin, baina, batez ere, futbol mundutik sakondu dugu harremana". Gaineratu du "pena" dela bihar elkarren aurka aritu ezin izana. "Hala ere, beste partidu batzuetan jokatu izan dugu elkarren aurka, eta oso pertsona eta entrenatzaile ona dela iruditzen zait", nabarmendu du.

Angel Garitano Ondarru irratia esataria da Gaizkaren aita. Gaiaren gainean galdetuta, zera adierazi du: "Atzera begira jarrita, senideak izan gintezkeela argi zegoen, Bergara ez baita New York".



ESTIMULAZIO GOIZTIARRA JARDUNALDIAK

Núria Sánchez

www.elkarhezi.eus

Arantzazu Kalea 18, 20560 - Oñati Telf.: 943 71 82 72
www.mlagundia.net

Espaloia Kalea, 1. 20570 - Bergara · Telf. 943 76 25 40

Elkar Hezi Ikastetxean

Otsailak 8, ostirala
16:00-20:00

Otsailak 9, larunbata
9:00-14:00
eta 15:30- 18:30